BIDASOA BEHEA, OARSOALDEA ETA DONOSTIAREKIKO LOTUNEEN ERABILERA OROKORREKO BIDAIARIEN HERRI ARTEKO GARRAIO ERREGULARREKO ZERBITZUAK ESKAINTZEKO EMAKIDA (LUR-E-01)

PRESKRIPZIO TEKNIKOEN BALDINTZA AGIRIA

AURKIBIDEA:

I. TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK 7

1 HITZAURREA 7

2 KONTRATUAREN XEDEA 8

3 KONTRATUAREN IRAUPENA 8

4 ZERBITZU PUBLIKOAREN BETEBEHARRA 8

5 ALDERDIEN ERANTZUKIZUNAK ETA ESKUMENA 9

6 ZERBITZUAREN KALIFIKAZIOA 9

7 ZERBITZUAREN JARRAITUTASUNA 10

8 ZERBITZUAREN KALITATEA 11

9 KOMUNIKAZIO POLITIKA 12

10 HARREMANAK GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAREKIN 12

II. TITULUA: KUDEAKETAREN BALDINTZA TEKNIKOAK 13

11 EMAKIDAREN XEDE DEN ZERBITZUA ETA ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK 13

11.1 Baimendutako trafikoak 13

11.2 Zerbitzuak 14

11.3 Ibilbideak eta egutegia 14

11.4 Geralekuak 14

11.5 Aginte postua 14

11.6 Ustiapen plana 15

12 EMAKIDARI ATXIKITAKO ONDASUNAK 15

12.1 Ibilgailuak 16

12.1.1 Betekizun orokorrak 16

12.1.2 Erabilera esklusiboko ibilgailu atxikiak 17

12.1.3 Ibilgailuen zerrenda, antzinatasuna eta ordezteko epeak 17

12.2 Lurraldebus sistemak eta ekipo teknologikoak 18

12.3 Instalazio finkoak 18

13 GIZA BALIABIDEAK 20

13.1 Kontsiderazio orokorrak 20

13.2 Giza baliabideak antolatzea 20

13.3 Kontratua gauzatzeari atxikitako langileak 21

14 ORDAINBIDEAK 21

14.1 MUGI txartela 21

14.2 QR kodea 21

14.3 cEMV txartelak 22

14.4 Eskudirutan ordaintzea 22

14.5 Elkarreragingarritasuna. Garraio txartel gehigarriak 22

15 ZERBITZUAREN IRUDIA 23

III. TITULUA: EMAKIDAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA..... 24

16 TARIFA ARAUBIDEA..... 24

16.1 Erabiltzaileek ordaintzeko sistema..... 24

16.2 Tarifak eguneratzea..... 24

17 BESTE DIRU SARRERA BATZUK..... 25

18 KOSTUEN EGITURA..... 25

18.1 Kostu finkoak..... 25

18.1.1 Flotaren eta ITS ekipoen amortizazioa..... 25

18.1.2 Finantza gastuak..... 26

18.1.3 Ibilgailuetako ekipamenduaren mantentze lanak..... 27

18.1.4 Lurraldebus ekosistema..... 27

18.2 Kostu aldakorrak..... 28

18.3 Mozkin industrialaren marjina..... 28

19 ZERBITZUAK EMATEAGATIKO KOSTUAK..... 28

19.1 Zerbitzua hasteko kilometroko prezioa (Pkm)..... 28

19.2 Hileko behin-behineko likidazioa..... 29

19.3 Urteko likidazioa..... 30

19.3.1 Kalitate parametroak..... 30

19.3.2 Urteko likidazioaren konputua..... 31

19.4 Kostuak eguneratzea..... 32

19.5 Amaierako likidazioa 33

IV. TITULUA: ZERBITZUAREN KUDEAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA..... 35

20 EMAKIDA ABIAN JARTZEKO BALDINTZAK 35

20.1 Zerbitzuaren hasiera data 35

20.2 Langileen subrogazioa 35

20.3 Martxan jarri aurreko obligazioak betetzea 37

20.4 Ikuskaritza Zerbitzuen txostena 37

20.5 Emakida inauguratzea 38

21 ZERBITZUAK KUDEATZEA 39

21.1 Zerbitzua ematea 39

21.2 Errefortzuak 39

21.3 Zerbitzu bereziak 39

21.4 Aldaketak zerbitzuak ematean 40

22 ZERBITZU ERREGELAMENDUA 41

23 ZERBITZUA KUDEATZEKO PLANAK 41

23.1 Ustiapen plana 41

23.1.1 Ustiapen planaren edukia 41

23.1.2 Zerbitzuen urteko egutegia 42

23.2 Giza baliabideak eta flota antolatzeko, kudeatzeko eta esleitzeko plana 42

23.3 Kontingentzia plana 43

23.4 Ibilgailuen segurtasun eta mantentze plana 44

23.5 Ibilgailuak garbitzeko plana 45

23.6 Ikuskapen eta autokontrol plana 45

23.7 Prestakuntza plana 46

23.8 Erabiltzaileei informazioa eta arreta emateko plana 46

24 IBILGAILUEN FLOTA BERRITZEA 47

24.1 Berritzeko prozedura 47

25 URTEKO KUDEAKETA TXOSTENA 48

25.1 Urteko memoria teknikoa 48


25.2 Ekitaldi berrirako kudeaketa planak entregatzea 49

V. TITULUA ERANSKINAK 51

I. TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1 Hitzaurrea

Gipuzkoako Foru Aldundiak bidaiarien hiriarteko garraio publiko erregularreko emakida multzo bat kudeatzen du, errepideko erabilera orokorreko bere eskumenaren esparruan. Emakida horiek guztiek Gipuzkoako Foru Aldundiaren titulartasuneko hiriarteko zerbitzu osoa biltzen dute Lurraldebus izenarekin, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan dute beren eragiketa eremua, osorik edo partzialki.



Gaur egun, emakida hauek osatzen dute Lurraldebus sistema:

- LUR-E-01: Bidasoa Beherea, Oiartzualdea eta Donostiarekin dituzten loturak
- LUR-M-02: Debabarrena eta Urola Kosta
- LUR-Z-03: Tolosaldea
- LUR-Z-04: Goierri
- LUR-M-05: Tolosa, N-1, Buruntzaldea eta Donostiarekin dituzten loturak
- LUR-M-06: Urola Erdia
- LUR-DG-07: Debagoiena, eta Debabarrenarekin, Gasteizekin, Bilborekin eta Donostiarekin dituen loturak, bai eta Donostiak Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako hiriburuekin dituen loturak ere.

Emakida egitura hori Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako berrantolaketa prozesuen ondorio da. Prozesu horien ondotik, emakida mapa bat osatu da, Gipuzkoan erabilera orokorreko bidaiarien hiriarteko garraio publiko erregularraren zerbitzua egituratzeko.

2 Kontratuaren xedea

Kontratu honen xedea da Bidasoa Beherean eta Oiartzualdean eta eskualdekok Donostiarekin dituzten loturetan (LUR-E-01) erabilera orokorreko bidaiarien hiriarteko garraio publiko erregularra eskaintzea, administrazio kontratu bidez kudeatuta. Hori guztia, Foru Diputatuen Kontseiluak 2024ko ekainaren 11n ontzat emandako eta II. ERANSKIN gisa erantsi den ustiapen proiektu aldatuak jasotzen duenari jarraikiz.

3 Kontratuaren iraupena

Euskal Autonomia Erkidegoko Bidaiarien Errepideko Garraioari buruzko martxoaren 18ko 4/2004 Legearen 24.1 artikuluak ezartzen duenez, emakiden iraupena zerbitzuaren ezaugarrien eta beharren arabera ezarriko da, ibilgailuen eta instalazioen amortizazio-epeak kontuan hartuta, eta iraupen hori ezin izango da bost urtetik beherakoa izan, ezta hamar urtetik gorakoa ere.

II. ERANSKINEKO ustiapen-proiektuan ezarritakoa kontuan hartuta, kontratuak HAMAR (10) urteko indarraldia izango du. Aldi hori kontratua formalizatzen den egunetik aurrera zenbatuko da. Berau gehienez 5 urtez luzatu ahal izango da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2007ko urriaren 23ko 1370/2007 (EE) Erregelamenduaren 4.4 artikuluan xedatutakoaren arabera (erregelamendu hori bidaiariak trenbidez eta errepidez garraiatzeko zerbitzu publikoei buruzkoa da). Bideragarritasun-azterketak eta egitura ekonomiko-finantzarioak gehieneko denbora-tarte hori aurreikusten dute.

4 Zerbitzu Publikoaren Betebeharra

Gipuzkoako Foru Aldundiaren interes orokorreko bidaiarien garraio zerbitzu publiko gisa definitzen dira kontratu honi aplika dakiokeen ustiapen proiektuan jasotako zerbitzuak (dokumentu honen II. ERANSKINEAN dago eskuragarri aipaturiko ustiapen proiektua). Hori dela-eta ezartzen da Zerbitzu Publikoaren Betebeharra. Hala, prestazio hori bermaturik geratzen da

kasu guztietan, baita garraio eragile batek, interes komertziala soilik aintzat harturik, iritziko balio ere ez lukeela bere gain hartuko edo ez behintzat baldintza berberetan ordainsaririk gabe.

Horretarako, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideko Bidaiari Garraioari buruzko Legearen 49. artikuluaren arabera, ustiapen proiektuak konpentsazio bat aurreikusten du zerbitzu publikoa emateko betebeharragatik, eta adjudikaziodunak konpentsazio hori jasotzeko eskubidea izango du zerbitzu hori eskaintzeagatik, baldin eta betetzen baditu lizitazioaren baldintza agirian eta dagokion ustiapen proiektuan aurreikusitako gainerako kontratu betebeharrak.

5 Alderdien erantzukizunak eta eskumena

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumena izango da zerbitzuak planifikatzea, definitzea eta kontrolatzea. Ildo horretan, hark finkatuko ditu linea kopurua, ibilbideak, geralekuak, zerbitzuan dauden ekoizpen bitartekoak, ibilgailuen ezaugarriak, igarotze tarteak, ordutegiak eta zerbitzua emateari eragiten dioten gainerako aldagaiak, eta emakidadunak erabat bete beharko ditu. Horretarako, dagokion txostena eskatu ahal izango dio aldez aurretik.

Bestalde, emakidadunari dagokio zerbitzua Gipuzkoako Foru Aldundiak ezarritako baldintzetan ematea, eta azken horrek agindutako aldaketa guztiak egin beharko ditu zerbitzuaren ezaugarrietan, betiere emakidan adierazitako baldintza ekonomiko, juridiko eta teknikoak errespetatuz. Manu hori aplikatzekoa izango da zerbitzu edo linea berriak ezartzean edo beste batzuk ezabatzean ere.

6 Zerbitzuaren kalifikazioa

Bidaiariak trenbidez eta errepidez garraiatzeko zerbitzu publikoei buruzko 2007ko urriaren 23ko 1370/2007 (EE) Erregelamenduak eta Errepideko Bidaiari Garraioari buruzko martxoaren 18ko 4/2004 Legeak eta hura garatzeko araudian xedatutakoak arautzen dute erabilera orokorreko bidaiari iraunkorren garraio erregularreko zerbitzu publikoen kudeaketa. 4/2004 Legearen 21. artikuluak ezartzen du bidaiariak garraiatzeko zerbitzu publikoa, oro har, administrazio emakidaren bidez gauzatuko dela.

Kontratatzen den zerbitzuaren kudeaketa Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumeneko zerbitzu publikotzat joko da une oro, eta zeharkakoa izango da kudeaketa hori, administrazio zerbitzuen emakidaren modalitatean.

Kontratu honen xede den zerbitzua ustiatzeko eskubideak berekin ekarriko du emakidadunari transferitzea zerbitzu hori ustiatzeko eragiketa arriskua, hornidura arriskua barnean hartuta. Emakidadunari transferitutako arriskuen parteak merkatuaren ziurgabetasunekiko benetako esposizioa ekarriko du.

Zehazki, emakidadunak bere gain hartu behar du kostuak handitzeko arriskua; izan ere, gerta liteke, merkatuaren gorabeheren ondorioz, bere kostuen egitura kalkulatzeko erabilitako edozein parametrok gorabeherak izatea (hala nola langileen kostuak, ibilgailuaren inbertsioen salmenta balioa, finantza gastuak, aseguruak, erregaiak, konponketa, mantentze lanak eta abar). Beraz, ez da bermatuko Gipuzkoako Foru Aldundiak egiten dituen ordainketek erabat estaltzea zerbitzua emateagatik sortzen diren kostuak.

Beraz, transferitutako eragiketa arriskuaren arabera, emakidadunak zerbitzua eskaintzeagatik Gipuzkoako Foru Aldundiarengandik jasoko duen ordainketa maximotzat hartuko da, eta emakidadunak bere gain hartuko du zerbitzua emateko kostuan desbideratzeen ondorioz gerta daitekeen arriskua.

7 Zerbitzuaren jarraitutasuna

Emakidadunak etenik gabe bermatu behar du zerbitzua hitzartutako jarraitutasunarekin emango dela, eta partikularrei zerbitzua erabiltzeko eskubidea bermatu behar die orobat, Gipuzkoako Lurralde Agintaritzaren barruan diharduten Gipuzkoako errepide bidezko bidaiarien garraio zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko Erregelamenduan ezarritako baldintzetan. Erregelamendu hori, hain justu, VII.1. ERANSKINEAN dago eskuragarri, eta emakidadunak osorik bete beharko du han jasotakoa.

Ezinbesteko arrazoiak direla medio, emakidadunak ezin baditu normalki eskaini kontratatutako zerbitzu guztiak edo batzuk, arreta eta ardura osoz jardun beharko du zerbitzu horiek berrezartzeko, bai bere baliabideekin, bai zerbitzutik kanpoko hirugarrenekin kontratatzeko beharrezkotzat jotzen dituen bitartekoekin. Nolanahi ere den, beharrezko neurri guztiak hartu beharko ditu zerbitzuok lehenbailehen berrezartzeko.

Zerbitzuak eteten diren kasuetan, emakidadunak iraupena ahalik eta gehien mugatzen saiatu beharko du une oro, eta, horretarako, berrezartzeko beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak jarriko ditu, etete horrek ahalik eta endredo txikienak eragiteko ukituriko pertsonei. Hala, emakidadunak ordaindu beharko ditu aldi baterako edozein lagapen edo kontrataziok eragindako gastu guztiak. Era berean, emakidadunak ahaleginak egingo ditu, deskribatutako kasuan, zerbitzurik ezak eragindako pertsona kopurua ahalik eta txikiena izan dadin.

Emakidadunak zerbitzuren bat ez badu eman behar greba edo antzeko arrazoiren bat dela eta, ez da geratuko salbuetsita inola ere beharrezko gutxieneko funtsezko zerbitzuak ematetik, eta kontratuaren preziotik kenduko da prestazioa behar bezalako baldintzetan egin ez zen denborarekiko proportzionala den zenbatekoa. Horrek guztiak ez du eragotziko, hala ere, hartu beharreko zehapenak hartzea, kasuak hala eskatzen badu.

Planifikatu daitezkeen zerbitzu etenaldi guztietan, emakidadunak 48 ordu lehenago jakinarazi beharko dio Gipuzkoako Foru Aldundiari. Planifikatu ezin diren eta, beraz, presakoak diren etenak ahalik eta lasterren jakinarazi behar zaizkio Gipuzkoako Foru Aldundiari. Kasu horietan, gainera, informazio egokia eman beharko zaie erabiltzaileei. Gorabeheraren bat denean, beti jarri beharko da jakinaren gainean Lurraldebusen Herritarren Arretarako Zerbitzua ahalik eta xehetasun handienarekin, eta bilakaeraren eta konponbidearen berri ere emango zaio, dela telefonoz, dela arreta zerbitzua kudeatzeko plataformaren bidez, zeina *Bidasoa Behereko, Oiartzualdeko eta eskualdeok Donostiarekin lotzeko erabilera orokorreko bidaiarien hiriarteko garraio erregularreko zerbitzu publikoaren emakidarako proiektu aldatua*n baitago deskribatuta (preskripzio teknikoen baldintza agiri honen II. ERANSKINEAN dago jasota hori). Nolanahi ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak horretarako ezartzen dituen eragiketa prozedurei erantzun beharko die emakidadunak.

8 Zerbitzuaren kalitatea

Gipuzkoako Foru Aldundiak, zerbitzuaren arduradun gorena den aldetik, bermatu behar du zerbitzua kalitate estandar egokiekin ematen dela. Hauek dira kalitate sistema arautuko duten irizpide orokorrak:

- Ustiapen optimoa lortzea, ordutegiak betez eta zerbitzuak eskainiz.
- Flota operazio eta fidagarritasun baldintza egokietan edukitzea.
- Bidaiarien segurtasuna areagotzea.

- Kalitatezko zerbitzua ematea, bai baliabide materialei dagokienez, bai ibilgailuetako, geralekuetako, garbiketako eta abarretako informazio sistemei dagokienez.
- Arreta egokia ematea erabiltzaileei.
- Zerbitzuaren irudia etengabe hobetzea erabiltzaileen artean.
- Berehala jakinaraztea zerbitzuak atzeratzea edo bertan behera uztea eragin dezaketen gorabeherak.

Zehazki, zerbitzuak kalitate baldintza batzuk bete beharko ditu. Baldintza horiek egiaztatzeko, kalitateari buruzko indizeak edo adierazleak kontrolatuko dira —emakidadunak emandako zerbitzuaren kalitateari eta zerbitzu hori erabiltzen duten erabiltzaileek hautemandako kalitateari buruzkoak—. IV. ERANSKINAK jasotzen ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak balioetsitako kalitate parametroak.

9 Komunikazio politika

Gipuzkoako Foru Aldundiak zuzenduko du komunikazio politika. Foru Aldundiak ezarritako jarraibideen arabera jardungo du emakidadunak arlo horretan, eta beti erabiliko du Lurraldebus marka. Era berean, emakidadunak Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaliko dizkio komunikazio ekintza baterako interesgarriak izan daitezkeen ekintza edo ekitaldi guztiak. Emakidadunak bere komunikazio ekintzak egin ahal izateko, Foru Aldundiaren berariazko baimena beharko du.

10 Harremanak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzarekin

Enpresa adjudikaziodunak bere gain hartuko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak garraio zerbitzua planifikatu eta emateko Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan duen partaidetzaren ondoriozko konpromisoak, bai eta tarifak integratzeari dagozkionak ere, guztia ere unean-unean indarrean dagoen Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio publiko kolektiboan tarifak integratzeko sistemaren lankidetza hitzarmenean ezarritakoaren arabera.

II. TITULUA: KUDEAKETAREN BALDINTZA TEKNIKOAK

Gipuzkoako Foru Aldundiak II. ERANSKINEAN finkatu ditu zerbitzuen, ordutegien, ibilbideen eta autobus kopuruaren (lineakoak zein erreserbakoak) inguruko zerrenda, eta han jasotzen dira, orobat, gainerako aldagai teknikoak, emakidaren ustiapen planean ezarri beharreko gutxieneko zerbitzu baldintzak osatzen dituztenak.

11 Emakidaren xede den zerbitzua eta zerbitzuaren ezaugarriak

Zerbitzuaren ezaugarriak baldintza agiri honetan daude jasota, bai eta dokumentu honen II. ERANSKINEAN eskuragarri dagoen ustiapen proiektu aplikagarrian ere. Dokumentu horietan zehazten dira dagozkion ibilbideak (lineak, ibilbideak eta geralekuak), trafikoak, ibilaldiak eta egutegia, ibilgailuak, instalazio finkoak, zerbitzu finkoak eta eskaripeko zerbitzuak (halakorik balego). Proiektu hori bat dator Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideko Bidaiari Garraioari buruzko Erregelamenduaren 15. artikuluan aurreikusitako edukiarekin.

11.1 Baimendutako trafikoak

Emakidadunak *Bidasoa Behereko, Oiartzualdeko eta eskualdeok Donostiarekin lotzeko erabilera orokorreko bidaiarien hiriarteko garraio erregularreko zerbitzu publikoaren emakidarako proiektu aldatua*ren trafiko matrizean baimendutako trafikoak bakarrik egingo ditu (dokumentu honen II. ERANSKINEAN dago eskuragarri proiektu aldatu hori). Egin beharreko trafikoak esklusiboki emango dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideko Bidaiari Garraioari buruzko martxoaren 18ko 4/2004 Legearen 23.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, betiere interes orokorraren arabera izenpetu daitezkeen erakunde arteko akordio eta/edo hitzarmenen kalte gabe. Bereziki, Gipuzkoako Foru Aldundiak lankidetza egonkorrak antolatu ahal izango ditu emakidaren lurralde eremuko udalerriekin, horietako bakoitzeko hiri zerbitzuak osatzeko.

Hala, proiektuaren arabera, debekatu egingo dira Donostia eta Irun udalerrietarako barne trafikoak. Alabaina, udalek eskatuta eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimenarekin, eskaini ahal izango da hiri trafikoa ere.

11.2 Zerbitzuak

Eskaini beharreko zerbitzuak emateko, kontuan hartuko da *Bidasoa Behereko, Oiartzualdeko eta eskualdeok Donostiarekin lotzeko erabilera orokorreko bidaiarien hiriarteko garraio erregularreko zerbitzu publikoaren emakidarako proiektu aldatua*n ezarritakoa, zeina agiri honen II. ERANSKINEAN baitago eskuragarri.

11.3 Ibilbideak eta egutegia

Zerbitzuak Gipuzkoako Foru Aldundiak unean-unean onetsitako ordutegi eta egutegiari jarraikiz eskainiko dira. Hasiera batean, ontzat emandako ordutegitzat hartuko dira emakidadunak *Bidasoa Behereko, Oiartzualdeko eta eskualdeok Donostiarekin lotzeko erabilera orokorreko bidaiarien hiriarteko garraio erregularreko zerbitzu publikoaren emakidarako proiektu aldatua*n aurreikusitakoak (dokumentu honen II. ERANSKINEAN dago eskuragarri). Aldaketa hori ez da hartuko kontratu aldaketatzat.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, interes orokorra kontuan hartuta eta emakidadunari entzun ondoren, ordutegiak aldatu ahal izango ditu, eta kontratuaren titularrak nahitaez bete beharko ditu aldaketa horiek.

11.4 Geralekuak

II. ERANSKINEAN daude jasota eta zerrendatuta emakidan sartutako linea bakoitzean bidaiariak hartzeko eta uzteko geralekuak. Guztiak izango dira nahitaezkoak, eta enpresa adjudikaziodunak ezin izango ditu bidaiariak hartu eta utzi toki horiek ez diren beste leku batzuetan. Horri loturik egin nahi den edozein aldaketa Gipuzkoako Foru Aldundiak baimendu beharko du.

11.5 Aginte postua

Enpresa emakidadunak Ustiapenari Laguntzeko Sistemaren (SAE, gaztelaniazko siglen arabera) aginte postu bat izango du, zeina emakidadunaren instalazioetan egongo baita. Aginte postu horrek ustiapenerako, ikuskapenerako, erabiltzaileei informazioa emateko eta gorabeheraren bat gertatuz gero erabakiak hartzeko beharrezko tresnak izango ditu.

Aginte postuari jakinarazi beharko zaizkio emakidan sartzen diren lineen erregulazioa eta zerbitzua ematen den bitartean gertaturiko edozein gorabeheraren koordinazioa, eta hark hartuko ditu erabakiak.

11.6 Ustiapen plana

Zerbitzua ustiapen planari jarraikiz ustiatuko da, IV. TITULUKO 23.1. atalean definitutakoaren arabera.

Hasierako zerbitzuaren ustiapen plana Gipuzkoako Foru Aldundiak baimenduko du, lizitatzaileak bere eskaintzan aurkeztutako planean oinarrituta, betiere kontratu hau arautzen duten baldintza agirietako IV. TITULUKO 20.3. atalari jarraikiz.

12 Emakidari atxikitako ondasunak

Emakidari atxikitako ondasuntzat hartzen dira zerbitzua behar bezala ustiatzeko eta kontratua gauzatzeko beharrezko ondasun guztiak. Hori horrela, emakidari atxikitako ondasuntzat hartzen dira:

a) Zerbitzuko ibilgailu flota.
b) Informatzeko eta kudeatzeko sistemak eta ekipoak; bereziki, SAE sistema eta ezeztatze eta ordaintze sistemak.
c) Instalazio finkoak, hala nola bulego, kotxetegi, lantegi eta aparkalekuak.
d) Salmenta kabinak edo beste instalazio batzuk, halakorik denean.

Ondasun horiek zerbitzua ematen duen enpresak soilik jarriko ditu zerbitzuaren esku. Emakidari atxikitako ondasunak, amortizatzen direnean, emakidari atxikitakotzat hartuko dira.

Zerbitzua ematen duen enpresak emakidari lotutako ondasunen inbentarioa egin beharko du urtero, behar besteko xehetasun mailarekin eta eguneratuta. Inbentarioan bereizi egingo dira, batetik, atxikitako ondasunak —hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiak amortizatzen dituenak eta, ondorioz, itzuli behar direnak—, eta, bestetik, atxikita ez daudenak. Inbentario hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku egongo da.

Emakidari atxikitako ondasunak ondo zainduta eta garbi eduki beharko dira. Emakidari atxikitako ondasunek ezin izango dute egin aurreikusitakoez bestelako zerbitzurik, Gipuzkoako

Foru Aldundiak berariaz baimena eman ezean aldez aurretik. Emakidari atxikitako ondasunak ezin izango dira kargatu, errentan eman edo besterendu, ez kostu bidez, ez irabazi bidez, eta ezin izango dira beste erabilera baterako baliatu.

12.1 Ibilgailuak

12.1.1 Betekizun orokorrak

Garraio araudian xedatutakoaren arabera, emakidadunak bidaiarien garraio publikoan aritzeko gaitzen duen baimena izan beharko du, eta, zehazki, emakidari atxikitako ibilgailuekin aritzekoa.

Kontratuari atxiki beharreko ibilgailu berriek nahitaez bete beharko dituzte *Bidasoa Behereko, Oiartzualdeko eta eskualdeok Donostiarekin lotzeko erabilera orokorreko bidaiarien hiriarteko garraio erregularreko zerbitzu publikoaren emakidarako proiektu aldatua*n (II. ERANSKINA) zehazten diren ezaugarri tekniko eta arauemaileak. Halaber, autobusa matrikulatzeko unean aplikatu beharreko lege xedapen guztiak bete beharko dira, egin nahi den zerbitzuaren tasunak kontuan hartuta. Halaber, emakidadunak dagozkion aseguru polizak sinatu beharko ditu.

Mugikortasun urriko pertsonen garraioko irisgarritasunari eta arlo horretako irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoen aplikazioari dagokienez, zeinak Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 10eko 126/2001 Dekretuak (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 142. zk.) eta azaroaren 23ko 1544/2007 Errege Dekretuak (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 290. zk.) onesten baitituzte, Gipuzkoako Foru Aldundiak zenbait protokolo ezarri ahalko ditu, emakidadunak indarrean dagoen legedia betetzen duela bermatzeko. Nolanahi ere, irisgarritasunaren alorrean, arestian aipatutako araudia izango da aplikatzekoa, bai eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen eremuan bidaiariak errepidez garraiatzeko zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko Erregelamenduan ezarritakoa ere, zeina VII.1 ERANSKINEAN baitago eskuragarri.

Ibilgailuek kontserbazio eta garbitasun egoera ezin hobean egon beharko dute une oro. Baliteke haien neurria eta baimendutako plazen kopurua desberdinak izatea, eta eskainitako zerbitzuetara egokitu beharko dute une oro. Nolanahi ere, ibilgailuak ahalik eta erosoenak izango dira erabiltzaileentzat, eta bereziki baloratuko dira hartzen dituzten segurtasun neurriak eta erabiltzaileek ahalik eta eserleku gehien izatea. Zerbitzu konbentzionaletarako, 1958ko martxoaren 20ko Genevako Akordioaren eranskinean jasotako 36. Erregelamenduak edo hura ordezten duen arauak I. edo II. motakotzat sailkatutako ibilgailuak erabili ahal izango dira.

Zutik doazen bidaiariak garraiatzeko plaza kopurua, berriz, Gipuzkoako Foru Aldundiak edo, kasuaren arabera, administrazio eskudunak finkatuko du, ibilgailuak eta eman beharreko zerbitzua aztertu ondoren.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2 plaza eskatzen ditu gaur egun mugikortasun urriko pertsonentzat.

12.1.2 Erabilera esklusiboko ibilgailu atxikiak

Emakida berriari atxikitako ibilgailuak esklusiboki atxikiko dira, eta ezin izango dute eman kontratu honetan jasotakoez bestelako zerbitzurik. Nolanahi ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak baimena eman ahal izango du, aldi baterako eta behar bezala justifikatuta, ibilgailu horiek bidaiariak errepidez garraiatzeko beste zerbitzu batzuetan erabiltzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiak erabakiko du, urteko zerbitzu egutegiaren bidez, zenbat ibilgailu atxiki zaizkion emakidari.

12.1.3 Ibilgailuen zerrenda, antzinatasuna eta ordezteko epeak

*Bidasoa Behereko, Oiartzualdeko eta eskualdeok Donostiarekin lotzeko erabilera orokorreko bidaiarien hiriarteko garraio erregularreko zerbitzu publikoaren emakidarako proiektu aldatua*n jasotako aurreikuspenak kontuan hartuta, II. ERANSKINEAN jasotzen da zerbitzua emateko behar diren tipologia eta edukiera kopuruaren arabera atxiki behar diren ibilgailuen kopurua, erreserbako ibilgailuak barnean harturik.

Era berean, proiektuan zerrendatzen dira egungo emakidadunaren zerbitzura dauden eta subrogatuko diren ibilgailuak (II. ERANSKINA). Kontratuari atxiki beharreko ibilgailuei dagokienez, zerbitzuari atxikita jarraituko dute emakidadunak zerbitzua emateari utzi ondoren ere. Horretarako, dagokion lizitazio prozeduraren ondoren zerbitzua emateko adjudikaziodun suertatzen den erakundeak subrogatuko du azken flota, bere garaian ezartzen diren modu eta baldintzetan.

Proiektu horren arabera, **BERROGEITA HAMAZAZPI (57)** autobus atxiki behar zaizkio emakidari, eta horietatik **BEDERATZI (9)** erreserbako ibilgailutzat jotzen dira. Atxikitako flotaren gehieneko antzinatasuna ezingo da izan HAMAR (10) urte baino gehiagokoa, lehen matrikulaziotik zenbatzen hasita. Hala ere, zerbitzua ematen jarraitzeko, hasiera batean, ezarritako baldintzak betetzen dituzten beste ibilgailu batzuk atxiki ahal izango dira behin-behinean, harik eta ibilgailu

berriak ailegatu arte. Gainerako ibilgailuen kasuan, hamar urte betetzen dituztenean, emakidadunak gehienez 6 hilabete izango ditu ordezteko.

Zerbitzua ematerakoan, salbuespen gisa, emakidari atxikitako ibilgailu kopurua baino handiagoa eskatzen duten beharrizan gehigarriak sortzen badira, enpresa emakidadunak bere edo besteren ibilgailuekin erantzun beharko dio eskari horri, baldin eta ibilgailu horiek betetzen badituzte atxikitako ibilgailuei eskatzen zaizkien baldintzak eta Administrazioak baimena eman badu horretarako.

12.2 Lurraldebus sistemak eta ekipo teknologikoak

Emakidadunak Lurraldebuseko instalazioetan kokatutako aginte postuan bereziki jarritako sistemak erabili beharko ditu, besteak beste, ustiapenari laguntzeko sistema (SAE), ibilgailuetako bideozaintza sistema, edo baliozkotze eta salmenta sistema. Sistema horiek ibilgailuetako ekipamenduarekin komunikatuko dira —emakidadunak nahitaez eduki beharko ditu emakidari atxikitako autobus guztietan—.

Ibilgailuetako ekipoak eta Lurraldebuseko sistemek emakidadunaren instalazioetan eskatzen dituztenak emakidari atxikitako ondasunak izango dira. Azpiegitura teknologiko horren ezaugarri teknikoen deskribapena, halaber, jasota dago *Bidasoa Behereko, Oiartzualdeko eta eskualdeok Donostiarekin lotzeko erabilera orokorreko bidaiarien hiriarteko garraio erregularreko zerbitzu publikoaren emakidarako proiektu aldatua*n (II. ERANSKINA).

Horretarako, emakidadun berriak subrogatuta hartuko ditu emakida lagatzaileak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Garraio Publikoaren Kudeaketa Integralerako Zentroaren (Lurraldebus Gunea) funtzionamenduarekin lotutako kontratu harreman juridikoetako posizioak.

Subrogazioak martxan egon beharko du zerbitzua hasten den egunean.

12.3 Instalazio finkoak

Enpresa adjudikaziodunak zerbitzua emateko beharrezko instalazio finkoak izango ditu. Instalazio horiek adjudikaziodunaren eragin eremuan egon beharko dute, hau da, emakidak artatutako udalerrietan.

Atxikitako informazio eta kudeaketa sistema eta ekipoetako ondasunen ondorioetarako, emakidaren instalazio finko nagusiari dagozkionak bakarrik hartuko dira kontuan atxikitako ondasun gisa. Enpresa emakidadunak instalazio finko bat baino gehiago baditu, emakidadunaren erantzukizuna izango da, eta bere gain hartuko du Lurraldebus ekosistemak gainerako instalazio finkoetan behar bezala funtzionatzeko beharrezko konexioen eta elementuen kostua (zerbitzariak, wifia, lizentziak...).

Instalazioek zerbitzuaren funtzionamendu egokia bermatzeko behar besteko tamaina eta baldintza teknikoak izan beharko dituzte. Era berean, nahitaezkoa izango da ibilgailu guztiak gordetzeko eta zaintzeko aparkaleku estali bat, atxikitako ibilgailuak mantentzeko tailerra eta zerbitzua kontrolatzeko eta gainbegiratzeko bulegoak izatea. Gainera, komunek, aldagelek eta atsedenlekuek egokituta egon beharko dute, bertan lan egingo duten pertsonen beharrei erantzuteko.

Era berean, Lurraldebus sistemak behar bezala funtzionatzeko behar duen komunikazio azpiegitura ere izango dute. Izango dute, orobat, emakidari lotutako instalazio guztien arteko komunikazioa gaitzeko behar den komunikazio azpiegitura ere.

Instalazioek ingurumena babestearen arloan indarrean dagoen araudia bete beharko dute (3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra, eta harekin bat datozen arauak), bai eta jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzkoa ere.

Emakidadunak bere instalazioetan aurreikusi beharko du flota osatzen duten ibilgailu elektriko edo hibrido kargagarrietarako kargagune bat instalatzea. Emakidaren lehen urtean ibilgailu horiek eduki ezean, ibilgailu horiek eskuratzen dituen unean jarri beharko du emakidadunak instalazio hori.

Enpresa lizitatzaileek proposatzen dituzten instalazioen xedapen tituluak aurkeztu beharko dituzte. Etorkizunean ibilgailuak aparkatzeko eta zaintzeko espazio berriak jartzeko, aipatutako araudia bete beharko da. Gipuzkoako Foru Aldundiak aldez aurretik izan beharko du horren berri, eta nahitaezkoa izango da hark ontzat ematea. Kasu horretan, emakidadunak bere gain hartuko ditu kotxetegi berrietara eramatearen kostu guztiak.

Emakidaduna beharturik dago zerbitzu honi lotutako instalazio guztiak egoera ezin hobean edukitzera.

13 Giza baliabideak

13.1 Kontsiderazio orokorrak

Emakidadunak une oro eduki beharko du plantilla egokia kontratuaren xede diren prestazioen kalitate maila gorena lortzeko, une oro bermatuta gera dadin kontratua behar bezala gauzatzea, horretarako behar diren neurri guztiak hartuta. Emakidadunaren erantzukizuna izango da bere giza baliabideak dimentsionatzea eta antolatzea.

13.2 Giza baliabideak antolatzea

Zerbitzuaren emakidadunak eskura jartzen dituen langileek ez dute izango inolako lan harremanik Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, eta enpresa emakidadunaren mende bakarrik egongo dira. Hala, enpresa horrek izango ditu, enpresaburu gisa, eskubide eta betebehar guztiak. Era berean, ez du inolako izango lan harremanik zerbitzua ematen duen enpresa azpikontratistetako langileekin.

Zerbitzuak ematen dituen enpresako langileen negoziazio kolektiborako eskubidearen kalte gabe, emakidadunak bere gain hartu beharko du hitzarmen kolektiboak emakidaren ekonomian duen inpaktu ekonomikoa.

Ezarritako zerbitzuaren aldaketen ondorioz, murriztu egin behar bada kontratuaren eskura jarritako baliabide kopurua, zerbitzua ematen duen enpresaren erantzukizuna izango da neurri horiek enpresako langileengan izan dezaketen eragina.

Emakidadunaren erantzukizun bakarra eta esklusiboa izango da unean-unean zenbait arlotan indarrean dagoen legeriak ezarritako eginbeharrak betetzea, hala nola lana, gizarte segurantza, segurtasuna eta higienea, laneko arriskuen prebentzioa, genero berdintasuna, desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzea eta laneratzea, eta enpresa baten eta haren langile lan kontratudunen arteko lan harremanen esparruan aplikagarria den beste edozein. Era berean, emakidadunaren betebeharra izango da giza baliabideak behar bezala antolatzen eta ordaintzen direla zaintzea.

13.3 Kontratua gauzatzeari atxikitako langileak

Kontratua gauzatzeari atxikitako gutxieneko langile zuzkidura Giza baliabideak eta flota antolatzeko, kudeatzeko eta esleitzeko Planean jasotakoa izango da, IV. TITULUKO 23.2. atalean definitutakoaren arabera. Eskatutako zuzkidura hori ez da oztopo izango emakidadunak aipatutako zuzkiduraren gainetik beharrezkotzat edo egokitzat jotzen dituen langile guztiak atxikitzeko zerbitzura, eta ez du eragotziko aplikatu beharreko araudiaren ondoriozko subrogazio obligazioak betetzea.

Emakidadunak bermatu beharko du une bakoitzean zerbitzuari atxikitako langileak egokiak direla zerbitzua kalitate maila handienarekin emateko. Horretarako, lanpostu bakoitzak eskatzen duen titulazioa, prestakuntza eta trebakuntza izan beharko dute langile horiek.

14 Ordainbideak

Enpresa emakidadunak ordainbide gisa onartuko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak bere eskumeneko zerbitzuetarako unean-unean onartzen dituen garraio tituluak. Ordainbidea edozein dela ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak onetsitako tarifa araubideak zehaztuko du tarifa.

Erabiltzaileengandik lorturiko diru sarrera guztiak, edozein dela ere diru sarrera horien titulua eta euskarria, operadoreak zerbitzua emateko hitzemandako prestazio kostuaren konturako sarreratzat hartuko dira.

14.1 MUGI txartela

MUGI txartela Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak kudeatzen duen garraio titulua da. Era berean, kategoria horretan eta baldintza berberetan ulertu behar da Lurraldebus txartela ere.

MUGI txartelen ezeztapenei dagozkien diru sarrerak (Lurraldebus txartelenak barne) Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak ordainduko dizkio zuzenean operadoreari, Gipuzkoako Foru Aldundiko egungo garraio emakidadunek harekin adostutako baldintzetan. Hala, operadoreak zerbitzua emateko hitzemandako prestazio kostuaren konturako sarreratzat hartuko dira.

14.2 QR kodea

Erabiltzaileek garraio titulu elektronikoak eduki ahal izango dituzte, eta QR kodearen bidez baliozkotuko dira autobuseko ekipamenduan. Titulu horiek Lurraldebusen salmenta aurreratuko sistemaren bidez eskuratutako tituluak izan daitezke, baita ABT MUGI kontu birtuala baliatzen duten erabiltzaileen baliozkotzeak ere.

Enpresa emakidadunari ordainduko zaizkio ABT MUGI kontu birtualen eta QR kodearen bidez eginiko baliozkotzeei dagozkien sarrerak, eta operadoreak zerbitzua emateko hitzemandako prestazio kostuaren konturako sarreratzat hartuko dira.

14.3 cEMV txartelak

Erabiltzaileek cEMV kontakturik gabeko kreditu eta zordunketa txartelen bidez ordaindu ahal izango dute autobuseko garraio titulua. Diru sarrera horiek enpresa emakidadunari ordainduko zaizkio, eta operadoreak zerbitzua emateko hitzemandako prestazio kostuaren konturako diru sarreratzat hartuko dira.

14.4 Eskudirutan ordaintzea

Emakidadunak onartu egin beharko du ibilgailuetan eskudirutan ordaintzea ezartzen diren legezko edo zenbatekoko mugekin.

Eskudiruzko ordainketei dagozkien diru sarrerak zuzenean emango zaizkio emakidadunari, eta operadoreak zerbitzua emateko hitzemandako prestazio kostuaren konturako sarreratzat hartuko dira.

14.5 Elkarreragingarritasuna. Garraio txartel gehigarriak

Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainbide gisa gaitutako garraio txartelak areagotu ahal izango ditu, administrazioen arteko elkarreragingarritasun akordioen barruan. Kategoria honetan sartu behar dira, besteak beste, Arabako BAT edo Bizkaiko BARIK txartelak, bai eta Gipuzkoako Foru Aldundiak garraio titulu gisa gaitutako beste edozein txartel ere.

Garraio txartel gehigarri horiek, kontratu honi dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiak ontzat emandako tarifa araubidearen mende egongo dira. Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak ordainduko ditu diru sarrerak, eta operadoreak zerbitzua emateko hitzemandako prestazio kostuaren konturako diru sarreratzat hartuko dira.

15 Zerbitzuaren irudia

Zerbitzuaren irudi globalari eta autobusaren kanpo itxurari buruzko alderdi guztiak Diputatuen Kontseiluaren 2014ko uztailaren 29ko 18-T/2014 Erabakian xedatutakora egokituko dira (V. ERANSKINEAN eskura daiteke).

Irudi korporatiboaren ezaugarriak hobeto zehazteko, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuan kontsultatu ahal izango da dagokion dokumentazioa.

Kontratua gauzatzen den bitartean, aldatu egiten bada zerbitzuari atxikitako autobusen kanpo diseinua, enpresa emakidadunak hartuko ditu aldaketa gauzatzeko beharrezko neurriak.

III. TITULUA: EMAKIDAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA

16 Tarifa araubidea

Gipuzkoako Foru Aldundiak bere eskumeneko errepideko bidaiarien garraio publikoko linea erregularretako zerbitzuetarako onetsita dauzkan tarifak aplikatuko ditu enpresa emakidadunak, eta hobariak, berriz, une bakoitzean indarrean dauden bidaien prezioetan aplikatuko ditu. Dokumentu honen III. ERANSKINEAN zehazten dira gaur egun indarrean dauden tarifak eta horien hobariak.

16.1 Erabiltzaileek ordaintzeko sistema

Gipuzkoako Foru Aldundiak unean-unean bere emakidetarako onetsita dauzkan tarifa araubidearen arabera emango dira zerbitzuak, eta erabiltzaileentzat eta taldeentzat ezartzen diren deskontuak aplikatuko dira.

“Tarifa Integratua - MUGI Sistema” da tarifak integratzeko indarrean dagoen sistema. Diputatuen Kontseiluaren 2013ko otsailaren 12ko erabakiaren bidez onetsi zen, eta Diputatuen Kontseiluaren 2014ko otsailaren 18ko erabakiaren bidez eguneratu. Sistemak garraio anitzeko titulu bat ezartzen du ordainbide gisa MUGI sistemako txartelak erabiltzen dituzten erabiltzaileentzat, bidaia kopuruaren araberako deskontu progresiboekin eta gizarte taldeentzako hobari osagarriekin —errentari lotutako hobariak bereziki aipatuta—. MUGI txartela erabiltzen ez duten pertsonentzako aldizkako tituluak ere MUGI sistemaren tarifa araubideak zehazten ditu.

Sistema horren deskribapena eta funtzionamendua jasotzen dituen proiektuan zehazten dira MUGI sistemaren ezaugarriak.

16.2 Tarifak eguneratzea

Gipuzkoako Foru Aldundiak eguneratuko ditu tarifak, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak hartzen dituen erabakiei jarraikiz.

17 Beste diru sarrera batzuk

Emakidaduna kontratuaren indarraldian onartzen diren laguntza deialdietara, dirulaguntzetara eta abarretara aurkeztu ahal izango da, bai flota erosteko, bai emakidaren onerako den edozein hobekuntza egiteko, eta egindako izapide guztien eta lorturiko emaitzen berri eman beharko dio Aldundiari.

Alde horretatik, baimena eskatuko dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, zerbitzu prestazioa finantzatzen laguntzen duen edozein erakunderen laguntza deialdi, dirulaguntza deialdi eta abarretara aurkezteko, eta jasotako laguntzen berri emango dio.

18 Kostuen egitura

Emakidaren kostuak agiri honetan adierazitakoaren arabera egituratuko dira. Kostuen egituraren partidak sailkatzeko, kostu finkoak edo aldakorrak diren hartuko da kontuan.

18.1 Kostu finkoak

Kostu finkotzat hartzen dira flota eta atxikitako ekipo teknologikoak amortizatzeko partidak, horiei lotutako finantza kostuak, bai eta Lurraldebuseko ekosistemarekin eta publizitatearekin lotutako partidak ere. Partida horiek ez dira inola ere eguneratuko, eta emakidaren gastu finkotzat hartuko dira.

Hala ere, finkotzat hartzen diren kontzeptuen balio erreala aplikatuko da urteko likidazioan.

18.1.1 Flotaren eta ITS ekipoen amortizazioa

Amortizazioaren zenbatekoa bat etorriko da atxikitako flotaren eta ITS ekipamenduen benetako amortizazioarekin, emakidan egondako egunak kontuan hartuta.

Atxikitako ondasunak eskuratzeko laguntzaren bat jasoz gero, ondasunaren kostutik kenduko da dirulaguntzen zenbatekoa, atxikipen datan duten emakida balioa eta haren amortizazio taula zehazteko. Atxikitako ondasunen atxikipen balioa ondasun horiek emakida honi atxikitzen zaizkion egunean duten balioa izango da, eta honela kalkulatuko da:

$$V = C - S - V_r$$

Non:

- V: Ondasunaren atxikipen balioa, pneumatikoen balioa kenduta.
- C: Ondasunaren kostua edo eskuratze balioa.
- S: Jasotako dirulaguntzak.
- Vr: Ondasunaren hondar balioa.

Hondar balioa erosketa balioaren % 15 da, autobus berriak erosiz gero, pneumatikoen balioa kenduta; azken zenbateko hori ibilgailu motaren arabera dago ezarrita II. ERANSKINEAN (Ustiapen Proiektua), eta haren kostua Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioaren Kostuen Behatokiarekin bat etorriz eguneratuko da. Subrogatutako ibilgailuei dagokienez, irteten den emakidadunaren atxikipen baldintzetan ezarritakoa izango da hondar balioa. Bigarren eskuko ibilgailuen kasuan, Lurraldebuseko flota osoaren ezaugarri berberak edo antzekoak dituen beste autobus bat erosteko kostua hartuko da erreferentziatzat. Ekipo teknologikoek ez dute izango lotutako hondar baliorik.

Ibilgailuen amortizazio aldia 10 urtekoa izango da ibilgailu guztientzat, baita bigarren eskukoentzat eta subrogatutako ondasunentzat ere. Epe hori lehen matrikulazioa egiten den egunetik aurrera hasiko da zenbatzen. Lurraldebuseko ekipo teknologikoei dagokienez, amortizazio aldia 8 urtekoa izango da, instalatzen diren egunetik zenbatzen hasita.

Kontratuaren iraunaldian ibilgailuek ondoz ondo izan beharreko berritzeek nahitaez errespetatu beharko dituzte baldintza agirietan eta adjudikaziodunak eskainitako hobekuntzetan finkatutako antzinatasun baldintzak eta zehaztapenak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak baimendutako inbertsio berriak egiten badira, partida hori berriz zehaztuko da, eta kontuan hartuko dira eskuratze balioa, jasotako laguntzak eta amortizazio aldia.

Administrazioari nahitaez itzuli behar bazaio, salmenta balioaren gainerako % 15a bermatuta egongo da, baldin eta, kanpo auditoretza egin ondoren, baimendutako tailer batek egiaztatzen badu egoera egokian dagoela.

18.1.2 Finantza gastuak

Ibilgailuari baja ematea behar bazaio kontratua indarrean dagoen bitartean balio bizitzaren amaierara iristeagatik, ordura arte amortizatutako balioa % 85ekoa izango da. Adjudikaziodunak libreki erabili ahal izango du ibilgailua, eta libre izango da besterentzeko, errentan emateko, txatar bihurtzeko eta abarretarako. Diru sarrera horiek adjudikaziodunarentzat izango dira. Proiektuan onartutako balioaren (% 15) eta operadoreak benetan lortutakoaren arteko aldeak operadorearen kontura eta arriskura izango dira.

Flota eta ITS ekipo atxikiak eta amortizagarriak erosteari aplikatutako finantza gastuak bakarrik hartuko dira kontuan, eta haien jatorrizko finantzaketatik eratorritako interesak gutxitzen diren proportzio berean murriztuko dira. Une bakoitzean indarrean dagoen legezko interes tasa ordainduko da atxikitako ondasunaren emakida balioaren gainean.

Emakida baliotzat hartzen da emakidan amortizatzeko dagoen ondasunaren balioa:

$$V_c = V - A$$

Non:

- Vc: Ondasunaren emakida balioa.
- V: Ondasunaren atxikipen balioa.
- A: Ondasunaren amortizazio metatua.

Hasiera batean, ulertuko da ondasunak emakidan jarraituko duela amortizazio aldia amaitu arte.

18.1.3 Ibilgailuetako ekipamenduaren mantentze lanak

Partida honek barnean hartzen ditu Lurraldebuseko sistemak behar bezala erabiltzeko beharrezko ekipoen mantentze lanen kostuak. II. ERANSKINEKO (Ustiapen Proiektua) kostuen egituran ez da ezartzen kontzeptu horretara bideratutako zenbatekorik; beraz, Gipuzkoako Foru Aldundiak Lurraldebus sistema guztiak mantentzeko ezartzen duen programaren arabera zehaztuko da partida horren balioa.

18.1.4 Lurraldebus ekosistema

Kontzeptu honetan ulertu behar dira Lurraldebus sistemaren berezko elementuen emakida kontzesio-ustiapenera bideratzen duten partidak. Hemen jasotzen dira, besteak beste, publizitatearekin eta leialtzearekin, ordutegiak maketatzearekin eta inprimatzearekin, Lurraldebuseko aplikazio edo zerbitzuen lizentziekin eta abarrekin lotutako partidak.

18.2 Kostu aldakorrak

Kostuen egiturako gainerako partidak kostu aldagarritzat hartuko dira, eta emakidaren benetako kilometro ekoizpenaren arabera ordainduko dira. Lizitatzailearen eskaintza erreferentziatzat hartuta ezarritakoa izango da haren balioa.

Kostu aldakorrak eguneratu egingo dira, Espainiako Ekonomia Desindexatzeari buruzko otsailaren 3ko 2/2015 Legean eta hura garatzen duen 55/2017 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.

18.3 Mozkin industrialaren marjina

Emakidadunarentzat % 6ko mozkin-marjina ezarri da, lehen urteko kontratuaren prezioei aplikatu beharrekoa. Ehuneko hori txikiagoa izan daiteke operadoreak eskaintzan margina desberdina proposatzen badu. Mozkina eguneratu egingo da, Espainiako Ekonomiaren Desindexazioari buruzko otsailaren 3ko 2/2015 Legeak eta hura garatzen duen 55/2017 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera

19 Zerbitzuak emateagatiko kostuak

Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatuko du zerbitzua, operadoreak hitzartutako zerbitzua emateko kostu unitarioetan oinarrituta. Benetako kostuaren eta konprometitutako kostuaren artean sortzen diren desbideratzeak operadorearen arrisku eta menturara izango dira.

19.1 Zerbitzua hasteko kilometroko prezioa (Pkm)

Zerbitzua hasteko kilometroko prezioa kalkulatzeko —bai zerbitzu erregularretan, bai berezietan—, eskainitako kostu egituraren kostu aldakorren zerrenda bakarrik hartuko da kontuan.

Kalkulua egiteko aintzat hartu beharreko kilometroen kasuan, aintzat hartuko dira, II. ERANSKINEAN eskuragarri dagoen Ustiapen Proiektuan ezarritako kilometroak. Zerbitzu berezien kasuan, 60.000 km-ko balioa hartuko da erreferentziatzat.

$$\mathrm{Pkm}(1) = \frac{\sum CV(0)}{KM(0)}$$

Non:

- Pkm(1): Lehenengo ekitaldian eskainitako zerbitzuen kilometroko prezioa.
- CV(0): Zerbitzu erregularren eskaintzaren kostu aldakorrak.
- KM(0): Zerbitzu erregularren kilometro teorikoak, barnean harturik erreferentzia gisa ezarritako zerbitzu berezien kilometroak.

19.2 Hileko behin-behineko likidazioa

Honela likidatuko da emandako zerbitzu publikoaren betebeharraren konpentsazioa:

<u>Behin-behineko likidazio proposamena aurkeztea.</u>

Emakidadunak aurreko hileko behin-behineko likidazioa egingo du hilero, eskainitako zerbitzu kilometroen kopurua kontuan harturik (ibilgailuek zerbitzuan egiten duten distantzia kilometrotan, baina linea erregularren ibilbidearen barruan eginikoak soilik, eta ez dira barnean hartzen hutsik eginiko kilometroak), Lurraldebus softwarearen bidez justifikatuta (gaur egun, Programa Kontratua da, eta hilean egindako bidalketak egiaztatzen ditu).

Likidazio horretan, emakidadunak hilabete horretarako zerbitzu publikoa emateagatiko kostua zenbatetsiko da. Orobat, eskainitako zerbitzu kilometroak sartuko dira indarrean dagoen kilometroaren prezio teorikoarekin biderkatuta, eta emaitza horri urteko guztizko kostu finkoaren hamabirena gehituko zaio. Azkenik, ezarritako mozkin industrialaren marjinari dagokion zenbatekoa gehituko zaie aurreko kontzeptu guztiei.

Hilean zerbitzu publikoaren betebeharra konpentsatzeko behin-behineko zenbatespena konputatu ondotik, aldi horretan erabiltzaileek ordaindutako tarifei dagozkien diru sarrerak kenduko dira. Emakidadunak II. TITULUKO 14. atalean deskribatutako ordainbideen bidez jasoko

ditu diru sarrera horiek. Konpentsazioa zenbatzeko, diru sarrerak BEZa kontuan izan gabe hartuko dira. Behin-behineko likidazioa egitea.

Likidazio hori berrikusi ondotik, Gipuzkoako Foru Aldundiak dagokion likidazioa egingo du, jaso eta hurrengo 25 egunen barruan.

Hileko behin-behineko likidazioan formula hau aplikatuko da:

$$LM(m) = \left(KM(m) * Pkm(t) + \frac{CF'(t)}{12} \right) * (1 + MB) - IN(m)$$

Non:

- LM(m): Likidatu beharreko hilean emandako zerbitzuaren kostua.
- KM(m): Hilean zehar egindako zerbitzu kilometroak.
- Pkm(t): Likidatu beharreko ekitaldian egindako zerbitzuen kilometroko prezioa.
- CF'(t): Zerbitzuaren kostu finko zenbatetsia likidatu beharreko ekitaldian.
- MB: Mozkinen marjina (%).
- IN(m): Operadoreak hilean zehar jasotako diru sarrerak (BEZa kontuan hartu gabe).

Operadoreari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik egin gabeko kilometroek ez dute emango inolako konpentsazio eskubiderik, eta ez dira kontuan hartuko ekitaldiaren likidazioan.

19.3 Urteko likidazioa

Ekitaldia amaitu eta hurrengo urteko lehenengo lau hilabeteen barruan, urteko likidazioa konputatuko da, eta behin betikoa izango da likidatutako ekitaldiari dagokionez. Likidazio horrek barnean hartuko ditu zerbitzuaren kalitateagatiko zuzenketak.

19.3.1 Kalitate parametroak

Zerbitzuaren kalitatea Gipuzkoako Foru Aldundiko langileek edo hark izendatzen dutenek baloratuko dute, Lurraldebus sistemetan eta erabilitako aplikazioetan eskuragarri dauden datuetatik abiatuta. Horretarako, bi parametro mota erabiliko dira: Parametro neurgarriak eta hautemandako kalitate adierazleak.

- Parametro neurgarriak. (±% 1): Bat datoz ustiaketaren datu objektiboekin, hala nola irteerako puntualtasunarekin, egin gabeko zerbitzuekin, egindako ikuskapenen emaitzekin, gidariak zerbitzua zuzen aukeratzearekin, ibilgailuak ordezteko egutegian atzerapenekin...

- Hautemandako kalitatearen adierazleak. (±% 1):
    a) Inkestak egin ahal izango dira zerbitzuaren erabiltzaileen artean.
    b) Jasotako erreklamazioak (arrapalen funtzionamendua, kartelak, garbitasuna, atzerapenak edo bestelako ez-betetzeak...).

Kalitatearen ebaluazioaren emaitzak handitu edo murriztu egin ahalko du likidazioaren emaitza, baita zerbitzua emateareN kostuaren % 2raino ere. IV. ERANSKINAK kalitate parametroak ebaluatzeko sistema jasotzen du.

19.3.2 Urteko likidazioaren konputua

Urteko likidazioa kalkulatzeko, formula hau aplikatuko da:

$$CP(t) = \big(KM(t) * Pkm(t) + CF(t)\big) * (1 + MB) - IN(t) - \sum LM \pm PC(t)$$

Non:

- CP(t): Ekitaldiko zerbitzu publikoa emateagatiko kostua; eskaintza ekonomikoan (likidatu beharreko ekitaldirako eguneratua) konprometitutako zerbitzua emateagatiko kostua baino txikiagoa edo berdina izango da.
- KM(t): Likidatu beharreko ekitaldian egindako zerbitzu kilometroak.
- Pkm(t): Likidatu beharreko ekitaldian operadoreak konprometitutako zerbitzuen kilometroko prezioa.
- CF(t): Zerbitzuaren benetako kostu finkoa likidatu beharreko ekitaldian.
- MB: Operadoreak konprometitutako mozkinen marjina (%).
- IN(t): Likidatu beharreko ekitaldian operadoreak jasotako konturako tarifen sarrerak (BEZa kontuan hartu gabe).

- ∑LM: Egindako hileko likidazioen batukaria.
- PC(t): Kalitate parametroak.

19.4 Kostuak eguneratzea

Kilometroko prezioa urtero eguneratuko da. Gipuzkoako Foru Aldundiak, interes orokorreko arrazoiengatik, handitu edo murriztu ahal izango du egin beharreko kilometro kopurua.

Hurrengo ekitaldietarako, lizitatzailearen eskaintzatik ondorioztatzen den kilometroko prezioa otsailaren 19ko 75/2018 Errege Dekretuan ezarritako berrikuspen motarekin eguneratuko da, eta honela kalkulatuko da:

$$K(t) = 0{,}28 * \frac{PR(t)}{PR(0)} + 0{,}05 * \frac{MP(t)}{MP(0)} + 0{,}05 * \frac{MR(t)}{MR(0)} + 0{,}02 * \frac{N(t)}{N(0)} + \left(0{,}23(1 - X) * \frac{G(t)}{G(0)}\right) + 0{,}37$$

Non:

- K(t): t ekitaldirako kilometroko prezioa eguneratzeko berrikuspen mota
- PR: gidarien kostua.
- MP: ibilgailuen mantentze lanen kostua (eskulana).
- MR: ibilgailuen mantentze lanen kostua (ordezko piezak).
- N: pneumatikoen kostua.
- G: ibilgailuetarako gasolioaren kostua.
- X: efizientzia faktorea.

Eta, beraz, hauxe izango da ekitaldiko kilometroaren prezioa:

$$Pkm(t) = Pkm(1) * K(t)$$

Kostuak Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratutako errepideko bidaiari garraioko osagaien prezioen indizeen arabera eguneratuko dira. Eguneratzearen ondorioetarako, ulertu behar da 0 balioa kontratu honen eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta hiru hilabetera izango dela, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 103.4 artikuluan ezarritakoaren arabera. Aldiz, t balioa kontratuaren prezioa berrikusteko aplikazio datari dagokio. Kontratua formalizatzen denetik igarotako lehenbiziko urtean ez da egingo berrikuspenik, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 103.5 artikuluan ezarritakoaren arabera.

PR eta MP osagaien igoera jasangarria ezingo da izan sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsariaren igoera baino handiagoa, Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeetan ezarritakoarekin bat, 75/2018 Errege Dekretuaren 2. artikuluaren arabera.

19.5 Amaierako likidazioa

Emakida epea igaro ondoren kalkulatuko da amaierako likidazioa. Balioespen hori lotutako aktiboen emakida aldiaren amaieran amortizatzeke geratzen den zenbatekoari dagokio, jasotako balizko dirulaguntzak eta/edo konpentsazioak kenduta, zaharkitze teknikoaren irizpideari jarraituz eta haien balio bizitza kontuan hartuta.

IV. TITULUA: ZERBITZUAREN KUDEAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA

20 Emakida abian jartzeko baldintzak

Emakida abian jartzeko, emakida kontratuan ezarritako baldintzak bete beharko dira, eta emakidadunak aldez aurretik bete beharko ditu, bai emakidari lotutako ondasunei dagokienez eska daitezkeen betebeharrak, bai emakida tituluan adierazitako prestazio baldintzetara erabat egokitzea.

20.1 Zerbitzuaren hasiera data

Errepideko Bidaiari Garraioaren Erregelamendua onesten duen apirilaren 3ko 51/2012 Dekretuaren 30. artikuluan ezarritakoaren arabera jarriko da martxan zerbitzua

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta emakidadunaren arteko kontratua formalizatzeak eta burutzeak berekin ekarriko du klausuletan finkatzea zerbitzua ematen hasteko benetako data, kontratua formalizatu eta SEI (6) hilabeteko epea gainditu gabe.

Indarrean dauden emakidek zerbitzua ematen hasi arte izango dituzte ondorioak, agiri honetan jasotako prozedura garatzearen ondoriozko emakida berria izan arte.

Emakidaren indarraldiaren amaiera data kontratuan bertan adieraziko da, baldintza agiri honetan ezarritakoaren arabera.

20.2 Langileen subrogazioa

Errepideko Bidaiari Garraioaren martxoaren 18ko 4/2004 Legearen 25.6 artikuluaren arabera —betiere ukituriko pertsonek subrogazioa onartuko nahi dutela adierazten badute—, emakidadunak bere plantillan sartu beharko ditu emakida eremu horretatik irteten den emakidadunarentzat zerbitzuak ematen zituzten langileak, zerbitzuak ematen hasten den egunetik aurrera.

Administrazio klausula partikularren baldintza agirian zerrendatzen dira langile horiek, bai eta, iruzurrik, faltsutzerik edo eskubide abusurik izan gabe, zerrenda horretan sartutako beste langile batzuk ordezteko erreferentziatzat hartu den dataren ondoren alta emandakoak ere. Subrogazio betebeharra ez zaie aplikatuko erreferentziatzat hartutako dataren ondoren behin betiko baja

hartu duten langileei, baldin eta langile horien zerrenda ez badago indarrean zerbitzua hasteko unean.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, kontratua burutu eta hurrengo 10 egun naturaleko epean, adjudikazio datan subrogatu daitezkeen langileen zerrenda emango dio emakidadunari, eta alderdi hauek identifikatuko ditu: langileen kodea, lanbide kategoria, lanpostua, antzinatasun data, kontratu mota, lanaldia, jatorriko enpresa eta aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa.

Emakida berriari atxikitako langileek zerbitzua uzten duen sozietate emakidadunarentzat zerbitzuak ematen jarraituko dute zerbitzua hasten den egunera arte. Egun horretan, enpresa adjudikaziodunarentzat emango dituzte zerbitzuak, eta subrogazioak zerbitzua hasten den egunetik aurrera izango ditu ondorioak. Subrogazioak ondorioak dituen egunetik aurrera, emakida berriari atxikitako langileek ez dute lan harremanik izango uzten duen sozietate emakidadunarekin, eta enpresa adjudikaziodunaren mende soilik egongo dira. Langile horiei dagokienez, enpresa adjudikaziodunak enpresaburu izaerari dagozkion eskubide eta betebehar guztiak izango ditu.

Emakidadunak subrogazio eginbehar horretarako legez beharrezkoak diren izapide guztiak egin beharko ditu, preskripzio teknikoen baldintza agiri honetan eta dagokion klausula administratiboen agirian aurreikusitako moduan eta baldintzetan. Aurreko emakidetatik datozen langileen lan harremanak subrogatzeko betebehar hori kontratuaren funtsezko betebehartzat jotzen da. Ondorioz, alderdi hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoi izango da, administrazio klausula partikularren baldintza agirian eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoaren babesean.

Emakidadunak subrogazio jakinarazpena helarazi beharko die lan harremanetan subrogatuko dituzten langileei. Jakinarazpen hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta enpresa adjudikaziodunaren arteko kontratua formalizatu ondoren egingo da, eta, kasu guztietan ere, zerbitzua hasi baino lehen. Jakinarazpen horrek berariaz adieraziko du enpresa adjudikaziodunak subrogatu egingo duela dagokion langilearen lan harremana. Halaber, zerbitzua zein egunetan hasiko den adieraziko du, eta, ondorioz, langile horrek zein ordutan eta non agertu beharko duen adieraziko da, enpresa adjudikaziodunari zerbitzuak ematen has dadin.

Emakidadunak zerbitzua uzten duen emakidadunarengandik jasoko ditu azken horrentzat lan egiten zuten langileei ordaindutako likidazio, saldo eta kitapen agiriak, adierazten dutenak erabat ordainduta daudela subrogazioaren ondorioz enpresa adjudikaziodunarentzat zerbitzuak ematera igaroko diren langile bakoitzari dagozkion zenbatekoak —edozein kontzepturengatik sorturikoak, subrogazio efektuen datara arte, hura kanpo—, eta, oso bereziki, egun horretara arte sortutako soldatei, ordainsariei eta gainerako gizarte kargei dagozkienak, bai eta uzten duen sozietate emakidadunarekiko lan harremana amaitu arte sortutako aparteko ordainsarien eta oporren zati proportzionala ere.

20.3 Martxan jarri aurreko obligazioak betetzea

Prestazioa hasi aurretik, emakidadunak egiaztatu beharko du betetzen dituela obligazio hauek:

- Langileen ondorengotzari, itzulketari, kontratu zibilen subrogazioari eta kontratua formalizatzeari buruzkoak.
- Flotarekin zerikusia dutenak: titulartasuna, baimenak, aseguruak eta abar.
- Kontratua indarrean dagoen bitartean enpresa adjudikaziodunak preskripzio teknikoen baldintza agiri honetan aipatzen diren instalazio finkoak erabat erabilgarri dauzkala egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Zerbitzuaren kudeaketa plan guztiak entregatzea lehen ekitaldirako.
- Dagozkion aseguruak kontratatzea, administrazio klausulen baldintza agirian eskatutako baldintzetan.

20.4 Ikuskaritza Zerbitzuen txostena

Zerbitzua hasi aurretik, emakidadunak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraioa Ikuskatzeko Zerbitzuek inaugurazio ibilaldi bat egin beharko dute, eta geldialdi guztiak egingo dituzte. Inaugurazio ibilaldia egin ondotik, Garraioa Ikuskatzeko Zerbitzuek txosten bat egingo dute zerbitzua abiarazteari loturik, Errepideko Bidaiari Garraioari buruzko Erregelamenduaren 30. artikuluan ezarritako baldintzetan.

Bereziki, Garraioa Ikuskatzeko Zerbitzuen txostenak jasoko dituen alderdien artean, nabarmentzekoak dira inaugurazio ibilaldiaren deskribapen operatiboa eta garapena, erabilitako ibilgailuak egokitzen ote diren emakida tituluan ezarritako baldintzetara, eta, kasuak hala eskatzen badu, emakida zerbitzua eskaintzeari loturik garrantzitsutzat jotzen diren beste

ohar edo gorabehera guztiak. Garraioa Ikuskatzeko Zerbitzuek hala ondorioztatzen badute, txostenak zehaztuko du inaugurazio zerbitzua erabat egokitzen dela emakida tituluan adierazitako prestazio baldintzetara.

Zerbitzuaren Abiarazteko Txostenean jasoko da jarri dela martxan emakida zerbitzua, eta zerbitzua zer egunetan eta zer ordutan abiarazi den jasoko da, baita beharrezkotzat jotzen diren gainerako inguruabarrak ere.

20.5 Emakida inauguratzea

Zerbitzua abiarazitzat emateko, beharrezkoa izango da emakida emateko eskumena duen organoak ebazpen bat ematea, eta, bertan, inauguratutzat jotzea. Zerbitzua inauguratzeko ebazpen hori Garraioa Ikuskatzeko Zerbitzuen txosteneko ondorioak kontuan izanik emango da.

Garraioa Ikuskatzeko Zerbitzuen txostenak jasotzen badu inaugurazio zerbitzua erabat egokitzen dela emakida tituluan adierazitako prestazio baldintzetara, zerbitzua inauguratzeko ebazpena emango da.

Garraioa Ikuskatzeko Zerbitzuek emakidadunari egozteko moduko akatsik jasotzen badute aipaturiko txostenean, eta, Gipuzkoako Foru Aldundiaren iritziz, akats horiek denbora laburrean konpontzeko modukoak baldin badira, emakida behin-behinean inauguratutzat jo ahal izango da, eta adierazpen horretatik gehienez hilabeteko (1) epean konpondu beharko dira hautemandako akats horiek. Aipatutako epea amaitzean, Garraioa Ikuskatzeko Zerbitzuek egiaztatu egingo dute akatsak konpondu diren. Horrela denean, behin-behineko inaugurazioa berretsi eta behin betiko bihurtuko da, atzeraeraginez.

Txostenean emakidadunari egozteko moduko akatsak jasotzen badira eta, Gipuzkoako Foru Aldundiaren iritziz, ezin badira konpondu hilabeteko epean, ez da inauguratuko emakida, eta egoera horren berri emango zaio emakidadunari. Hala, egoki iritzitako alegazio guztiak aurkezteko gonbidapena egingo dio, inolako ebazpenik eman aurretik —ebazpen horrek eragin dezake adjudikaziodun izateari uztea, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideko Bidaiari Garraioari buruzko Erregelamenduaren 29.2 artikuluak xedatzen duenarekin bat—.

21 Zerbitzuak kudeatzea

Emakida tituluak ezartzen dituen baldintzen arabera kudeatuko dira zerbitzuak, eta beti bete beharrekoa izango da zerbitzuaren jarraitutasun obligazioa.

21.1 Zerbitzua ematea

Gipuzkoako Foru Aldundiak unean-unean onetsitako ustiapen planean zehazten diren ibilbideen, trafikoen, geralekuen, bidaien eta egutegiaren baldintzak kontuan izanik emango da zerbitzua.

Aurreko atalean adierazitakoaz aparte, errefortzu zerbitzuak edo zerbitzu bereziak egin ahal izango dira, hurrengo apartatuetan adierazten den bezala.

Emakidadunak geldialdi bakoitzerako ezartzen diren ordutegien arabera eman beharko du zerbitzua. Hala, debekatuta egongo da geldialdi bakoitzetik ezarritako ordua baino lehen irtetea, eta, bereziki, ibilaldia hasteko ordua baino lehen irtetea geralekutik.

21.2 Errefortzuak

Errefortzutzat hartuko dira eskaera handiko ibilaldien osagarri gisa egiten diren zerbitzuak. Errefortzu horiek emakidadunaren ekimenez edo Gipuzkoako Foru Aldundiak aginduta emango dira, zerbitzua eskaintzeko ohiko jardunbidearen arabera, eta helburua izango da erabiltzaile guztiak artatuko direla eskatutako zerbitzuan.

Errefortzu kilometro horiek aintzakotzat hartuko dira kilometro kopurua kalkulatzeko.

21.3 Zerbitzu bereziak

Emakidadunak egin ahal izango ditu aldi baterako ibilaldiak, preskripzio teknikoen baldintza agiri honetan eta bere eskaintzan ezarritakoez aparte, eta egin ahal izango ditu, orobat, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaera bereziko egoerei erantzuteko eskatzen dituenak ere (adibidez, herriko jaietan). Ibilaldi horiek zerbitzu berezitzat hartuko dira.

Emakidadunak justifikatuta eta gutxienez 15 egun lehenago eskatu beharko dio baimena Gipuzkoako Foru Aldundiari zerbitzu horiek eskaini ahal izateko, eta ezingo dira egin Gipuzkoako Foru Aldundiak baimendu eta bere sistema zentraletan behar bezala erregistratu arte.

Era berean, emakidadunak erabiltzaileei eta eragindako udalei gutxienez 7 egun lehenago jakinarazi beharko die zerbitzu bereziak hasi edo ezabatu direla.

21.4 Aldaketak zerbitzuak ematean

Administrazio klausula partikularren baldintza agirian aurreikusitako kontratu aldaketen kalte gabe, zerbitzuak ematean egin ahal izango dira aldaketa teknikoak. Gipuzkoako Foru Aldundiak aldaketak egin ahal izango ditu zernahi baldintza teknikotan, eta jakinaren gainean jarriko du emakidaduna. Azken horrek gehienez ere 5 egun izango ditu aztertu ahal izateko.

Aldaketa emakidadunak proposatzen duenean, dagozkion justifikazioak aurkeztuko ditu, eta ahalik eta gehien zehaztu beharko da aldaketaren edukia. Emakidadunak ezin izango ditu inola ere aldatu ustiapenaren ezaugarri teknikoak, nola eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ez duen baimena ematen aldez aurretik.

Emakidaduna beharturik egongo da onartutako aldaketen berri ematera herritarrei, Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazitako epe eta lekuetan. Betebehar horrek, era berean, zerbitzuaren ustiapen normalean gertatzen diren behin-behineko aldaketa guztiei eragingo die.

Zerbitzuen ordutegien kasuan, Gipuzkoako Foru Aldundiak unean-unean onartutako ordutegien arabera eskainiko dira zerbitzuok. Hasiera batean, onartutako ordutegitzat hartuko dira dagokion ustiapen planean aurreikusitakoak, eta horiek aldatzea ez da hartuko kontratu aldaketatzat. Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatu ahal izango ditu ordutegiak, aldaketa horiek justifikatzen dituzten arrazoi objektiboak edo interes publikokoak ageri direnean. Aldez aurretik entzun egin beharko dio emakidadunari, eta kontratuaren titularrak nahitaez bete beharko ditu aldaketa horiek.

Emakidadunak, bestalde, berrikusi ahal izango ditu kontratuan une bakoitzean aurreikusitako ordutegiak, eta, kasuak hala eskatzen badu, Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinaraziko dio zerbitzua zein ordutegi alternatibotan egitea proposatzen duen, geralekuetan aurreikusitako igarotze orduekin. Emakidadunak proposatutako ordutegi aldaketak ez dira izango 10 minutu baino gehiagokoak hasieran onartutako ordutegiekin alderatuta.

Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio une bakoitzean indarrean dauden ordutegiak aldatzeko aldez aurreko baimena ematea, apartatu honetan adierazitako salbuespenekin. Ondorio

horietarako, emakidadunak ez badu egiten aurreko apartatuan aurreikusitako jakinarazpena eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ez badu aldez aurretik baimenik ematen ordutegiak aldatzeko, aurretik indarrean zeuden ordutegiak aplikatuko direla ulertuko da.

22 Zerbitzu erregelamendua

Emakidaren xede diren zerbitzuei aplikatzekoa izango zaie Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen eremuan bidaiariak errepidez garraiatzeko zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko Erregelamendua.

23 Zerbitzua kudeatzeko planak

Emakidadunak apartatu honetan aipatzen diren zerbitzua kudeatzeko planak egin beharko ditu, eta indarrean eduki beharko ditu kontratuak irauten duen bitartean. Kasuak hala eskatzen duenean, plan horiek bat etorri beharko dute emakidadunak eskaintzan adierazitakoarekin.

Gipuzkoako Foru Aldundiak baliozkotu egin beharko ditu plan horiek.

23.1 Ustiapen plana

Emakidadunak nahitaez aurkeztu beharko du zerbitzua ustiatzeko plan bat. Plan horretan, emakidadunak ustiategiaren eta eman beharreko zerbitzuen definizioa jasoko du.

23.1.1 Ustiapen planaren edukia

Gipuzkoako Foru Aldundiak erabilera publikoko beharrak aintzakotzat harturik ezarriko ditu lineak, ordutegiak, ibilbideak, lineako nahiz erreserbako autobus kopurua, bai eta emakida ustiatzeko plana osatzen duten gainerako aldagai teknikoak ere.

Zerbitzuaren ustiapen plan horren edukiak zerbitzuaren eragiketa guztiak jasoko ditu, eta, gutxienez, elementu hauek zehaztuko ditu:

- Zerbitzua definitzea.
- Lineak, ibilbideak eta lineako geltokiak.
- Ohiko ibilbideak, egutegia eta ordutegia zehaztuta.

- Zerbitzu bereziak: ekitaldi nabarmenak eta egutegia.
- Ustiapen planaren parametro nagusien laburpena.

23.1.2 Zerbitzuen urteko egutegia

Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero onartuko du Zerbitzuen Urteko Egutegia. Egutegi horretan, enpresa adjudikaziodunak hurrengo ekitaldian eta ekitaldi horretako aldietan nahitaez egin beharreko zerbitzu eta ordutegi guztiak jasoko dira. Ildo horretan, emakidadunak, uneko ekitaldia amaitu baino hiru hilabete lehenago, hurrengo urterako aurreikusitako zerbitzu egutegia emango du, eta, kasuak hala eskatzen badu, jai, kultura edo kirol ekitaldiek edo bestelakoek eragingo dituzten trafiko aurreikuspenak jasoko ditu.

Urteko egutegia abian den ekitaldiko egutegian oinarrituta egingo da, ekitaldian zehar garatu diren eta Gipuzkoako Foru Aldundiak azkenean frogatu eta onartu dituen zerbitzu aldaketekin. Era berean, urteko egutegian beste zerbitzu aldaketa batzuk ere sartuko dira, hain justu, emakidadunak edo Foru Aldundiak berak proposatuta hurrengo urtean zerbitzu arrunt gisa sartu beharrekotzat jotzen direnak.

Ondorio horietarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak, interes publikoko arrazoiak direla medio, urteko egutegian aurreikusitako zerbitzuaren aldaketa guztiak agindu ahal izango ditu, bai ibilbide, geltoki, ordutegi, maiztasun eta abarretako aldaketei dagokienez, bai ustiategiaren beste edozein baldintza teknikori dagokionez, betiere enpresa adjudikaziodunaren oreka ekonomikorako eskubideen kalte gabe.

Urteko egutegiari egiten zaizkion aldaketak ustiapen planean sartu beharko dira, Gipuzkoako Foru Aldundiak onetsi eta hamabost eguneko epean.

23.2 Giza baliabideak eta flota antolatzeko, kudeatzeko eta esleitzeko plana

II. TITULUAN deskribatutako giza baliabideei eta baliabide materialei lotuta, garrantzitsutzat jotzen da baliabide horiek ondo kudeatzea eta modu eraginkorrean eta ordenatuan esleitzea aldez aurretik. Hori dela eta, emakidadunak giza baliabideak eta flota antolatzeko, kudeatzeko eta esleitzeko plan bat aurkeztu beharko du.

Giza baliabideak eta flota antolatzeko, kudeatzeko eta esleitzeko plan horrek, gutxienez, alderdi hauek jaso beharko ditu:

- Giza baliabideen antolaketa eta funtzioak.
- Zerbitzua emateko esleitutako zuzeneko giza baliabideak.
- Zerbitzua emateko izendatutako flota eta ibilgailuen ezaugarri tekniko nagusiak.
- SAEko aginte postuaren funtzionamendua.
- Aplikatzen diren garraio sistema adimendunak, bai ontziratutakoak, bai instalazioetakoak.
- Plangintza tresnak.

Plan hori erabat integratuta egongo da ustiapen planarekin, eta hura emateko baliatuko dituen zuzeneko giza baliabideak eta flota jaso beharko ditu. Zehazki, nahitaez adierazi beharko dira, batetik, zuzeneko giza baliabideen esleipena (lanaldi bakoitzean, gutxienez, alderdi bereiziko dira: zerbitzu denbora, erregulazio denbora, atseden denbora, hartze eta uzte denbora, eta erabilgarritasun denbora) eta, bestetik, flotaren esleipena (linea buruan posizionatzeko, kotxetegietara itzultzeko eta linea eta ibilbide bakoitzean zerbitzua emateko denborak eta kilometroak bereiziko dira gutxienez).

Era berean, eta zentzu orokorragoan, antolaketa eta kudeaketa plan bat aurkeztuko da, eta, han, aurreko apartatuan hobekuntzei buruz adierazitako baldintzetan esleituko dira gutxienez baliabideak, baina, kasu honetan, zerbitzu guztiei aplikaturik; era berean, kalitate irizpideak baloratuko dira eskura dauden bitartekoak kudeatzeari dagokionez, hala nola zerbitzua eta langileen lanaldiak optimizatzeko plangintza tresna bat jartzea emakidaren esku.

23.3 Kontingentzia plana

Emakidadunak kontingentzia plan bat eduki beharko du nahitaez, eta han zehaztuko ditu zer jarduketa abiaraziko dituen zerbitzua emateko orduan gertagarrienak diren salbuespenezko inguruabarrak gertatzen direnean.

Kontuan hartuko diren eta dagokien kontingentzia planean tratatuko diren salbuespenezko inguruabarren artean, hauek agertuko dira gutxienez:

a) Egoera meteorologiko txarrak (elurteak, uholdeak, enbata...).
b) Zirkulazio erregulazioak edo mozketak.
c) Istripua bidean.
d) Gorabeherak zerbitzuaren ohiko eragiketetan.
e) Segurtasunari eragiten dioten gorabeherak.
f) Ibilgailuaren matxura ibilbidean doala.
g) Ekipoetan eta komunikazioetan izaniko matxurak.
h) Txanda hasieran gidaririk ez egotea (lehen zerbitzua eta beste zerbitzu batzuk bereizita).
i) Emakumeen aurkako jazarpena eta indarkeria prebenitzea.
j) Emakidadunak beharrezkotzat jotzen dituen beste batzuk.

Kontingentzia planetan sartu beharko diren jarduketa motei dagokienez, beharrezko guztiak bilduko dira, eta, besteak beste, hauek:

a) Egoera horretan bereziki aurreikusitako baliabide materialak eta giza baliabideak.
b) Salbuespenezko egoera bakoitzean inplikatuta egon behar duten langile guztientzako jarduera protokoloak.
c) Gertatutakoaren eta jarduketen berri ematea Gipuzkoako Foru Aldundiari, eta harekin koordinaturik aritzea.

23.4 Ibilgailuen segurtasun eta mantentze plana

Emakidadunak, aseguru polizak izenpetzeaz aparte, mantentze plan bat izan beharko du, behar bezain ondo egituratuta eta dokumentatuta. Mantentze plan horrek autobus flota osoaren funtzionamendu egokia bermatzeko beharrezko lan guztiak jasoko ditu, bai eta, oro har, flotaren funtzionamendu, segurtasun eta irudi baldintza egokiak bermatzeko edozein jarduera ere.

Mantentze planak kudeaketa protokoloak eta prozedurak jasoko ditu, eginkizun hauetarako:

- Flota egunero berrikusteko eta mantentzeko lanak.
- Mantentze lan prebentiboak.
- Mantentze lan prediktiboak.
- Mantentze lan zuzentzaileak.

Mantentze plan horretan ibilgailuaren elementu guztiak jaso beharko dira, bai mekanikoak, bai zerbitzua eskaini ahal izateko osagarriak. Planak egunero egiaztatuko du gutxienez elementu hauen egoera edo funtzionamendu egokia: olioa, bateriak, pneumatikoak, argiak, segurtasun elementuak, klimatizazioa, mugikortasun urriko pertsonentzako arrapalak eta ibilgailuetako ekipoak.

Mantentze lan prebentiboen kasuan, barnean hartuko ditu mantentze lanak egiteko metodologia, kontrol puntuak eta aldizkakotasuna (kilometroka edo denbora tarteka), bai eta aldian-aldian egin beharreko nahitaezko berrikuspenak ere, eta nahitaez koordinatu beharko da ustiapen planean zehaztutako zerbitzuaren egutegiarekin eta ordutegiarekin (plan horretan eragin dezaketen mantentze lan zuzentzaileak alde batera utzita).

Orobat, plan horretan zehaztuko dira, bai langileei dagozkien baliabideak, bai lan guztiak egiteko esleitutako baliabideei dagozkienak. Hala, atal espezifiko batean adierazi beharko ditu ingurumen inpaktua murrizteko garatuko diren neurriak, bai eta kutsadura fisiko, kimiko eta biologikoa murrizteko egingo direnak ere.

23.5 Ibilgailuak garbitzeko plana

Autobusek kontserbazio eta garbitasun egoera ezin hobean egon beharko dute une oro. Horretarako, emakidadunak ibilgailuak garbitzeko plan bat izan beharko du. Plan horretan, banakaturik agertuko dira ibilgailuen elementuen aldizkako garbiketa (barrualdea eta kanpoaldea, intsektuak kentzea, desinfektatzea...) eta aurreikusitako kontserbazioa eta maiztasuna.

Orobat, plan horretan zehaztuko dira, bai langileei dagozkien baliabideak, bai lan guztiak egiteko esleitutako baliabideei dagozkienak. Hala, atal espezifiko batean adierazi beharko ditu ingurumen inpaktua murrizteko garatuko diren neurriak, bai eta kutsadura fisiko, kimiko eta biologikoa murrizteko egingo direnak ere.

23.6 Ikuskapen eta autokontrol plana

Emakidadunak ikuskapen eta autokontrol plan bat izan beharko du. Emakidadunaren ikuskatzaileek zerbitzuaren jarraipena egin beharko dute, eta, horretarako, kontrol jarduerak egingo dituzte ibilaldien okupazioaren, iruzurraren, zerbitzuaren kalitatearen eta geralekuen

gainean (mantentze lanen inguruko informazioa eta egoera, bai eta instalatutako informazio terminalen funtzionamendu egokia ere).

Emakidadunak Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinarazi beharko dio horri dagokionez gertatzen den edozein gorabehera. Era berean, ikuskapen txosten bat egingo du hilero, Gipuzkoako Foru Aldundiari entregatu beharreko jarraipen txostenen parte gisa. Gidaritzako segurtasun plana.

Enpresa adjudikaziodunak, laneko arriskuen prebentzioaren arloan bete behar dituen eginbeharrez aparte, gidaritzako segurtasun plan bat izan beharko du kontratuaren indarraldi osorako. Plan horrek, gutxienez, alderdi hauek jaso beharko ditu:

- Gidatzean segurtasunari buruzko datuak biltzea (kexak, gorabeherak, kalteak...).
- Autobusetako gertakariak ikertzea.
- Droga mendekotasunak eta adikzioak prebenitzeko programa.
- Gidarien nekea, atsedenak eta estresa kudeatzea.

23.7 Prestakuntza plana

Emakidadunak prestakuntza plan bat aurkeztu eta gauzatu beharko du, zerbitzuko langileak, ikuspuntu teknikotik, beren lanaldiaren xede diren jarduerak egiteko behar bezala prestatuta daudela bermatzeko, edozein izanik ere langileon kategoria.

a) Prebentzioz gidatzeari buruzko prestakuntza.
b) Zentzuz eta efizientziaz gidatzeko prestakuntza.
c) Zerbitzuaren erabiltzaileei arreta eta informazioa emateko prestakuntza.
d) Desgaitasuna edo behar bereziak dituzten pertsonentzako irisgarritasunari eta arretari buruzko prestakuntza.
e) Emakidari lotutako garraio sistema adimendunetako prestakuntza.
f) Mantentze lanetan sortzen diren hondakin guztien kudeaketari buruzko prestakuntza.
g) Langileentzako prestakuntza, kontingentzia planean jasotako egoeretan ahalik eta modu eraginkorrenean jarduteko.

23.8 Erabiltzaileei informazioa eta arreta emateko plana

Emakidadunak erabiltzailearentzako informazio eta arreta plan bat izan beharko du, eta puntu hauek jasoko ditu gutxienez:

- Geralekuetarako informazio eta gaurkotze plana, bai zerbitzuari buruzko informazio iraunkorrerako, bai gorabeherei buruzko informaziorako.
- Kexak, intzidentziak eta iradokizunak kudeatzeko sistema. Gipuzkoako Foru Aldundiak horretarako duen plataformari nahitaez atxikitzea, baita horri buruz indarrean dauden prozedurei ere.

Informazio guztia Lurraldebus Gunearekin eman eta koordinatu beharko da une oro, hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Garraio Publikoaren Kudeaketa Integralerako Zentroarekin.

24 Ibilgailuen flota berritzea

24.1 Berritzeko prozedura

Ibilgailu berriren bat erosi aurretik, emakidadunak Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena izan beharko du, eta, horretarako, flotarako ezarritako baldintzak betetzen dituzten hiru eskaintza aurkeztu beharko ditu gutxienez. Emakidadunak ibilgailuen ebaluazio teknikoa egin beharko du, eta Foru Aldundiari aurkeztu beharko dizkio ebaluatutako ezaugarrien zerrenda eta balorazioa, bai eta berritzeko proposamenen arteko prezio konparazioa ere.

Helburu horrekin, emakida honetako ibilgailuak berritzeko eta atxikitzeko, ahal dela, ibilgailu elektriko hibridoak edo elektrikoak erosiko dira. Merkatuan ez balego eskatutako ezaugarriak dituen ibilgailu elektriko hibridorik, salbuespen gisa plantea liteke hibridoa ez den ibilgailu bat erostea. Nolanahi ere, ibilgailu berria erosi aurretik, adjudikaziodunak Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena izan beharko du.

Baja eman beharreko ibilgailuen behin-behineko erabilera aldia salbuespenezko arrazoiengatik sei hilabete baino gehiago luzatzen bada, emakidadunak behin-behinean atxiki beharko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak zerbitzurako eskaturiko zehaztapenak betetzen dituzten beste ibilgailu batzuk. Behin-behinean atxikitako ibilgailu hori ez da konpentsatuko.

Ibilgailu berriak erosten direla egiaztatzeko, egindako eskaerak aurkeztu beharko dira, eta egiaztatu beharko da, orobat, enpresa hornitzaileak onartu duela eskaera, bai eta entregatzeko epea ezarri duela ere. Kasu guztietan egiaztatu beharko da sistemak eskuragarri daudela Lurraldebusen ibilgailuetan.

25 Urteko kudeaketa txostena

Ekitaldi bat amaitzean, emakidadunak urteko txosten bat aurkeztuko du hurrengo ekitaldiko lehen hiruhilekoan, zerbitzuaren kudeaketa eta prestazioa azaltzeko. Txosten horrek urteko memoria teknikoa eta ekitaldi berrirako eguneratutako zerbitzuaren kudeaketa planak jasoko ditu.

25.1 Urteko memoria teknikoa

Emakidadunak, ekitaldi bakoitzeko lehen hiru hilabeteetan, zerbitzuaren kudeaketa eta prestazioari buruzko azalpen memoria aurkeztu beharko du. Han, aurreko ekitaldian egindako jarduera guztiak deskribatuko dira, bai eta zerbitzua hobeto emateko egokitzat jotzen dituen proposamenak ere.

Aurreko ekitaldiko zerbitzuaren kudeaketari eta prestazioari buruzko memoriak informazio hau jasoko du gutxienez:

1. Ustiapen datuen azterketa estatistikoa, ekitaldi osoari dagokiona:
    a. Guztira izaniko ibilaldiak (orokorra eta lineako).
    b. Matxurengatik eta/edo trafiko baldintzengatik galdutako ibilaldien kopurua (orokorra eta lineako).
    c. Zerbitzu kilometroak eta orduak (orokorra eta lineako).
    d. Bidaiari kopuruaren bilakaera ekitaldian zehar (orokorra eta lineako).
    e. Bidaiari kopuruaren urte arteko bilakaera (orokorra eta lineako).
    f. Ibilaldien ezaugarriak 1: Okupazioa. Ibilaldi bakoitzeko bidaiari kopurua, lanegunak, larunbatak, jaiegunak eta gauak bereizita (linearen arabera).
    g. Ibilaldien ezaugarriak 2: Kaptazioa. Geraleku bakoitzean igotako/jaitsitako bidaiariak, lanegunak, larunbatak, jaiegunak eta gaueko zerbitzuak bereizita (lineako eta linea bakoitzean okupazio handiena duen ibilaldiko).

h. Bidaiarietatik lorturiko diru sarrerak, erabilitako ordainbideari buruzko informazioa barne (orokorra eta lineako).
i. Zerbitzuaren kostuak, Gipuzkoako Foru Aldundiak onetsitako kostu egitura erabiliz (orokorra eta lineako).
j. Puntualtasun kontrola (orokorra, lineako eta ibilaldiko).

2. Ustiapen datuen azterketa estatistikoa, ekitaldiko hilabeteen arabera bereizita: Aurreko apartatuko analisi atal berberak, ibilbideen ezaugarriak izan ezik (okupazioa eta kaptazioa).
3. Flotaren estatistika, zerbitzuari atxikitako ibilgailuen zerrendarekin (matrikulako), ibilgailu kopuruaren laburpenarekin (funtzionamendu osoa eta lineako maximoa), funtsezko ezaugarri teknologikoekin eta ereduarekin; flotaren batez besteko adina eta izandako altak eta bajak.
4. Geralekuen inguruko estatistika: geralekuen zerrenda —geltokien argazkia eta guzti—, irisgarritasunari buruzko informazioa, bidaiarientzat eskuragarri dagoen informazioa, garbitasun eta segurtasun egoera.
5. Gorabehera erlatiboen xehetasuna; adieraziko da aurreikusgarriak ziren ala ez, segurtasun indar eta kidego eskudunen zerbitzuak eskatu behar izan diren, eta tipologien laburpen taula bat ere egingo da.
6. Txartelak berrikusteko taula (iruzurra): kontrol eta gorabehera kopurua.
7. Egindako beste ekintza aipagarri batzuk.

25.2 Ekitaldi berrirako kudeaketa planak entregatzea

Ekitaldi bakoitzeko lehen hiru hilabeteetan, ekitaldirako eguneratutako kudeaketa planak emango zaizkio Gipuzkoako Foru Aldundiari. Era berean, emakidari atxikitako ondasunak jasotzen dituen urteko inbentarioaren kopia bat emango da.

Dokumentu horiek entregatzean, kudeaketa plan guztiak zerbitzuaren prestazioaren bilakaerara egokituko dira, eta eguneratuta mantenduko dira emakidaren aldi osoan.

V. TITULUA ERANSKINAK

OIARTZUALDEA-BIDASOAN ETA ESKUALDEOK DONOSTIAREKIN DITUZTEN LOTURETAN BIDAIARIEN GARRAIO PUBLIKO ERREGULARREKO ZERBITZUAK ESKAINTZEKO EMAKIDA KONTRATATZEKO BALDINTZA AGIRIAREN ERANSKINAK (LUR-E-01)

I. eranskina: Bidasoa Behea, Oarsoaldea eta Donostiarekiko lotuneen erabilera orokorreko bidaiarien herri arteko garraio erregularreko zerbitzu publikoaren emakidari dagokion azterlan ekonomikoaren eguneratzeak

II eranskina: Bidasoa Behereko, Oiartzualdeko eta eskualdeok Donostiarekin lotzeko erabilera orokorreko bidaiarien hiriarteko garraio erregularreko zerbitzu publikoaren emakidarako proiektu aldatua (LUR-E-01)

IIi. eranskina. MUGI sistemaren definizioa eta ezaugarriak

IV. eranskina. Publizitate zerbitzuak, eta ikuskatze eta kontrol zerbitzuak kontratatzeko jarraibidea

V. eranskina: Kalitate parametroak ebaluatzea

VI. eranskina: Lurraldebusen irudia

VII.1 eranskina: Bidaiariak errepidez garraiatzeko zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko erregelamendua (bertsio finkatua)

VII.2 eranskina: Erregelamendua aplikatzeari buruzko argibideak

I.Eranskina: Bidasoa Behea, Oarsoaldea eta Donostiarekiko lotuneen erabilera orokorreko bidaiarien herri arteko garraio erregularreko zerbitzu publikoaren emakidari dagokion azterlan ekonomikoaren eguneratzeak

Bidasoa Behea, Oarsoaldea eta Donostiarekiko lotuneen erabilera orokorreko bidaiarien herri arteko garraio erregularreko zerbitzu publikoaren emakidari dagokion azterlan ekonomikoaren eguneratzeak

2024ko ekainaren 11n Bidasoa Behea eta Oarsoaldea eskualdeetako erabilera orokorreko hiriarteko bidaiari-garraio erregularreko zerbitzu publikoaren emakidaren 2. proiektu aldatua onartu zenetik igarotako denbora dela-eta, beharrezkoa da emakidari buruzko azterlan ekonomikoa eguneratzea eta zerbitzu publikoaren emakida-kontratua 2026ko urtarrilaren 1era egokitzea, data horretan aurreikuten baita abian jartzea:

- Gaur egun subrogatu behar diren langileen zerrenda doitzea: Baldintza Administratibo Berezien Agiriko 25.atalean dago (BABA)
- Flotaren informazioa (taula atxikitzen da)
- 2026ko urtarrilaren 1ean zerbitzua martxan jartzeko ustiapenaren azterketa ekonomikoa

FLOTA BERRITZEKO PLANAREN EGUNERAKETA

	Año 1	Año 2	Año 3	Año 4	Año 5	Año 6	Año 7	Año 8	Año 9	Año 10
Utilización vehículos Reversión										
I. Veh 10 m	2	1	1	0	0	0	0	0	0	0
I. Veh 12 m	15	14	12	12	10	5	1	0	0	0
II. Veh 12 m o 13 m	4	4	4	4	4	4	3	0	0	0
II. Veh 18 m	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Inversión inicial										
I. Veh 10 m	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
I. Veh 12 m	8	8	8	8	8	8	8	8	8	8
II. Veh 12 m o 13 m	15	15	15	15	15	15	15	15	15	15
II. Veh 18 m	13	13	13	13	13	13	13	13	13	13
Flota renovada										
I. Veh 10 m	0	1	1	2	2	2	2	2	2	2
I. Veh 12 m	0	1	3	3	5	10	14	15	15	15
II. Veh 12 m o 13 m	0	0	0	0	0	0	1	4	4	4
II. Veh 18 m	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Suma de vehículos										
I. Veh 10 m	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
I. Veh 12 m	23	23	23	23	23	23	23	23	23	23
II. Veh 12 m o 13 m	19	19	19	19	19	19	19	19	19	19
II. Veh 18 m	13	13	13	13	13	13	13	13	13	13
TOTAL	**57**	**57**	**57**	**57**	**57**	**57**	**57**	**57**	**57**	**57**

A. "8. USTIAPEN EKONOMIKOA "ATALA-REN EGUNERAKETA

Dokumentu hau nabarmen eguneratu denez, agiri honetan oso-osorik sartu da, ustiapenaren azterketa ekonomikoaren jarraipen zehatza errazteko.

Ustiapenaren azterketa ekonomikoa egiteko, merkatukoekin bat datozen kostuak hartu eta emakida martxan jarriko den 2026. urtera proiektatu dira. Kostuen eguneratzea % 2,50eko indexatzaile komun baten arabera kalkulatu da.

A.1 "8.1. Ustiapen Kostuak "atalaren eguneraketa

Ustiapen-kostuak honela bereizten dira: ibilgailuen kostuak, errodadurarenak edo kilometrikoak, langileenak edo ordutegienak, lankidetzan egindako zerbitzuenak, beste kostu batzuk (kalitate-kontrola edo gastu orokorrak, adibidez) eta operadorearen industria-mozkina. Jarraian, atal bakoitzean aipatutako partidak zehazten dira.

A.1.1 8.1.1 kostuak kalkulatzeko garrantzitsuak diren eragiketa datuak" atalaren eguneraketa

Ustiapen plan zehatzetik, ondorengo ataletan azaltzen diren kostuak kalkulatzeko magnitude garrantzitsuak ondorioztatzen dira:

1.TAULA. URTEKO EKOIZPENAREN PARAMETRO NAGUSIAK

			Total servicios regulares
Núm. Vehículos (con reserva)			57
Rodadura (veh-km)	total	servicio	4.379.037
		vacío	357.044
		total	**4.736.081**
Personal Conducción (veh-h)	total	servicio	195.359
		vacío	9.877
		regulación	40.255
		formación	6.440
		toma y deje	11.734
		total	**263.664**
	festivo	servicio	4.804
		vacío	243
		total	**5.047**
	horario nocturno	servicio	5.740
		vacío	324
		total	**6.064**

Aurreko taulan jasotako zerbitzuen kilometroetan sartuta, zerbitzu bereziak emateko 60.000 kilometroko poltsa bat aurreikusten da balorazio ekonomikoa egiteko). Hala ere, nahiz eta zerbitzu berezien pean kilometro batzuk egin, kilometro berezi bakoitzaren prezioa kilometro erregularraren prezio bera izango da .

A.1.2 "8.1.2 kostuen egitura" atalaren eguneraketa

A.1.2.1 "8.1.2.1 Ibilgailu bakoitzaren zuzeneko kostuak" atalaren eguneraketa

Ibilgailu bakoitzeko zuzeneko kostuetan sartzen dira proiektu honen B atalean zehaztutako zerbitzua emateko gutxieneko flotari lotutako amortizazio, finantzaketa, aseguru eta zergen gastuak.

Amortizazio-gastua metodo lineala aplikatuz kalkulatzen da, 10 urteko amortizazio-epearekin eta ibilgailu berrientzako % 15eko balioarekin. Autobusen erosketa-prezioa merkatuko balioen arabera zehaztu da.

Autobus bakoitzean ontziratutako teknologiaren inbertsioa ere kontuan izan da. Ekipo hauen bizitza erabilgarria 8 urtekoa izango da, kableatua izan ezik, 10 urtekoa, eta Gipuzkoako Foru Aldundira itzuliko dira balio gabeko balioarekin. Kableatuaren kostua fitxen erosketa- prezioan sartzen da.

Emakidari atxikitako ibilgailuetan ontziratutako ITS ekipamenduak eta horiek ustiatzeko ekipamendua soilik amortizatu ahal izango dira, kotxe bakarrean. Emakidadunak kotxe bat baino gehiago behar badu zerbitzua emateko, ITS ekipamendua eta kotxe horien komunikazioak operadorearen kontura izango dira.

Egitura ekonomiko eta finantzarioan, operadoreak mailegu bat eskatzeagatik izango duen kostu zenbatetsi da, material mugikorra eta ontziratutako ekipoak erosteko behar den inbertsioaren % 100aren pareko kapital baten gainean, 5 urteko finantzaketa-aldia eta urteko % 4,67ko interes-tasa erabilita. Hala ere, likidazioa Baldintza Tekniko Zehatzen Agirian jasotzen den bezala egingo da.

I eta II motako autobusen aseguru eta zergen gastua merkatuko balioen arabera zenbatetsi da.

2.TAULA. AUTOBUS HIBRIDOEN ZUZENEKO KOSTUA

	I. Veh 10 m	I. Veh 12 m	II. Veh 12 m o 13 m	II. Veh 18 m
Datos Vehículos y Financiación				
Precio Adquisición Vehículo s/ Neumáticos + cableado ITS	313.025,83 €	382.465,07 €	417.387,24 €	528.816,91 €
Precio Adquisición Inversión inicial ITS	12.717,57 €	14.456,50 €	12.717,57 €	14.456,50 €
Interés	4,67%	4,67%	4,67%	4,67%
Plazo Préstamo Vehículo	5	5	5	5
Plazo Préstamo Inversión inicial ITS	5	5	5	5
Capital Financiado	100,00%	100,00%	100,00%	100,00%
Total intereses a 5 años Vehículo	38.592,64 €	47.153,74 €	51.459,26 €	65.197,31 €
Total intereses a 5 años Inversión inicial ITS	1.567,94 €	1.782,33 €	1.567,94 €	1.782,33 €
Coste Amortización				
Amortización Vehículo	26.607,20 €	32.509,53 €	35.477,92 €	44.949,44 €
Amortización Inversión inicial ITS	1.271,76 €	1.445,65 €	1.271,76 €	1.445,65 €
Total Amortización Año	27.878,95 €	33.955,18 €	36.749,67 €	46.395,09 €
Coste Financiación				
Financiación Vehículo	3.859,26 €	4.715,37 €	5.145,93 €	6.519,73 €
Financiación Inversión inicial ITS	156,79 €	178,23 €	156,79 €	178,23 €
Total Financiación Año	4.016,06 €	4.893,61 €	5.302,72 €	6.697,96 €

A.1.2.2 "8.1.2.2 kilometroen araberako kostu zuzenak" taularen eguneraketa

Jarduerarekin zuzenean lotutako kostuak dira eta egindako kilometroak kontuan hartuta zehazten da horien zenbatekoa. Honako kostu hauek hartzen dira kontuan:

Ibilgailu elektrkoen trakzio-energia. Lau aldagairen arteko biderkadura da:

- Automobilgintzako gasolioaren prezioa (€/litro), Trantsizio Ekologikoko eta Erronka Demografikoko Ministerioak (MITECO)2024ko urtarriletik ekainera bitartean argitaratzen duen Erregaien Prezioen Hileroko Txostenaren azken sei hilabeteetako batez bestekoa (operadoreak kengarriak diren zergak kontuan hartu gabe), % 5eko deskontua aplikatuz prezioan.
- Erregai-kontsumoa (litroak/km) autobus elektriko mota horretako ibilgailuen merkatua aztertuta zehaztu da. Kontuan hartu dira subrogatuko den flotaren eta erosiko diren autobus berrien kontsumoak.
- Egindako kilometroak.
- Kontsumoaren bilakaera, flotaren hibridazioarekin.

3. TAULA. PROPULSIO-KONTSUMO ERTAINAK, IBILGAILU HIBRIDOAREN TIPOLOGIAREN ARABERA

		I. Veh 10 m	I. Veh 12 m	II. Veh 12 m o 13 m	II. Veh 18 m
Consumo propulsión					
Ud. Consumo		l	l	l	l
Consumo a los 100 km		33,00	39,00	32,00	47,03
Precio por ud. de consumo		1,286 €	1,286 €	1,286 €	1,286 €
Descuento sobre el precio	5,00%				
Coste por kilómetro		0,403 €	0,476 €	0,391 €	0,574 €

Pneumatikoak: ibilgailuak erabiltzen duen pneumatiko-kopurua, prezio unitarioa eta pneumatikoaren batez besteko iraupena (70.000 km) kontuan hartuta lortzen da. Horiek 2024.urteko uztailean Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren kostuen Behatokiak ezarritako datuak dira.

4. TAULA. PNEUMATIKOEN BATEZ BESTEKO KONTSUMOAK IBILGAILU HIBRIDOAREN TIPOLOGIAREN ARABERA

		I. Veh 10 m	I. Veh 12 m	II. Veh 12 m o 13 m	II. Veh 18 m
Neumáticos					
Coste de cada Neumático		500,55 €	568,07 €	568,07 €	684,47 €
Núm. de neumáticos		6	6	6	8
Coste de juego de Neumáticos		3.003,31 €	3.408,40 €	3.408,40 €	5.475,80 €
Vida Útil del Neumático que se asume (km)	70.000				
Coste por kilómetro		0,043 €	0,049 €	0,049 €	0,078 €

Ibilgailuen mantentze-lanak: autobusak konpontzeko eta mantentzeko urteko kostua da.

5. TAULA. MANTENTZE-LANEN BATEZ BESTEKO KONTSUMOAK IBILGAILU HIBRIDOAREN TIPOLOGIAREN ARABERA

	I. Veh 10 m	I. Veh 12 m	II. Veh 12 m o 13 m	II. Veh 18 m
Reparación, mantenimiento y limpieza de material móvil	0,149 €	0,149 €	0,149 €	0,149 €

Bidesariak: AP1/AP8 ordainpeko autobidetik igarotzen diren zerbitzuetan, bidesariaren kostua kontuan hartzen da. Kontratistak dagozkion tarifak ordaindu beharko ditu, empresa kudeatzaileak ezarritako precio eta ordainketa-epeen arabera. Gipuzkoako bidesarien deskontu-plan berriaren arabera, taula honetan agertzen diren bidesarien tarifak % 50eko deskontua du.

6. TAULA. LINEA BAKOITZEKO BIDESARIAREN URTEKO KOSTUA

Línea	Origen-Destino	Tipología bus	Expediciones anuales	Tarifa (€/exped) (s/IVA)	Coste peaje
BI01	Irún-Oiartzun	Pesados I	8.395	1,50 €	12.627,19 €
BI02	Irún-Oiartzun	Pesados I	7.588	1,50 €	11.413,66 €
BI02	Irún-Oiartzun	Pesados II	5.059	1,79 €	9.072,39 €
BI06	Irún-Oiartzun	Pesados I	6.474	1,50 €	9.737,75 €
BI07	Irún-Oiartzun	Pesados I	6.043	1,50 €	9.089,44 €
BI07	Irún-Oiartzun	Pesados II	3.781	1,79 €	6.780,83 €
BI50B	Irún-Oiartzun	Pesados I	0	1,50 €	- €
					58.721,27 €

* BI50B lineako igorpenak ez dira erregularrak, kategoria bereziko zerbitzua baita; beraz, linea horretako bidesariaren kostua azterketa ekonomiko-finantzarioko hainbat partidatan sartzen da.

Taula honetan, aurrez deskribatutako kilometroko eta tipologiako kostuak laburbiltzen dira.

7. TAULA. KILOMETROKO KOSTUAK ETA IBILGAILU HIBRIDOAREN TIPOLOGIA

		I. Veh 10 m	I. Veh 12 m	II. Veh 12 m o 13 m	II. Veh 18 m
Consumo propulsión					
Ud. Consumo		l	l	l	l
Consumo a los 100 km		33,00	39,00	32,00	47,03
Precio por ud. de consumo		1,286 €	1,286 €	1,286 €	1,286 €
Descuento sobre el precio	5,00%				
Coste por kilómetro		0,403 €	0,476 €	0,391 €	0,574 €
Lubricantes		0,009 €	0,009 €	0,009 €	0,009 €
Neumáticos					
Coste de cada Neumático		500,55 €	568,07 €	568,07 €	684,47 €
Núm. de neumáticos		6	6	6	8
Coste de juego de Neumáticos		3.003,31 €	3.408,40 €	3.408,40 €	5.475,80 €
Vida Útil del Neumático que se asume (km)	70.000				
Coste por kilómetro		0,043 €	0,049 €	0,049 €	0,078 €
Reparación, mantenimiento y limpieza de material móvil		0,149 €	0,149 €	0,149 €	0,149 €
Peajes	**58.721,27 €**				

A.1.2.3 "8.1.2.3 Enpresako langileen zuzeneko kostuak" taularen eguneraketa

Enpresaren kostua eta gidarien batez besteko antzinatasuna subrogazio- eta gidatze-eskubidea duten langileei buruzko informazioa kontuan hartuta lortu dira, Ekialdebus Hitzarmen Kolektiboan aurreikusitakoaren arabera.

Uniformearen gastuak ere sartu dira, enpresa operadorearen kontura izango direnak.

Behar diren gidarien kopurua kalkulatzeko, kontuan hartu da zenbat ordu-ibilgailu behar diren guztira eta gidari bakoitzak urtean zenbat ordu gidatzen dituen.

Zerbitzuaren betebeharrak betetzeko behar diren orduak kalkulatzeko, kontzeptu hauek hartu dira kontuan:

- •Zerbitzu-orduak: espedizioen arloan zerbitzu-betebeharrak betetzeko behar den denbora
- Hutseko orduak: autobusak hutsik mugitzeko behar duen denbora.
- Presentzia eta erregulazio orduak: espedizio bat amaitzen denetik eta hurrengoa hasten denetik goiburuan itxaron beharreko denbora. Oinarrizko itxaronaldia ere konputatzen da, betiere bi ordu baino gutxiagokoa bada.
- Prestakuntza: gidari bakoitzak urtean 40 orduko prestakuntza-aldia izango duela zenbatetsi da.
- Lanaldia hasteko prestatzeko denbora. Kontuan hartu dira 20 minutu gidari eta eguneko.
- Laneko absentismoa: % 6koa dela jotzen da.
- Gizarte Segurantza: Gizarte Segurantzaren kostua % 34koa da soldata osoaren gainean.

8. TAULA. GIDARIEN KOSTUA ERAGIKETAREN LEHEN URTEAN

Conductor-Perceptor	Coste previsto 2026
Salario Base Año	24.684,55 €
Antigüedad Año	2.705,85 €
Gratificaciones	6.629,58 €
Plus Perceptor Año	0,00 €
Plus Quebranto Moneda Año	551,34 €
Plus Toma y Deje	2.084,74 €
Plus Actividad	1.602,37 €
Plus Asistencia al Trabajo	4.358,99 €
Plus Domingos y Festivos	507,22 €
Total (sin %SS)	**43.124,64 €**
Total (con %SS sin incluir horas de servicio nocturnas)	**57.787,01 €**
Horas Convenio Año	1.762,00
Plus Nocturnidad	29,19 €/h
Vestuario conductor	150€/persona

Gaueko lanaren kostua (gaueko orduengatik egindako zerbitzuak) 8.1.1 ataleko gaueko lanaren plusaren bidez aurreikusitako kostuan sartzen da.

Gidarien jantzien kostua pertsonako 150 €koa dela kalkulatzen da.

A.1.2.4 Zeharkako kostuen atala eguneratzea”

Enpresaren kostua eta trafikoko, mantentze-lanetako eta kontrol-zentroko (SAE) langileen batez besteko antzinatasuna kalkulatzeko, kontuan hartu dira subrogazio-eskubidea duten langileei buruzko informazioa eta

aurreikus daitekeen bilakaera, Ekialdebus Hitzarmen Kolektiboan aurreikusitakoaren arabera. Kostua kalkulatzeko, %6ko absentismoa eta %34ko gizarte segurantzaren kostua onartu dira.

Uniformearen gastuak ere sartu dira, enpresa operadorearen kontura izango direnak.

9. TAULA. ZEHARKAKO KOSTUETAN SARTUTAKO EGITURA-LANGILEEN KOSTUA

Categoría	Personal / Año	Coste previsto 2026	Previsión Absentismo	Seguridad Social	Total Coste Empresa Personal / Año	Total Coste Empresa por Categoría
Centro de Control - SAE	4	38.953,64 €	2.337,22 €	14.038,89 €	55.329,75 €	221.319,00 €
Jefe de Tráfico 1º	1	75.474,34 €	4.528,46 €	27.200,95 €	107.203,75 €	107.203,75 €
Jefe de Tráfico 2º	3	61.240,24 €	3.674,41 €	22.070,98 €	86.985,64 €	260.956,91 €
Jefe de Taller	1	82.303,53 €	4.938,21 €	29.662,19 €	116.903,94 €	116.903,94 €
Oficial de 1º de taller	7	38.860,81 €	2.331,65 €	14.005,43 €	55.197,89 €	386.385,22 €
Oficial de 2º de taller	2	35.269,95 €	2.116,20 €	12.711,29 €	50.097,43 €	100.194,86 €
Lavacoches	4	32.312,94 €	1.938,78 €	11.645,58 €	45.897,30 €	183.589,20 €
Total	**22**				**517.615,69 €**	**1.376.552,88 €**

Zeharkako gastuen partida horretan, gastu hauek ere sartzen dira:

- Lan-arriskuen prebentzioa: 9.000 €.
- Lantegiko langileen jantziak: 150 €/pertsona.
- Udal-tasak eta zergak: udal-zergen kostu unitarioa urtean 10.000,00 €-koa izan da, eta beste tasa batzuetarako, berriz, urtean 3.000,00 €-ko poltsa bat.
- Lurraldebus Ekosistema, 813,00 €-ko kexa-aplikazioa.
- Honako gastu hauek ere hartuko dira kontuan: kotxetegiak eta bulegoak alokatzea, horiek garbitzea, beste finantza-kostu batzuk, behin betiko abalaren interesa eta banku-gastuak barne, bai eta publizitate-kostuak ere.

10. TAULA. ZEHARKAKO BESTE KOSTU BATZUK

Costes Indirectos	
Tasas e impuestos	13.000,00 €
Alquiler de cocheras y oficinas	412.000,00 €
Limpieza	6.000,00 €
Otros costes financieros	61.000,00 €
Publicidad	35.000,00 €
Ecosistema Lurraldebus (app quejas)	813,00€
Varios	5.000,00 €

A.1.2.5 “8.1.2.5 Kostu orokorrak” atala eguneratzea

Kostu orokorretan administrazioko langileen kostuak eta beste gastu orokor batzuk sartzen dira:

Enpresako kostua eta administrazioko langileen batez besteko antzinatasuna kalkulatzeko, kontuan hartu dira subrogatzeko eskubidea duten langileei buruzko informazioa eta aurreikus daitekeen bilakaera, Ekialdebus Hitzarmen Kolektiboan aurreikusitakoaren arabera. Kostua kalkulatzeko, %6ko absentismoa eta %34ko gizarte segurantzaren kostua onartu dira.

11. TAULA. KOSTU OROKORRETAN SARTUTAKO EGITURA-LANGILEEN KOSTUA

Categoría	Personal / Año	Coste previsto 2025	Previsión Absentismo	Seguridad Social	Total Coste Empresa Personal / Año	Total Coste Empresa por Categoría
Jefe sección (Gerente)	1	91.348,86 €	5.480,93 €	32.922,13 €	129.751,92 €	129.751,92 €
Oficial de 1º Administración	5	57.761,30 €	3.465,68 €	20.817,17 €	82.044,15 €	410.220,74 €
Oficial de 2º Administración	1	36.226,88 €	2.173,61 €	13.056,17 €	51.456,66 €	51.456,66 €
Aux. Administrativo	1	27.476,16 €	1.648,57 €	9.902,41 €	39.027,14 €	39.027,14 €
Total	**8**				**302.279,86 €**	**630.456,45 €**

Horrez gain, gastu orokor hauek hartzen dira kontuan: bulegoko materialaren kontsumoa, zerbitzu profesional independenteak (segurtasun-zerbitzuak, kalitatea eta ikuskaritza ekonomikoa), hornidurak (elektrizitatea, ura, telefonoa) eta aseguru-primak (edukitzailea eta edukia, erantzukizun zibila).

12. TAULA. BESTE KOSTU OROKOR BATZUK

Costes Generales	
Consumo de material	1.000,00 €
Servicios profesionales independientes	85.500,00 €
Suministros	35.000,00 €
Primas de seguros (Continente y contenido, RC)	4.000,00 €

A.1.2.6 “8.1.2.6 Gainerako kostu finkoak”

Kostu finkoen hondartzat hartzen dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontratazio publikoaren araberako zenbatekoa duten partidak, kontratuaren iraunaldian prezioak berrikusi gabe, kontratu horietan izandako aldaketen ondorioz izan ezik.

13. TAULA. GAINERAKO KOSTU FINKOAK

Resto de Costes Fijos	
Ecosistema Lurraldebus (equipo embarcado)	140.944,30 €
Publicidad	35.000,00 €
Ecosistema Lurraldebus (app quejas)	813,00 €

A.1.2.7 “8.1.2.6 Mozkina” atala eguneratzea”

Sistemaren kontratuaren prezioak kalkulatzean, % 6ko enpresa-onura ere sartu da.

A.1.3 "8.1.3 Urteko kostuak" atalaren eguneratzea

Kostuen egitura eta aipatutako zerbitzuak oinarri hartuta, urteko kostu hauek lortzen dira lehenengo eragiketa-urterako:

14. TAULA ERAGIKETAREN LEHEN URTEKO KOSTUAK

Costes	18.484.806,72 €
Costes Directos	15.808.384,39 €
Costes por vehículo	**2.888.936,35 €**
Amortización Flota	1.906.486,49 €
Amortización ITS	98.437,87 €
Financiación Flota	277.016,70 €
Financiación ITS	12.136,31 €
Seguros	376.200,00 €
2. Herritarrei beren eskubide eta betebeharren berri ematea.

3. Eskubideak egikaritu daitezen sustatzea, bai eta betebeharrak berdintasun baldintzetan bete daitezen ere.

4. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumeneko hiriarteko bidaiariak errepidez garraiatzeko zerbitzu publiko erregularraren irudia zabaltzea.

5. Gipuzkoako Lurralde Historikoko mugikortasunarekin lotutako proiektuei eta horien kudeaketa publikoaren emaitzei buruzko informazio orokorra ematea.

2.2. Kontratatutako enpresak honako zerbitzu eta/edo produktu hauek eskaini ahal izango ditu:

1. Komunikabide, inprimaki, ikus-entzunezko, digital eta abarrekin negoziazio ekonomikoa eta kontratazioa egitea.

2. Behar den informazio edo publizitate elementu oro (jatorrizkoak eta prentsa eta aldizkarietarako egokitzapenak, Interneterako formatuak, irrati iragarkiak, telebistarako iragarkiak edo ikus-entzunezko ekoizpenak, liburuxkak, argitalpenak, papergintza eta kartelak) eskatutako hizkuntzan edo hizkuntzetan diseinatzea, sortzea eta ekoiztea. Enpresa adjudikaziodunak azken arte eta master guztiak entregatu beharko dizkio Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari.

3. Elementu, euskarri eta/edo komunikabideetarako diseinu egokitzapenak egitea.

4. Argitaratzeko eta/edo zabaltzeko prest dauden piezak, azken arteak, originalen grabazioak, newsletterrak eta abar ekoiztea.

5. Irratirako eta ikus-entzunezko iragarkien gidoiak ekoiztea eta/edo egitea.

6. Komunikazio kanpainen eta bestelako zerbitzu osagarrien proposamenak (SMS mezuak, posta bidalketak, mezu elektronikoak...).

7. Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak horretarako emandako jarraibideen arabera egingo dira lanak, eta haren ikuskaritzapean.

8. Hedapen eremua tokikoa izango da, edo zabaldu ahal izango da Gipuzkoako Lurralde Historiko osora ere.

3. IKUSKAPEN ETA KONTROL ZERBITZUAK

3.1. Bidaiarien errepide bidezko hiriarteko garraio zerbitzu publikoaren kalitatearen ebaluazioa —horrek ekarriko du operadore bakoitzaren azken ordainsaria—, bi parametro moten bidez egingo da:

a) Parametro neurgarriak.

Bat datoz ustiaketaren datu objektiboekin, hala nola irteerako puntualtasunarekin, eskaini gabeko zerbitzuekin, egindako ikuskapenen emaitzekin (ibilgailuen garbitasuna, geralekuetako informazioa, flotaren eta ibilgailuetako ekipoen mantentze lanak...), gidariak zerbitzua zuzen aukeratzearekin, ibilgailuak ordezteko egutegian atzerapenekin...

b) Hautemandako kalitatearen adierazleak.

Inkesta orokorrak edo puntualak egingo dira zerbitzuaren erabiltzaileen artean, linea zehatzekin edo lineetan egindako aldaketekin lotuta.

Konpondu gabeko erreklamazio errepikatuak (arrapalen funtzionamendua, kartelak, garbitasuna...).

3.2. Lanaren irismena.

Jarraian zerrendatzen diren lanak egiteko, lantaldeak Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak ezartzen dituen jarraibide eta parametroen arabera jardungo du, eta behar adina langile eta baliabide tekniko eta material izango ditu, une oro garatu beharreko jardueraren behar aldakorretara egokiturik.

Azalpen gisa, hauek izango dira egin beharreko lanak:

a) Komunikazio eta informazio eremua:

- Liburuxken eta giden banaketa kontrolatzea. Indarraldi iraunkorra berrikustea eta, kasuak hala eskatzen duenean, eguneratzea eta ordeztea.

- Enpresa eragilearen web orriari eta enpresa eragilearen sare sozialei buruzko informazioa kontrolatzea.
- Geralekuetan (zutoinak, markesinak eta informazio panelak) eskuragarri dagoen informazioa kontrolatzea eta eguneratzea.
- Enpresa eragileek erabiltzaileei aurrez aurre, telefonoz eta telematikoki ematen dien arreta kontrolatzea.
- Zerbitzua emateari eragiten dioten gorabeherak kudeatzea (errepideko istripuak, obrak, matxurak, kirol probak...) Zeregin horri dagokionez, komunikazio kanalak kontrolatuko ditu, eta horietatik jasoko da gorabeherei buruzko informazioa; hala, egiaztatuko du betetzen dela erabiltzaileei informazioa emateko protokoloa.
- Jasotako kexen eta iradokizunen tramitazioa kontrolatzea.
- Halakorik denean, eskaeraren araberako zerbitzu eskaeren kudeaketa kontrolatzea.

b) Zerbitzua ematearen jarraipen eremua:

- Zerbitzuaren pertzepzioan eragina duten parametroak ebaluatzea, hala nola ibilgailuaren garbitasuna, gidariek erabiltzaileei ematen dieten tratua, erabiltzaileen portaera, autobusean eskuragarri dagoen informazioa, erabiltzaileen hizkuntza eskubideak betetzea eta abar.
- Inkestak prestatzea eta egitea, emaitzak aztertzea eta hobekuntzak proposatzea.
- Enpresa eragileak eskainitako ikuskapen eta kontrol planaren jarraipena egitea.
- Besteak beste, euskararen, genero berdintasunaren eta halako gaien inguruan egindako proposamenen jarraipena egitea.

c) Enpresa eragileek eskainitako bitartekoak kontrolatzea:

- Giza baliabideak. Proposatutako dimentsionamendua betetzen dela kontrolatzea. Langileen prestakuntza kontrolatzea, prestakuntza planaren eta eskainitako prestakuntza ekintzen arabera. Lan hori urtean bitan egin beharko da gutxienez.

- Kotxetegiak. Enpresa adjudikaziodunek kotxetegietan eskaintzen duten ekipamendua kontrolatzea.
- Ibilgailuen flota. Eskainitako flota berritzeko planaren jarraipena eta kontrola, eta flotaren mantentze prebentiboko prozedurak kontrolatzea.

d) Jarraipen txostenak:

- Garatutako jardueraren jarraipen txostenak egitea, gutxienez hiru hilean behin. Txosten horiek oinarri gisa baliatuko dira zerbitzuaren kalitatea balioesteko eta, azken batean, enpresa eragileari ordaintzeko.

3.3. Lantaldea.

Adierazitako eginkizunak betetzeko, kontratatutako enpresak behar beste langile izango ditu Lurraldebusen zerbitzuak ematen diren lurralde osoan eta garraio eragileen instalazioetan jarduteko. Garatu beharreko jardueren edukia eta egutegia ikusita, enpresa adjudikaziodunak zenbait lantaldetan banatu beharko ditu kontratuari atxikitako langileak. Irizten zaio adierazitako zereginak egin daitezkeela 8:00etatik 14:00etara bitartean, astelehenetik ostiralera.

Zerbitzua eman ohi duten langileen identifikazioa jasoko da eskaintzan, baita ordezkoena ere.

Era berean, langileek EAEko bi hizkuntza ofizialetan lan egiteko duten esperientzia eta egokitasuna adieraziko da eskaintzan.

Eskaintzan jasotakoez bestelako pertsonek zerbitzua eman ahal izateko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak baimena eman beharko du aldez aurretik, eta enpresa adjudikaziodunak ahalik eta epe laburrenean eman beharko dio horren berri ordezkapena egin behar dela jakiten duenetik.

4. AURREKONTUA

Hau da jarraibide honen xede diren zerbitzuak kontratatzeko urteko aurrekontua, BEZik gabe:

Emakida	Enpresa	Publizitate zerbitzuak	Ikuskapen eta kontrol zerbitzuak
LUR-M-02 Debabarrena – Urola Kosta.	Eusko Trenbideak	35.000,00	40.000,00
LUR-Z-03 Tolosaldea	Tolosaldea Bus	25.000,00	-
LUR-Z-04 Goierri	Goierrialdea	25.000,00	26.884,03
LUR-M-06 Urola Erdia	La Guipuzcoana	25.000,00	39.200,07
LUR-DG-07 Debagoiena – Hiriburuen artekoa	Transportes Pesa	45.000,00	40.000,00
Guztira:		**155.000,00**	**146.084,10**

5. KONTRATISTA HAUTATZEA

Zerbitzu publikoaren kalitatea ebaluatzeko, beharrezkotzat jotzen da publizitate, ikuskapen eta kontrol zerbitzuen kontratazioa modu eraginkorrean, homogeneoan eta koordinatuan egitea bidaiarien garraio publikoko zerbitzuen enpresa eragileek.

Gainera, kontuan izan behar da baliabide publikoak erabiliko direla jarraibide honen xede diren kontratazioak finantzatzeko, eta horrek eskatzen du kontratuak publizitate eta lehia printzipioak betez adjudikatu behar direla.

Horregatik guztiagatik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak izapidetuko ditu kontratazioak, eta, kontratu bakoitzaren zenbatekoaren arabera, kasu bakoitzean aplikatu beharreko prozedura baliatuko du.

Kontratista hautatu ondoren, hark dagokion kontratua sinatuko du garraio zerbitzu publikoaren enpresa eragilearekin, eta hari fakturatuko dizkio egindako lanak.

6.- LANEN JARRAIPENA ETA KONTROLA

6.1. Jarraibide honen xede diren lanak Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak zuzendu, koordinatu eta gainbegiratuko ditu, eta, era berean, egiaztatuko du enpresa adjudikaziodunek behar bezala betetzen dituztela aurreko apartatuetan zerrendatutako ekintza guztiak.

6.2. Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren eskumena izango da egokitzat jotzen dituen jarraipen bilerak deitzea enpresa adjudikaziodunekin, garatu beharreko lanak une bakoitzeko beharretara egokitzeko. Zerbitzu kontratu bakoitzaren enpresa adjudikaziodunek lan arduradun bat izendatu beharko dute eskaintzan, eta Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak harekin landuko ditu kontratu horiek gauzatzearen ondoriozko alderdi guztiak.

6.3. Mugikortasuneko eta Garraioetako Zuzendaritza Nagusiak, jarraibide honen xede diren kontratuei dagokienez, ardura hauek hartu ahalko ditu:

- Kontratuen xedea gauzatzeko beharrezko baliabideak eta antolamendua egon daitezen eskatzea.
- Lanetan sartu beharreko aldaketak programatzea.
- Kontratatutako zerbitzuak etengabe eta zuzenean ikuskatzea eta zaintzea.

7. DATUEN BABESA

Kontratatutako enpresek, datu pertsonalak dauzkaten fitxategiei dagokienez, konpromiso hauek hartuko dituzte, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (DBLO) ezarritakoa betez:

- Lortutako datu pertsonalak ez aplikatzea edo erabiltzea, nola eta ez den kontratuan agertzen diren helburuetarako, eta datu horiek beste pertsona batzuei ez lagatzea, ezta gordetzeko izanik ere.

- Horiei buruzko sekretu profesionala gordetzea, nahiz eta harremana bukaturik eduki Lurraldebus markaren pean kudeatzen den erabilera orokorreko errepide bidezko bidaiarien hiriarteko garraio zerbitzu publiko erregularreko enpresa operadoreekin.

- Datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko eta datu horiek aldatzea, tratatzea edo baimenik gabe eskuratzea saihesteko beharrezko neurriak hartzea, bai segurtasun neurri teknikoak, bai antolaketari dagozkionak.

8. KONFIDENTZIALTASUNA KONTRATUA GAUZATZEAN

Jarraibide honen xede diren kontratuak direla-eta egindako lan guztiak isilpekoak izango dira, eta kontratatutako enpresek ezin izango dute eman daturik edo informaziorik kontratatutako lanei buruz, ezta enpresa kontratatzaileek emandako dokumentaziorik ere. Ezingo dute eman, orobat, Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazitakorik ere.

Aurreko jarraibidean ezarritako betebeharren eta datu pertsonalak babesteko indarreko arautegitik erator daitezkeen gainerako obligazioen kalte gabe, kontratatutako enpresek eskura dituzten baliabide guztiak jarri beharko dituzte, kontratuak gauzatzean eskura duten informazioaren konfidentzialtasuna gordetzeko.

Aurreko postulatuekin bat etorriz, kontratatutako enpresek konpromisoa hartuko dute entregatzen zaizkien agirietako bat bera ere ez galtzeko, hondatzeko edo aldatzeko, eta konpromisoa hartuko dute,

orobat, ez egiteko inolako kopiarik, ez papereko agirienik, ez euskarri optiko eta/edo magnetikoan dituzten dokumentuenik.

V ERANSKINA

KALITATE PARAMETROEN EBALUAZIOA

Kalitate parametroen ebaluazioa

Gipuzkoako Foru Aldundiaren langileek edo Aldundiak izendatutako pertsonek balioetsiko dute zerbitzuaren kalitatea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren bidaiarien errepideko garraio publikoaren emakida guztietan erabilgarri dauden datuetatik abiatuta. Horretarako, bi parametro mota erabiliko dira:

1) **Parametro neurgarriak. (±% 1)**

Bat datoz ustiaketaren datu objektiboekin, hala nola irteerako puntualtasunarekin, egin gabeko zerbitzuekin, egindako ikuskapenen emaitzekin, gidariak zerbitzua zuzen aukeratzearekin, ibilgailuak ordezteko egutegian atzerapenekin...

2) **Hautemandako kalitatearen adierazleak. (±% 1)**
   a) Zerbitzuaren erabiltzaileen artean inkestak egin ahal izango dira.
   b) Erreklamazioak (arrapalen funtzionamendua, kartelak, garbiketa, atzerapenak...).

±% 2ko kalitatearen ebaluazioa egiteko, kalitate adierazle hauek ezartzen dira, eta unean-unean indarrean atalaseak aplikatu beharko dira, zeinak urtero berrikusiko baitira:

Parametro neurgarriak

20 Zerbitzuaren hasierako betetze-mailaren adierazlea, goizeko 9:00ak arte (IIS)

Lan eta ikasketa zentroetara joaten diren langileek eta ikasleek erabiltzen dituzte batez ere eguneko lehen bidaiak. Beraz, lehentasunezkoa da lehen ordutegi tarteetan ezarritako zerbitzuak betetzen direla ziurtatzea.

Adierazle horren helburua da zerbitzuaren betetze mailaren ehunekoa neurtzea, zerbitzua hasten denetik goizeko 9:00ak arte, baita ezarritako irteera orduaren betetze maila neurtzea ere. Horretarako, linea bakoitzaren lehen ibilalditik goizeko 9:00etara bitartean zehazten da zerbitzua hasteko aldia; $IS_{linea} = \left[t_{1^a\ Exp}, 9{:}00\right]_{linea}$.

Horretarako, eginiko ibilbideen kopurua neurtuko da egin beharrekoekin alderatuta, baita jatorrian bost minutu baino gehiagoko atzerapenarekin egindako ibilaldien kopurua eta jatorrian ordua baino lehen ateratzen direnena ere.

Zerbitzuaren abiarazpenaren betetze mailari dagokion adierazlea hiru azpiadierazle batuta lortuko da (ibilbideak egitea, 5 minututik gorako atzerapenarekin irtetea, eta ezarritako irteera ordua baino lehenago irtetea).

$$IIS = I_{\%\ erreala}(C_{\%\ erreala}) + I_{t>5}(C_{t>5}) + I_{t<0}(C_{t<0}) \text{ non } t_i \in IS_{linea}$$

21 Parrillaren betetze mailari dagokion adierazlea (IP)

SAE sistemaren bidez lortutako datuak behar bezala aztertu eta ustiatzeko, datuek fidagarriak eta errealak izan behar dute. Horretarako, gidariek behar bezala ireki behar dituzte bidaiak eta ibilbideak, egingo dituzten zerbitzuen arabera.

Parametro honen helburua da gidariak SAE sisteman egindako bidaien eta ibilbideen irekierari dagokion betetze maila neurtzea. Sisteman irekitako bidaia guztiak ezarritako ordutegiekin bat datozela egiaztatuko da.

$$IP = I_{irekitzeak}(C_{irekitzeak})$$

22 Jatorrizko irteera ordua betetzea espedizio guztietarako (IHS)

Zerbitzuaren erabiltzaileen kexen arrazoi nagusietako bat zerbitzuaren atzerapenak dira. Zerbitzuaren hasierako atzerapenak nekez berreskura daitezke ibilbideak aurrera egin ahala, eta, horrenbestez, garrantzitsua da jatorriko irteera ordutegia operadoreek bete beharreko parametroa izatea.

Adierazle honen helburua da jatorrizko irteera ordutegiaren betetze mailaren ehunekoa neurtzea.

Neurtuko diren alderdien artean daude ezarritako irteera orduaren ondorengo lehen 5 minutuetan egiten diren zerbitzuen portzentajea, ezarritako irteera orduaren hurrengo 15 minutuetan egiten diren zerbitzuen ehunekoa, ezarritako irteera ordua baino 15 minutu geroago egiten diren zerbitzuen ehunekoa, eta ordutegietan ezarritako irteera ordua baino lehen ateratzen diren zerbitzuen ehunekoa.

Irteeraren betetze mailaren adierazlea lau azpiadierazleren batura izango da (irteera orduan, irteera 5-15 minutuko atzerapenarekin, irteera 15 minututik gorako atzerapenarekin eta irteera ezarritako irteera ordua baino lehenago).

$$IHS = I_{t=[0,5]}\left(C_{t=[0,5]}\right) + I_{t=[5,15]}\left(C_{t=[5,15]}\right) + I_{t>15}(C_{t>15}) + I_{t<0}(C_{t<0})$$

23 Azpiindizeen balioa kalkulatzeko formula

Azpiadierazle bakoitzak positiboan kontabilizatuko du atalase positibotik aurrera, U_+, horietako bakoitzerako definitutako betetze atalase positibotik abiatuta. Bestalde, azpiadierazle bakoitzak negatiboan kontabilizatuko du balioa atalase positibotik beherakoa denean, U_-, horietako bakoitzerako definitutako betetze mailaren azpitik. Atalase positiboa, U_+, eta atalase positiboa, U_-, balioen artean, azpiadierazle bakoitzaren balioa zero izango da.

Azpiadierazle bakoitzak gehienez puntu negatibo definituak kontabilizatuko ditu, azpiadierazlearen balioa horietako bakoitzerako definitutako gehieneko atalase negatiboa, U_0, baino txikiagoa denean.

Balio horiei esker, azpiadierazle bakoitzaren balioaren arabera formula bat lau zatitan defini daiteke, atalase balio bakoitzaren artean lege linealak aplikatuz. Hala, hau da azpiindizeen balioa kalkulatzeko formula:

$$I_i(C_i) = \begin{cases} \dfrac{MaxP * (C_i - U_+)}{100\% - U_+}, & C_i \in [U_+, 100\%] \\ 0, & C_i \in (U_-, U_+) \\ \dfrac{MinP * (C_i - U_-)}{U_0 - U_-}, & C_i \in [U_0, U_-] \\ MinP, & C_i < U_0 \end{cases}$$

Non:

- I_i da kalkulatu beharreko azpiadierazlea
- C_i da ebaluatu beharreko parametroaren betetze balioa, ehunekotan adierazita
- $MaxP$ da azpiadierazleari eman dakiokeen gehieneko puntuazioa
- $MinP$ da azpiadierazleari eman dakiokeen gutxieneko puntuazioa
- U_+ da azpiadierazlerako definitutako atalase positiboa
- U_- da azpiadierazlerako definitutako atalase negatiboa
- U_0 da azpiadierazlerako definitutako gehieneko atalase negatiboa

Hautemandako kalitatearen adierazleak

Lurraldebusek urtero egiten duen Hautemandako Kalitateari buruzko Azterlanean lortutako aitorpenen emaitzetan oinarritzen dira ondoren zehazten diren adierazleak, eta, halakorik ezean, interesatzen zaigunaren aurreko urtekoa. Datu horiek erabiltzaileak zerbitzua ematean duen esperientzia islatzen dute, eta iritzi hori benetan garrantzitsua da analisian dauden alderdiak baloratzeko orduan.

20 Hautemandako puntualtasun indizea (IPP)

Zerbitzuaren erabiltzaileek autobusen eta barruko elementuen garbitasun eta kontserbatzeari buruz adierazitako puntuazioa neurtzen du ehunekotan.

21 Autobusen kalitatearen indizea (ICA)

Zerbitzuaren erabiltzaileek autobusen eta barruko elementuen garbitasun eta kontserbatzeari buruz adierazitako puntuazioa neurtzen du ehunekotan.

22 Segurtasun eta gidatze indizea (IS)

Zerbitzuaren erabiltzaileek joan-etorrietako segurtasunari buruz adierazitako puntuazioa neurtzen du ehunekotan.

23 Gidarien adeitasunaren indizea (IA)

Zerbitzuaren erabiltzaileek gidarien adeitasunari buruz adierazitako puntuazioa neurtzen du ehunekotan.

24 Indizeen balioa kalkulatzeko formula

Indizeak kalkulatzeko, adierazlea nahiko edo oso asegarritzat jotzen duten inkestatu guztien kopurua hartuko da kontuan, bai eta oso pozik ez edo batere pozik ez dagoen adierazlea aurkitzen duten inkestatu guztien kopurua ere. Adierazlea nahiko edo oso asegarritzat jotzen duen inkestatu bakoitzeko, indizeak puntuazio positiboak metatuko ditu. Bestalde, adierazlearekin oso pozik ez edo batere pozik ez dagoela adierazten duen inkestatu bakoitzeko, indizeak puntuazio negatiboak metatuko ditu.

Indizea zenbakizko mailaketa baten bidez ebaluatzen bada, 7tik gorako balorazioak zenbatuko dira metaketa positiborako. Aldiz, metaketa negatiborako, 6tik beherako balorazioak zenbatuko dira.

Hala, hauxe da hautemandako kalitate indizeen balioa kalkulatzeko formula:

$$I_i = MaxP * \frac{\sum_m^n m(X = OK)}{n} + MinP * \frac{\sum_m^n m(X = NOK)}{n}$$

Non:

- I_i da kalkulatu beharreko kalitate indizea
- $MaxP$ da aurkibideari eman dakiokeen gehieneko puntuazioa
- $MinP$ da aurkibideari eman dakiokeen gutxieneko puntuazioa
- n da laginaren tamaina
- $\sum_m^n m(X = OK)$ da aurkibidea positiboki baloratzen duten inkestatuen kopurua
- $\sum_m^n m(X = NOK)$ da aurkibidea negatiboki baloratzen duten inkestatuen kopurua

Aplikatu beharreko kalitate ehunekoa kalkulatzea

Kalkulatutako adierazleen emaitza gisa, 200 puntuko gehieneko puntuazioa eta –200 puntuko gutxieneko puntuazioa lortuko dira, bai eta adierazle neurgarrien eta hautemandako kalitate adierazleen artean banatutako puntuazioa ere.

$$PC = IIS + IP + IHS + IPP + ICA + IA + IS$$

Adierazle bakoitzaren emaitzaren batura osoa (adierazle neurgarriak eta jasotako adierazleak) zati 100 izango da likidazioaren emaitzan bidaiariek bildutako diru sarrerei aplikatu beharreko ehunekoa.

Atalase parametroen eta puntu esleigarrien definizioa

Adierazle neurgarriak	Azpiadierazlea	Atalase +	Atalasea –	Atalase – maximoa	Puntu gehienez	Puntu gutxienez
Zerbitzuaren hasiera 9:00ak arte betetzea (IIS)	Egindako zerbitzuen %	% 99,0	% 97,0	% 95,0	+ 30	- 30
	Irteera > 5 minutuko atzerapenarekin	% 10,0	% 15,0	% 18,0	+ 2,5	- 2,5
	Irteera aurreratua	% 5,0	% 8,0	% 10,0	+ 2,5	- 2,5
Parrilla betetzea (IP)		% 95,0	% 90,0	% 85,0	+ 35	- 35
Jatorrizko irteera ordua betetzea espedizio guztietarako (IHS)	Irteera orduan (5 minutura arte)	% 75,0	% 70,0	% 65,0	+ 15	- 15
	Irteera 5-15 minutuko atzerapenarekin	% 10,0	% 15,0	% 18,0	+ 5	- 5
	Irteera 15 minutu baino gehiagoko atzerapenarekin	% 7,0	% 10,0	% 15,0	+ 5	- 5
	Irteera aurreratua	% 5,0	% 8,0	% 10,0	+ 5	- 5

Adierazle neurgarriak	Puntu gehienez	Puntu gutxienez
Hautemandako puntualtasun indizea (IPP)	+ 25	- 25
Autobusen kalitatearen indizea (ICA)	+ 25	- 25
Segurtasun eta gidatze indizea (IS)	+ 25	- 25
Gidarien adeitasunaren indizea (IA)	+ 25	- 25

VI ERANSKINA

LURRALDEBUSEN IRUDIA

LURRALDEBUS

Lurraldebuseko irudi bateratua diseinatzeko proiektua
Proyecto de diseño unificado de Lurraldebus

ARAU OROKORRAK / NORMAS GENERALES

Markaren erabilera
Uso de la marca

Marka



Marca

Gehienezko txikiagotzea



Reducción máxima

Babeserako zona



L =X

Zona de protección

Hondoen gaineko erabilera

Marka nahiz hori osatzen duten elementuak kontraste ezin hobea bermatzen duten hondoen gainean joango dira beti.



Uso sobre fondos

Tanto la marca como los elementos que la componen siempre se situarán sobre fondos que garanticen un perfecto contraste.

Kolore korporatiboak
Colores corporativos

Markaren koloreak
Los colores de la marca

PANTONE: 376 C
CMYK: 50/0/100/0
RGB: 141/198/63
HEX: 8DC63F
RAL: 6018

% 75 % 50 % 25 % 13

PANTONE: 430 C
CMYK: 57/43/40/5
RGB: 120/129/135
HEX: 788187
RAL: 7031

% 75 % 50 % 25 % 13

Bigarren mailako koloreak
Colores secundarios

CMYK: 0/0/0/0
RGB: 255/255/255
HEX: FFFFFF
RAL: 9016

PANTONE: 320 C
CMYK: 100/0/32/7
RGB: 0/160/174
HEX: 00A0AE
RAL: 5018

% 50
% 25

PANTONE: 381 C
CMYK: 25/0/100/0
RGB: 203/219/42
HEX: CBDB2A
RAL Design: 110 80 70

% 60
% 30

PANTONE: 123 C
CMYK: 0/25/100/0
RGB: 255/194/14
HEX: FFC20E
RAL: 1021

% 60
% 30

Letra mota korporatiboak
Tipografías corporativas

LURRALDEBUSen elementu guztietarako Fira Sans familiako letra motak erabiliko dira; Fira Sans Bold euskaraz eta Fira Sans Regular gaztelaniaz.

En todos los elementos de LURRALDEBUS se hará uso de la familia Fira Sans; Fira Sans Bold en euskera y Fira Sans Regular en castellano.

FIRA SANS

BOLD

abcdefghijklmnñoqprstvuwxyz
ABCDEFGHIJIKLMNÑOPWRSTUVWXYZ
1234567890!”·$%&/#?¿=)

BOLD ITALIC

abcdefghijklmnñoqprstvuwxyz
ABCDEFGHIJIKLMNÑOPWRSTUVWXYZ
1234567890!”·$%&/#?¿=)

MEDIUM

abcdefghijklmnñoqprstvuwxyz
ABCDEFGHIJIKLMNÑOPWRSTUVWXYZ
1234567890!”·$%&/#?¿=)

MEDIUM ITALIC

abcdefghijklmnñoqprstvuwxyz
ABCDEFGHIJIKLMNÑOPWRSTUVWXYZ
1234567890!”·$%&/#?¿=)

REGULAR

abcdefghijklmnñoqprstvuwxyz
ABCDEFGHIJIKLMNÑOPWRSTUVWXYZ
1234567890!”·$%&/#?¿=)

REGULAR ITALIC

abcdefghijklmnñoqprstvuwxyz
ABCDEFGHIJIKLMNÑOPWRSTUVWXYZ
1234567890!”·$%&/#?¿=)

LIGHT

abcdefghijklmnñoqprstvuwxyz
ABCDEFGHIJIKLMNÑOPWRSTUVWXYZ
1234567890!”·$%&/#?¿=)

LIGHT ITALIC

abcdefghijklmnñoqprstvuwxyz
ABCDEFGHIJIKLMNÑOPWRSTUVWXYZ
1234567890!”·$%&/#?¿=)

Ordezkatzeko letra mota
Tipografía de sustitución

Euskarri digitaletan, Fira Sans familia erabiltzeko aukerarik ez balego, Arial familiagatik ordezkatuko litzateke.

En formatos digitales, si el empleo de la familia Fira Sans no fuese posible, se sustituiría por la familia Arial.

REGULAR

abcdefghijklmnñoqprstvuwxyz
ABCDEFGHIJIKLMNÑOPWRSTUVWXYZ
1234567890!”·$%&/#?¿=)

ITALIC

abcdefghijklmnñoqprstvuwxyz
ABCDEFGHIJIKLMNÑOPWRSTUVWXYZ
1234567890!”·$%&/#?¿=)

REGULAR

abcdefghijklmnñoqprstvuwxyz
ABCDEFGHIJIKLMNÑOPWRSTUVW
XYZ1234567890!”·$%&/#?¿=)

ITALIC

abcdefghijklmnñoqprstvuwxyz
ABCDEFGHIJIKLMNÑOPWRSTUVW
XYZ1234567890!”·$%&/#?¿=)

Hizkuntza ikonografikoa
Lenguaje iconográfico

Zerbitzu bereziak



Gauekoa
Nocturno



Berezia
Especial



Eskaripekoa
Bajo demanda

Servicios especiales

Berezitasunak



Autobidea
Autopista



Ospitalea
Hospital



Futbola
Fútbol



Unibertsitatea (EHU)
Universidad (UPV)




Aireportua
Aeropuerto



Jaiak
Fiestas


Características

Geziak



Flechas

Lerroak eta geralekuak



Líneas y paradas

Autobus lineen izendapena
Denominación de las líneas de autobuses

Lurraldebuseko irudia aldatzeko edo egokitzeko orduan beste elementu bat ere kontuan hartu dugu, eta hori autobus zerbitzu edo lineen izendapena da. Izan ere, orain arte zerbitzua eskaintzeko emakida zuen enpresa bakoitzak bere erara izendatzen zituen lineak eta zerbitzuak, eta herritarrek ezin zuten linea horien izendapenen logika ulertu eta datu esanguratsuak emateko aukera galdu egiten zen. Aurrerantzean, ordea, Gipuzkoako herri arteko autobus zerbitzu guztiak molde beraren arabera izendatuko dira, zerbitzuari bateratasun itxura emanez eta, aldiz berean, erabiltzaileari informazio gehigarria emanez.

Izendapena zehazterako orduan, honako irizpideak ezarri ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak:

1. Lehenengo eskualdea adierazteko bi letrak,

2. Ondoren, linearen zenbakiko bi digituak.

3. Berezitasunen bat duten zerbitzuen kasuan letra bat gehituko zaio, berezitasuna adierazteko.

Hona hemen hiru elementu edo osagai horien arabera zehaztu diren izendapenak:

1. Eskualdeak

Tolosaldea: TO
Debagoiena: DG
Buruntzaldea: BU
Debabarrena: DB
Urolako-Kosta: UK
Goierri: GO
Oarsoaldea: OA
Bidasoaldea: BI
Donostia: DO

2. Ibilbideen zenbakiak

Arruntak (1-19): Zenbaki arruntak 1etik hasi eta 19ra arte. 1etik 9ra artekoak 01, 02, 03... izendatuko dira, era horretan autobus linea guztien zenbakiek bi digitu izan ditzaten.

Eskaripekoak (20-39): Eskaripeko zerbitzuak izendatzeko 20 eta 39 arteko zenbakiak erabiliko dira.

Gauekoak (40-49): Gaueko zerbitzuak izendatzeko 40 eta 49 arteko zenbakiak erabiliko dira

Bereziak (50-69): Loiuko, Futboleko, ekitaldi berezietako eta antzeko zerbitzuak izendatzeko 50 eta 69 arteko zenbakiak erabiliko dira.

A la hora de modificar o adaptar la imagen de Lurraldebus se ha tenido en cuenta, entre otros, la denominación de los servicios o líneas. De hecho, hasta ahora cada empresa adjudicataria denominaba a sus líneas y servicios de manera independiente, con lo cual los usuarios no entendían la lógica de dichas denominaciones, y se perdía la oportunidad de ofrecer datos significativos. En adelante, sin embargo, todos los servicios interurbanos de Gipuzkoa se denominarán siguiendo los mismos criterios, dando una imagen de unidad y, al mismo tiempo, ofreciendo al usuario una información complementaria.

La Diputación Foral de Gipuzkoa ha establecido los siguientes criterios para la denominación de las líneas:

1. Las primeras dos letras indican la comarca.

2. Los dos dígitos que van a continuación corresponden a la línea.

3. En el caso de los servicios que tengan una característica especial se les añadirá una letra, para indicar ese rasgo distintivo.

Estas son las denominaciones en función de estos tres elementos o componentes:

1. Comarcas

Tolosaldea: TO
Debagoiena: DG
Buruntzaldea: BU
Debabarrena: DB
Urolako-Kosta: UK
Goierri: GO
Oarsoaldea: OA
Bidasoaldea: BI
Donostia: DO

2. Dígitos de los recorridos

Ordinarios (1-19): números naturales, del 1 al 19; del 1 al 9 se denominarán 01, 02, 03... para que así todas las líneas tengan dos dígitos.

Bajo demanda (20-39): para denominar los servicios bajo demanda se utilizarán los números comprendidos entre el 20 y el 39.

Nocturnos (40-49): para denominar los servicios nocturnos se utilizarán los números comprendidos entre el 40 y el 49.

Especiales (50-69): para denominar los servicios a Loiu, al futbol, a actos especiales y eventos similares se utilizarán los números comprendidos entre el 50 y el 69.

3. Zerbitzu berezien adierazleak

Zenbakiak ezartzerakoan ikus daitekeenez, zerbitzu batzuk arruntak dira eta beste batzuek berezitasunak dituzte, eta berezitasun hori zenbakiaren bidez azaltzeaz gain, bestelako isla izango du izendapenean. Horregatik, zerbitzu horietan eskualdea eta zenbakia agertzeaz gain, berezitasun hori adierazteko letra gehituko zaio bukaeran. Hona hemen zehaztu diren zerbitzu berezi motak eta haiek adierazteko aukeratutako letra.

Eskaripekoak: Eskaripeko zerbitzuak izendatzeko E letra erabiliko da. Esaterako, Goierriko eskaripeko zerbitzu bat izendatzeko formula hau erabiliko litzateke: GO22E. Hau da, GO (Goierri) + 22 (eskaripeko zerbitzuen tarteko zenbaki bat, tartea 20tik 39rakoa baita) + E (eskaripeko zerbitzuak adierazteko letra).

Gauekoak: Gaueko zerbitzuak izendatzeko G letra erabiliko da.

Bereziak: Bestelako zerbitzu bereziak adierazteko B letra erabiliko da.

Zerbitzu bereziak adierazteko ikurrak edo ikonoak ere izango dira (gauekoak, aireportua, autopista, ospitalea...), baina horiek ez dira izendapenean bertan erabiliko, baizik eta haien lagungarri gisa ordutegien paneletan, webgunean eta beste hainbat euskarritan. Ikur horietako batzuk zerbitzu bereziak adierazteko izango dira eta beste batzuk zerbitzu arrunten berezitasunen bat adierazteko (ibilbidea autopistatik egiten duela; ospitalera joaten dela...) erabiliko dira.

Linea edo zerbitzu berrien kasuan irizpide hauek erabiliko dira lineen izendapena zehazterako orduan, eta jada martxan dauden lineen kasuan, izendapen berria ezartzeko orduan erabiltzaileentzat aldaketa txikiena eragingo lukeen izendapenaren aldeko hautua egingo da. Ikus dezagun adibide baten bidez: Gaur egun Ekialdebus enpresak kudeatzen duen Pasai Donibane-Errenteria-Donostia linearen izendapena E01 da, eta izendapen berriarekin OA-01 izango da; hau da, eskualdeko erreferentzia jarriko zaio, baina zenbakia mantendu egingo da.

3. Indicadores de servicios especiales

Como se puede apreciar en la asignación de los números, algunos servicios son ordinarios y otros tienen características especiales; en estos casos, además de representar ese rasgo distintivo mediante un número, se verá reflejado de otra manera en la denominación. Por ello, además de constar la comarca y el número, se le añadirá una letra al final para indicar el carácter especial del servicio. Estos son los servicios especiales que se ofrecerán y las letras que se utilizarán para representarlos:

Servicios bajo demanda: se utilizará la letra E. Por ejemplo, para indicar un servicio bajo demanda del Goierri, se utilizaría la siguiente fórmula: GO22E. Es decir, GO (Goierri) + 22 (correspondiente a los servicios bajo demanda, que van del 20 al 39) + E (letra para denominar los servicios bajo demanda).

Servicios nocturnos: se utilizará la letra G.

Otros servicios especiales: se utilizará la letra B.


También se utilizarán símbolos o iconos para representar servicios de carácter especial (nocturnos, aeropuerto, autopista, hospital...), pero no se utilizarán en la denominación, sino en paneles de horarios, sitios web y otros soportes, de manera auxiliar. Algunos de esos iconos representarán servicios especiales, y otros, indicaran alguna característica especial de los servicios ordinarios (autopista, hospital...)

En caso de nuevas líneas o servicios se utilizarán los citados criterios para indicar la denominación de la línea, y en caso de líneas que ya estén en marcha, al establecer la nueva denominación se optará por la denominación que suponga un menor cambio. Por ejemplo: la linea Pasai Donibane-Errenteria-Donostia que actualmente gestiona Ekialdebus tiene el código E01, y con la nueva denominación será OA-01; es decir, se pondrá la referencia de la comarca, pero se mantendrá el número.

APLIKAZIOAK / APLICACIONES

Ordutegi panelak
Paneles de horarios

Autobus lineen izendapena
Denominación de las líneas de autobuses






Lineen berezitasunak
Características de las líneas



Gehienezko txikiagotzea



Goiburukoa eta oina
Encabezado y pie



Telefonoa jartzea hautazkoa da. Fira Sans





TO10

LURRALDEBUS

Tolosa > Villabona > Donostia

GO10

LURRALDEBUS

Ataun > Beasain > Ordizia

DG10

LURRALDEBUS

Arrasate > Oñati > Bergara > Donostia

OA10

LURRALDEBUS

Oiartzun > Errenteria > Kaputxinoak > Donostia

BU10

LURRALDEBUS

Andoain > Urnieta > Hernani > Donostia

BI10

LURRALDEBUS

Hondarribia > Irun > Errenteria > P. Antxo > Donostia

DB10

LURRALDEBUS

Eibar > Soraluze > Mendaro

DO10

LURRALDEBUS

Donostia > Bilbo

Ordutegia - Lehen aukera
Horario - Primera opción

Linea izendapena
Denominación de la línea

Linearen irteera eta helmuga
Salida y llegada

Oharra / Aviso

Egun mota / Tipo de día

Geralekuak / Paradas

Orduak / Horas

Argibideak / Aclaraciones

Irteera / Salida

Herria / Localidad

Geralekuak / Paradas

Irteera / Salida

BU06

LURRALDEBUS

Hernani > Urbil > Lasarte > Zubieta > Usurbil

Trafikoa dela eta, igarotzeko orduak gutxi gorabeherakoak dira. Por razones de tráfico las horas de paso son aproximadas.

Lanegunak Laborables

HERNANI	URBIL	LASARTE NAGUSIA	ZUBIETA	USURBIL	USURBIL	ZUBIETA	LASARTE NAGUSIA	URBIL	HERNANI
		07:00	07:05	07:15	07:15	07:25	07:30	07:35	07:45
07:45	07:55	08:00	08:05	08:15	08:15	08:25	08:30	08:35	08:45
08:45	08:55	09:00	09:05	09:15	09:15	09:25	09:30	09:35	09:45
09:45	09:55	10:00	10: 05	10:15	10:15	10:25	10:30		
		11:00	11:05	11:15	11:15	11:25	11:30	11:35	11:45
11:45	11:55	12:00	12:05	12:15	12:15	12:25	12:30	12:35	12:45
12:45	12:55	13:00	13:05	13:15	13:15	13:25	13:30	13:35	13:45
13:45	13:55	14:00	14 :05	14 :15	14 :15	14:25	14:30	14:35	14:45
14:45	14:55	15:00	15:05	15 :15	15 :15	15:25	15:30	15:35	15:45
15:45	15:55	16:00	16 :05	16 :15	16 :15	16:25	16:30	16:35	16:45
16:45	16:55	17:00	17 :05	17 :15	17 :15	17:25	17:30		
		18:00	18 :05	18 :15	18 :15	18:25	18:30	18:35	18:45
18:45	18:55	19:00	19:05	19:15	19:15	19:25	19:30	19:35	19:45
19:45	19:55	20:00	20:05	20:15	20:15	20:25	20:30	20:35	20:45
20:45	20:55	21:00	21:05	21:15	21:15	21:25	21:30		

Jaiegunetan grisez markatutako ordutegia Festivos horario marcado en gris

Eskaripeko geltokia Parada bajo demanda

Eskaripeko ordutegia Horario bajo demanda



tsst

www.lurraldebus.net

Ordutegia - Bigarren aukera
Horario - Segunda opción

Linea izendapena / Denominación de la línea

Linearen irteera eta helmuga / Salida y llegada

Oharra / Aviso

Ordutegi mota / Tipo de horario

Egun mota / Tipo de día

Irteera / Salida

Orduak / Horas

Argibideak / Aclaraciones

Irteera / Salida

Orduak / Horas

Argibideak / Aclaraciones

Egun mota / Tipo de día

Zerbitzu alternatiboak / Servicios alternativos

Irteera / Salida

Geralekuak / Paradas

Irteera / Salida

BI05

LURRALDEBUS

Hondarribia > Irun (F. Calbetón)

Trafikoa dela eta, igarotzeko orduak gutxi gorabeherakoak dira. Por razones de tráfico las horas de paso son aproximadas.

NEGUA INVIERNO

Astelehenetik ostiralera (lanegunak) De lunes a viernes (laborables)

HONDARRIBIA

06:00	06:20	06:40	06:50	07:05	07:20	07:35	07:50	08:05	08:20	08:35
08:50	09:05	09:20	09:35	09:50	10:05	10:20	10:35	10:50	11:05	11:20
11:35	11:50	12:05	12:20	12:35	12:50	13:05	13:20	13:35	13:50	14:05
14:20	14:35	14:50	15:05	15:20	15:35	15:50	16:05	16:20	16:35	16:50
17:05	17:20	17:35	17:50	18:05	18:20	18:35	18:50	19:05	19:20	19:35
19:50	20:05	20:20	20:35	20:50	21:05	21:20	21:40	22:00	22:20	22:45

Lurgorritik irteerak kolore laranjan. Salidas desde Lurgorri en naranja.

IRUN - F. Calbetón

06:00	06:20	06:40	06:50	07:05	07:20	07:35	07:50	08:05	08:20	08:35
08:50	09:05	09:20	09:35	09:50	10:05	10:20	10:35	10:50	11:05	11:20
11:35	11:50	12:05	12:20	12:35	12:50	13:05	13:20	13:35	13:50	14:05
14:20	14:35	14:50	15:05	15:20	15:35	15:50	16:05	16:20	16:35	16:50
17:05	17:20	17:35	17:50	18:05	18:20	18:35	18:50	19:05	19:20	19:35
19:50	20:05	20:20	20:35	20:50	21:05	21:20	21:40	22:00	22:20	22:45

Por **Aeropuerto - Marina - Arroka-tik**

Por **Aeropuerto - Marina - Lurgorri-tik**

Por **Kosta - Baserritar - Arroka-tik**

Por **Kosta - Marina - Lurgorri-tik**

Larunbat, igande eta jaiegunak Sábados, domingos y festivos

HONDARRIBIA

06:00	06:20	06:40	06:50	07:05	07:20	07:35	07:50	08:05	08:20	08:35
08:50	09:05	09:20	09:35	09:50	10:05	10:20	10:35	10:50	11:05	11:20
11:35	11:50	12:05	12:20	12:35	12:50	13:05	13:20	13:35	13:50	14:05
14:20	14:35	14:50	15:05	15:20	15:35	15:50	16:05	16:20	16:35	16:50
17:05	17:20	17:35	17:50	18:05	18:20	18:35	18:50	19:05	19:20	19:35
19:50	20:05	20:20	20:35	20:50	21:05	21:20	21:40			

Lurgorritik irteerak kolore laranjan. Salidas desde Lurgorri en naranja.

IRUN - F. Calbetón

06:00	06:20	06:40	06:50	07:05	07:20	07:35	07:50	08:05	08:20	08:35
08:50	09:05	09:20	09:35	09:50	10:05	10:20	10:35	10:50	11:05	11:20
11:35	11:50	12:05	12:20	12:35	12:50	13:05	13:20	13:35	13:50	14:05
14:20	14:35	14:50	15:05	15:20	15:35	15:50	16:05	16:20	16:35	16:50
17:05	17:20	17:35	17:50	18:05	18:20	18:35	18:50	19:05	19:20	19:35
19:50	20:05	20:20	20:35	20:50	21:05	21:20				

Por **Aeropuerto - Marina - Arroka-tik**

Por **Aeropuerto - Marina - Lurgorri-tik**

Por **Kosta - Baserritar - Arroka-tik**

Por **Kosta - Marina - Lurgorri-tik**

GAUEKOAK
NOCTURNOS

BI47G BI48G



ekialdebus | www.lurraldebus.net

Kolore paleta
Paleta de colores

Geralekuen eta ordutegi motaren testua + Egun motaren hondoa
Texto de paradas y tipo de horario + Fondo de tipo de día

% 100

PANTONE 430 C

Hondoa
Fondo

% 13

PANTONE 430 C

Ordutegiko geralekuen eta orduen hondoa
Fondo de las paradas y las horas del horario

Zuria / Blanco

Hostoen hondoa + Lineen lerroa
Fondo de las hojas + Trazo de las líneas

PANTONE 376 C

Orduak nabarmentzeko hondoko koloreak
Colores de fondo para destacar las horas

% 50

PANTONE 320 C

% 50

PANTONE 430 C

% 75

PANTONE 376 C

% 60


PANTONE 123 C

% 60

PANTONE 381 C

Ordutegia zuri beltzean jartzeko beharra balego, ikus kontrastea eta ulergarritasuna bermatu beharko lirateke.

Si hubiese necesidad de poner el horario en blanco y negro, se deberían garantizar el contraste visual y la comprensibilidad.



Autobusak
Autobuses

Kolore korporatiboak
Colores corporativos

PANTONE: 320 C
RAL: 5018*
BINILOA (Avery 800 Premium Cast): 831 Turquoise

CMYK: 0/0/0/0
RAL: 9016*
BINILOA (3M): SC 80-10 White

PANTONE: 430 C
RAL: 7031*
BINILOA (3M): SC 80-1833 Fossil Grey


PANTONE: 376 C
RAL: 6018*
BINILOA (3M): SC 80-719 Apple Green

PANTONE: 381 C
RAL Design: 110 80 70*
BINILOA (3M): SC 80-449 Lime Green


PANTONE: 123 C
RAL: 1021*
BINILOA (3M): SC 80-2550 Golden Yellow


*** Bi osagaiko geruza bakarreko pintura akrilikoa** / Pintura acrílica monocapa de dos componentes

Ereduak
Ejemplos











Autobuseko gidariaren aldean, aurrealdean, linea kudeatzen duen enpresaren marka jarri ahalko da. Marka gehienez 30 cm zabal izango da eta 20 cm luze.

En el lateral del lado del conductor, en la parte delantera, se podrá situar la marca de la empresa que gestiona la línea. Esta tendrá como máximo 30 cm de ancho o 20 cm de altura.










Publizitatea
Publicidad

Autobusen atzekaldean publizitatea sartzeko aukera izango da, modelo bakoitzarentzat zehaztutako eremuan.

Habrá posibilidad de insertar publicidad en la parte trasera de los autobuses, en la zona especificada para cada modelo.





Autobusen barrualdeko pantailetan ere publizitatea sartzeko aukera aurreikusten da.

También se prevé la posibilidad de insertar publicidad en las pantallas de los autobuses.

Irudi bateratu bat mantentzeko, beharrezkoa da sortzen diren edukiek (Lurraldebusen publizitatea edo informazioa) proiektu honetan orain arte azaldutako irizpideak jarraitzea, guztiak Lurraldebusenak direla antzeman dadin.

A fin de mantener una imagen unificada, es necesario que los contenidos creados (información o publicidad de Lurraldebus) sigan los criterios especificados hasta ahora en este proyecto, para que se identifique que pertenecen a Lurraldebus.

Adibidea

Ejemplo



Amaierako animazioa


Animación de cierre







Osagai grafikoak
Elementos gráficos







Osagai grafikoak konposaketa ezberdinak sortzeko konbinatzen dira, euskarrietara egokitzeko eta komunikazio piezak ilustratzeko helburuarekin.

Los elementos gráficos se van combinando para realizar diferentes composiciones que servirán para adaptarse a los soportes y para ilustrar las piezas de comunicación.

LURRALDEBUS

BIT&MINAk garatutako proiektua
Proyecto realizado por BIT&MINA

VII.1 ERANSKINA

Errepideko Bidaiarien Garraioko Zerbitzu Publiko Erregularrak Harmonizatzeko Erregelamendua (Bertsio Finkatua)

ZIOEN AZALPENA

I. Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio publiko kolektibo kolektiboan tarifa-sistema bateratua ezartzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Donostia, Irun eta Errenteriako udalek, Eusko Trenbideak - Ferrocarriles Vascos, SAk, RENFE-Operadora enpresa-erakunde publikoak eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintzak 2012ko otsailaren 20an sinatutako lankidetzarako protokolo orokorrean, Gipuzkoan garraio publiko kolektiboan tarifa-sistema bateratua ezartzea sustatzeko lankidetzarako esparru orokorra ezarri zen.

2013ko martxoaren 4an, Gipuzkoako lurraldeko tarifa-sistema bateratua ezarri zen, eta horretarako abiapuntua txartel bakarraren eredua eta oinarri teknologikoa izan ziren, Gipuzkoako Foru Aldundiak LURRALDEBUS marka erabilita arrakastaz garaturik.

Tarifa-sistema bateratua MUGI txartelaren inguruan eratuta dago; txartelari esker, titularrak bidaiatu dezake sistemari atxikitako edozein garraio-eragilerekin, partekatua den zonakapen baten arabera, tarifa bateratuak, talde berezi bateratuak eta hobaria duten garraio-aldaketak ahalbidetzeko politikak erabilita.

Gaur egun, tarifa-sistema bateratuari atxikita daude Gipuzkoako Foru Aldundiaren emakida duten garraio-eragileak, LURRALDEBUS markaren barruan elkartuta, Donostia, Irun, Errenteria, Eibar, Arrasate, Zarautz eta Hernani udalerrietako hiri- barneko autobusak eta Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, SA, eta, horiez gain, RENFE trenbideko garraio-eragilea eta Oiartzungo hiri-barneko autobusa. Azken bi hauetan, erabiltzaileek tarifa-sistema bateratua erabil dezakete garraio-zerbitzua erabiltzeko ordainketa-baliabide moduan.

Tarifa bateratuaren bidez lortu nahi diren helburuak honako hauek dira: Gipuzkoako garraio publiko kolektiboa erabiltzaile guztientzat erakargarriagoa den sistema bihurtzea, erraz ulertzeko moduko eta erabiltzaileek onartutako printzipioetan oinarritutako tarifa-sistema bat ezartzea, eta garraio publiko kolektiboaren sistema sare bateratu moduan hautematea, horren guztiaren xede nagusia delarik iraunkorragoa den eta ibilgailu pribatuaren mendekotasun txikiagoa duen mugikortasuna sustatzea.

II. Tarifa-sistema bateratuaren ondorioa den garraio publikoaren ingurune berria aztertuta egiaztatu ahal izan dugu beharrezkoa dela zerbitzua arautzen duten arauak onartu eta egokitu edo aldatzea, gipuzkoarrek eskubide eta betebehar berberak izan ditzaten, garraioaren eskumena duen titularra edo zerbitzua ematen duena edozein dela ere. Halaber, garraio-eragile guztiek arau-esparru bakar baten barruan emango dute zerbitzua. Partekatutako arau-esparru horrek garraio-eragileak diren enpresen betebeharrak ezarriko ditu, eta orain arte araudirik ez zegoelako edo izatezko hipotesi batzuk ez aurreikusteagatik zeuden hutsuneak konpondu egingo ditu, eta zerbitzua emateko orduan behar den segurtasun juridikoa emango die aipatutako eragileei.

Erregelamendu hau oinarrituta dago Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio publiko kolektiboan tarifa-sistema bateratua ezartzeko Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzako kontsortziokideak diren erakundeek sinatutako lankidetza hitzarmenetan; bertan, berariaz xedatzen da erakunde horiek konpromisoa hartzen dutela Gipuzkoako Lurralde Historikoko bidaiarien garraio publikoko zerbitzua arautzen duen araudia harmonizatzeko egokiak diren jarduerak hasteko.

Erregelamendu honen xedea da Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen titulartasunekoak diren bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularraren ematea era bateratu eta homogeneoan arautzea.

Erregelamendu hau ezargarria izango zaie garraio publikoko zerbitzua erabiltzen duten erabiltzaileei eta zerbitzu hori ematen duten garraio-eragileei.

III. Garraio publikoaren jarduera herritarren zerbitzura bideratuta egon behar da, zerbitzu erregular, maiztasunezkoa, puntuala, azkarra, autobus-aldaketa ahalbidetzen duena, erosoa eta segurua eskaintzea lortzeko, informazioa formatu egokietan eskaintzen duena, guztientzako diseinuaren printzipioak markatutako arauei jarraituz, eta zerbitzuaren egoera zehatzen arabera egokiena dena.

Gipuzkoako gizartearen bilakaeraren ondorioz, eskakizun berriak sortu dira garraio publikoko zerbitzuan: irisgarritasun unibertsalari eta mugikortasun murriztuari lotutakoak, haur-kotxe eta -aulkiak sartzeko modua antolatzeko beharra, bizikletak edo etxeko animaliak sartzea baimentzeko aukera, biztanle-dentsitate txikiari edo eskaera-maila baxuari erantzuna emateko zerbitzuak, bakar batzuk adieraztearren. Eskaera horiei erantzuna eman nahi diegu Erregelamendu honetako artikuluen bidez, zerbitzuaren titularrak diren administrazioek apustu argi bat eginda, pertsona guztiek garraio publikoa erabiltzea ahalbidetzen duen zerbitzu unibertsala sustatzeko, denok ibilgailu pribatua erabili behar izan gabe dugun mugikortasunerako eskubidea erabiliz.

Mugikortasuna oinarrizko eskubidea da herritar guztientzat, eta zerbitzua edozein pertsonarentzat irisgarria, ingurune abegitsuan eskainia eta guztientzat seguru eta

erosoa izateak eragina du gizarte osoaren bizi-kalitatean. Diseinu unibertsala onuragarria da adin guztietako eta gaitasun guztietako pertsona guztientzat.

Erregelamendu honen xedea da garraio-zerbitzua edozein pertsonarentzat irisgarria izango dela bermatzea, pertsonek mugikortasun-arazoak, zentzumen- komunikaziorako arazoak, pertzepzio-arazoak zein dibertsitate kognitibo edo mentaleko arazoak izan edo ez.

Garraio publikoaren bidez mugikortasun irisgarria bermatzeko oinarria bidaiarien mugikortasun-kateko espazio eta une bakoitzean ezartzen diren irisgarritasun unibertsalerako baldintzak eta zehaztasunak lortu eta betetzea da, eta kate hori honela eratuta dago: azpiegitura edo instalazio finkoak (adibidez, geltokiak edo markesinak), ibilgailuak, bien arteko lotura, informazio-, seinaleztapen- eta orientazio-sistemak, eta, azkenik, berez zerbitzua dena ematea.

IV. Erregelamendua, bestalde, honela egituratuta dago: Atariko Titulua eta bost titulu gehiago, bi xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.

V. Erregelamenduan berariaz jaso nahi izan dugu irisgarritasun unibertsalari buruzko berariazko titulu bat, I. Titulua, hain zuzen ere, eta bertan bereizi egin dira irisgarritasun unibertsalaren eta mugikortasun murriztuaren kontzeptuak.

Ildo horretan, erregelamenduan xedatzen da garraio-zerbitzu publikoaren titularrak diren administrazioek eskura dituzten tresna guztiak erabili behar dituztela pertsonen irisgarritasuna eta mugikortasuna bermatzeko, eta, horrela, pertsona guztiek, eta bereziki mugikortasun murriztua, komunikatzeko zailtasuna edo bestelako muga psikiko edo sentsoriala dutenek, aldi baterako edo behin betiko izan, garraio-zerbitzua erabili eta gozatu ahal izango dutela bermatzeko. Irisgarritasuna funtsezko eta ezinbesteko elementua da desgaitasuna eta mendekotasuna duten pertsonen eskubideak erabat eraginkorrak izan daitezen.

Egungo gizartean, bizi-itxaropena handituz doa etengabe, eta hala, pertsona ugarik istripu edo gaixotasunen ondorioz murriztua dute mugitzeko eta komunikatzeko gaitasuna, eta halaber, pertsona ugarik, egoeraren arabera, mugikortasun mugatua dute. Gizartea bera da garraioan irisgarritasun-baldintzen hobekuntza eskatzen duena, horrek pertsona horien eta, oro har, gizartearen bizi-kalitate hobea ekarriko baitu.

8. artikuluan, erabiltzaileen bizitzan norberaren egoera iraunkorraren edo behin-behinekoaren arabera mugikortasun murriztuko pertsonatzat hartzen diren pertsona multzoen zerrenda bat jaso dugu. Artikuluaren barruan, desgaitasunaren eta mendekotasunaren legezko definizioa gainditua, oro har, inguruabar pertsonalak direla kausa beren burua edo hirugarrenak arriskuan jarri gabe zutik bidaiatu ezin duten pertsonak sartu dira, eta lehentasunerako araubide argia ezarri

da erreserbatutako espazio eta eserlekuetan. Halaber, ibilgailuetan sartzeko lehentasun-araubidea ezarri da, eta, hala, erabiltzaileen zein gidarien arau-hauste bezala tipifikatu da mugikortasun murriztua duten pertsonei erreserbatutako plaza horiek okupatzen ez uztea.

Ildo berean, aurretiazko erreserbarako araubide bat ezarri da ibilbide luzeko bidaietan, aulki gurpildunean lekualdatu behar diren pertsonentzat, eta, hala, zerbitzuaren titularra den administrazioak ordezko garraioa bermatuko dio erabiltzaileari, aurretiazko erreserba egin eta gero, erreserbatutako plaza edo espazioaren eskaerari garraio-enpresa eragileak erantzun ezin dionean.

Zerbitzuaren titularrak diren administrazioek, mugikortasun murriztua duten pertsonek gastu gehigarria izaten dutela jakinda –zenbaitetan lagunduta bidaiatu behar baitute–, berariazko tarifa-araubide bat ezarri dute, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuak emandako mendekotasun-txartela duten pertsonen laguntzaileentzat, Mugi txartelarekin ordaintzen/baliozkotzen dutenean; eta, hala, doan bidaiatu ahal izango dute. Ekintza positibozko neurri horren bidez, garraio publikora bakarrik iristeko autonomiarik ez duten pertsonen desabantaila ekonomikoak konpentsatu nahi dira.

Erregelamenduan arabera, zerbitzuaren titularrak diren administrazioek sustatuko dute garraio-enpresa eragileek erabiltzaileei zuzentzen dieten informazioa formatu egokietan eskaintzea, pertsona guztientzat irisgarri eta ulerterrazak izan daitezen, irisgarritasun kognitiboaren ildoei jarraituz. Halaber, arreta-zerbitzuetan eta web orrialdeetan, komunikaziorako laguntzak eta zerbitzu osagarriak ematea sustatuko du, hala nola, sistema handigarriak eta hautabidezkoak, ahoz eta zeinu-hizkuntzaz komunikatzeko sistema laguntzaileak, ukimen-komunikazioko sistemak eta beste gailu batzuk, pertsona guztiei komunikazioa ahalbidetzeko, eta dena pixkanaka- pixkanaka, gaiaren konplexutasuna kontuan hartuta.

Azkenik, aurreikuspen bat sartu da, alegia, zerbitzuaren titularrak diren administrazioek autobusetako eta, hala badagokio, geltokietako gailu akustikoak aktibatzeko beharrezkoak diren urrutiko aginteen banaketa sustatzea, hala eskatzen duten pertsonen artean.

II. Tituluan, garraio-zerbitzua erabiltzean bidaiariek dituzten eskubide eta betebeharrei buruzkoan, erabiltzaileen interes askotarikoak kontuan hartu nahi izan dira, bizitza pertsonal eta profesionalaren beharrei erantzun ahal izateko.

Gipuzkoako errealitate soziolinguistikoarekin bat, erabiltzaileen hizkuntz eskubideak ere kontuan hartu dira, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen erabilerari dagokionean, eta eskubide horiek bermatu egin behar dituzte bai zerbitzuaren titularrak diren administrazioek, bai garraio-enpresa eragileek.

Erregelamenduaren bidez, haur txikiak dituzten familien betebeharrei erantzun nahi zaie,

familia-bizitza eta bizitza profesionala bateratzeko zailtasun handiak

dituztenean. Era horretan, ahalbidetu egin da heldu batek 6 urtetik beherako 4 adingaberekin batera bidaiatzea eta adin horretatik aurrerako haurrek bakarrik bidaiatu ahal izatea, guraso edo tutoreek horretarako baimena ematen badiete. Nolanahi ere, ohiz kanpoko edozein egoera edo adingabeenganako arretarik eza hautemanez gero, gidariek horretarako gaitutako mekanismoak erabili ahal izango dituzte. Neurri horien bidez, familia eta lanbidea bateratzeko erraztasunak eman nahi dira eta, halaber, udalerri txikietan orokorra den jardun bat islatzea, izan ere, bertan, hiri-barneko garraioa ikastetxeetara joateko ohiko bitartekoa da.

Garraio iraunkorra eta modu-artekotasuna sustatzeko xedez, bizikletak eramaten dituzten pertsonak sartu ahal izango dira dituzten ezaugarrien arabera hala ahalbidetzen duten ibilgailuetan, zerbitzuaren egoera kontuan hartuta, eta lurraldeko goi-eremuetako linea eta geltokietan. Hala eta guztiz ere, herritarrei aldez aurretik iragarrita, zerbitzuaren titularra den administrazioak mugak jarri ahal izango ditu, egun jakin batzuetan edo ekitaldi jakinak daudenean.

Ildo horretan, halaber, tolestutako bizikletak eskuko fardel edo ekipajetzat hartuko dira, ondorio guztietarako.

Erabiltzaileak izan daitezkeen pertsonen dibertsitatea errespetatzeko, eta Europako gainerako herrialdeetan zein Estatuko beste hiri batzuetan dauden azken joerekin bat, baimendu ahal izango da etxeko animaliek lagunduta doazen pertsonek bidaiatzea. Maskota-kopurua, eta bereziki txakur-kopurua, etengabe eta biztanleriaren adina igotzearekin batera handitzen ari dela jakitun izanik, garraio- zerbitzuaren titularrak diren administrazioek txakur eta katuak eramatea baimentzeko apustua egin dute, eta kasu zehatz batzuetan, tamaina txikiko beste animaliaren bat ere bai.

Hala eta guztiz ere, hainbat baldintza ezarri dira etxeko animaliak garraiatzeko, gainerako erabiltzaileen konfort- eta erosotasun-baldintzak errespetatu eta animalien ardura dutenek erantzun dezaten animaliek sor ditzaketen kalte edo bestelako gorabeheren aurrean.

Zerbitzua normaltasunez emateko orduan, erabiltzaileen interes kontrajarriek zailtasunak edo haserrealdiak sor ditzaketela jakinda, erregelamenduaren bidez gidarien irudia nabarmendu nahi izan da, eta, hala, gidariaren irizpidea izango da nagusitzen dena erabiltzaileen artean edo erabiltzaileen eta garraio-enpresa eragileetako langileen artean desadostasunak gertatuz gero.

III. Tituluan, garraio-enpresa eragileen betebeharrak jaso dira. Berriro ere pertsona guztien irisgarritasuna bermatzeko helburuaz, erregelamenduaren bidez ezarri da zerbitzua emateari buruzko informazio guztiak modu irisgarrian eskaintzeko betebeharra; hala ere, betebehar hori arian-arian beteko da, gaiaren konplexutasun teknikoa kontuan hartuta.

IV. Tituluan, garraio-tituluari buruzkoan, Gipuzkoan 2013ko martxoaren 4an ezarri ziren tarifa bateratuen ondorioa den egoera berriari erantzuna emateko, txartela

sartu da tarifa-sistema bateratuko tituluen barruan, eta tarifa-izaerako aparteko errekargu bat sortzea aurreikusi da. Txartel pertsonalizatuak behar bezala ez erabiltzeagatik jarriko diren zigorren araubidea ezarri da, eta berariaz bidaltzen da Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak onartu eta 2014ko apirilaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren Gipuzkoako Lurralde Historikoan Tarifa Sistema Bateratua kontratatzeko eta erabiltzeko Baldintza Orokorretara.

V. Tituluan, erregelamendu honetan zehaztutako betebeharrak ez betetzeagatik ezarriko den zehapen-araubidea aurreikusten da.

Amaitzeko, erregelamenduan, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan jarraipen-batzorde bat sortzea erabaki da, honela osatuta egongo dena: kontsortzioko kide diren administrazioen ordezkariak, garraio-enpresen ordezkariak, eta mugikortasuna mugatua duten edo bestelako mugaketa psikiko edo sentsoriala duten pertsonen alde lan egiten duten elkarteen ordezkariak. Kontsulta-izaera izango duen batzorde horrek erregelamendu hau bete eta garatuko dela zainduko du, eta, egokia bada, Gipuzkoako gizartearen eskakizunei behar bezala erantzun ahal izateko testuak behar dituen aldaketak proposatuko ditu.

Erregelamendu hau idazteko prozesuan, zuzenean eraginda dauden taldeek parte hartu dute.

ATARIKO TITULUA

1. artikulua. *Erregelamenduaren xedea eta erregelamendua ezartzeko eremua*

Erregelamendu honen xedea da Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen titulartasunekoak diren bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularraren ematea era bateratu eta homogeneoan arautzea.

Erregelamendu hau ezargarria izango zaie adierazitako garraio publikoko zerbitzua erabiltzen dituzten pertsonei eta zerbitzu hori ematen duten garraio-enpresa eragileei.

2. artikulua. *Zerbitzuaren izaera publikoa*

Bidaiarien garraio-zerbitzua izaera publikokoa da, eta, hortaz, garraioa erabiltzeko eskubidea izango dute hala nahi duten pertsona guztiek, erregelamendu honetan eta errepideko bidaiarien garraioari buruz indarrean dagoen legeria ezargarrian erabiltzaileentzat jasotako baldintzak eta betebeharrak muga bakarrak direla.

Garraio-zerbitzuaren titularra den administrazioak eskura dituen tresna guztiak erabiliko ditu pixkanaka-pixkanaka pertsona guztien irisgarritasun eta mugikortasuna bermatzeko.

3. artikulua. *Definizioak*

Hona hemen kontzeptu batzuen definizioa, erregelamendu honen eraginetarako:

Bidaiaria: Erregelamendu honetan arautzen den garraio-zerbitzu publikoaren erabiltzaile guztiak. Pertsona bat definizio honen barruan sartuko da aldez aurretik tiketa erosten duen unetik edo zerbitzuaren titularra den administrazio publikoak finkatutako geltokiren batean zerbitzuaren erabilera eskatzen ari den unetik, lekualdatzen ari denean eta aipatutako administrazioak ere finkatutako beste geltoki batean ibilgailu horretatik jaitsi arte.

Adingabea: sei urtetik beherako bidaiaria.

Bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularra: garraio publiko erregularrak, iraunkorrak edo aldi baterakoak, eta erabilera orokorrekoak honako hauek dira: administrazio publiko eskudun batek ezarritakoak diren eta eskaera orokorrari erantzutera zuzentzen direnak, errepideetan ibiltzen diren ibilgailuen bitartez. Zerbitzu horiek eskaerari egokitutako garraio-zerbitzu moduan konfiguratuta egon daitezke, edo ez.

Ibilbide luzeko zerbitzua: zerbitzu publikoko linea, III. mailako autokarren bidez ematen dena; autokar horiek egokituta daude bidaiariak eserita garraiatzeko, eta ez dituzte inolaz ere zutik doazen bidaiariak garraiatzen. Ibilgailu horiek maletategia izango dute, fardelak eta ekipajea, haur-kotxe eta -aulkiak, bizikletak eta etxeko animaliak garraiatzeko.

Ibilgailua: Errepide bidezko pertsonen garraio kolektiborako garraiobide homologatua. Hau da: autokar edo autobusa, minibus edo mikrobusa eta taxibusa.

Geltokia: administrazio publiko eskudunak bide publikoan egokitutako espazioa, garraio publikoko ibilgailuak geratzeko eta bidaiariek itxaroteko; bertan, halaber, bidaiariak ibilgailuetara igo eta bertatik jaisten dira.

Geltokiak bere eginkizuna betetzeko beharrezkoak diren elementu guztiak ditu, administrazio publiko eskudunak emandako ezaugarri berezien arabera: markesina, informatzeko elementuak, eserlekuak, etab.

Bizikleta: bi gurpildun zikloa, gainean doan pertsonak pedalen bidez sortutako muskulu-energiak bakarrik edo bereziki bultzatuta mugitzen dena.

Irisgarritasun unibertsala: Ingurune, prozesu, ondasun, produktu eta zerbitzuek zein objektu, tresna, lanabes eta gailuek bete behar duten baldintza da, pertsona guztiek segurtasun- eta erosotasun-baldintzetan eta ahalik eta modu autonomoen eta naturalenean horiek ulertu, erabili eta eskuratu ahal izateko. Berekin du “diseinu

unibertsalaren edo pertsona guztientzako diseinuaren" estrategia, eta ulertu behar da egin behar diren zentzuzko doikuntzak egingo direla.

Garraio kolektiboko sistemek irisgarritasun unibertsalaren diseinu-jarraibideak bete behar dituzte, erabiltzaile izan daitekeen edozein pertsonari egokia den zerbitzua eskaini ahal izateko, giza aniztasuna eta horren araberako eskakizunak kontuan hartuta; eskakizun horiek, hain zuzen ere, garraio modu bakoitzeko diseinu irisgarrirako zehaztasun tekniko multzo batean eta horien arteko elkarrekintzan gorpuzten dira.

Mugikortasun murriztua duten pertsonak: aulki gurpildunetan lekualdatzen diren pertsonak dira, eta, oro har, inguruabar pertsonalak direla kausa beren burua edo hirugarrenak arriskuan jarri gabe zutik bidaiatu ezin duten pertsonak.

Plataforma: autobusean gainerako espazioak baino gardenagoa dena; bertara, zuzenean iristen da kanpotik, eta eusteko elementuak edota eserleku bereziak ditu, aulki gurpildunetan lekualdatzen diren edo mugikortasun murriztua duten gainerako pertsonak, haur-kotxe eta -aulkiak, eta fardel jakin batzuk garraiatzeko.

4. artikulua. *Zerbitzuaren eskumena, antolakuntza eta ustiapena*

Bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregular bakoitzean eskumena duen administrazio publikoa da zerbitzua ezartzen duena, eta, halaber, horren titularra da, bidaiarien errepide bidezko garraioari buruz indarrean dagoen eta Euskal Autonomia Erkidegoan zein, hedaduraz, Gipuzkoako Lurralde Historikoan ezargarria den araudiaren arabera.

Administrazio publiko horrek erabilera orokorreko garraio publiko erregularreko zerbitzua antolatu eta planifikatuko du, bai linea, ibilbide, geltoki eta ordutegiei dagokienez, bai bere eskumenekoa den garraio horrekin zerikusia duten alderdiei dagokienez, eta halaber, berariaz pertsona guztien irisgarritasun unibertsala bermatzen duten sistema eta elementu guztiei dagokienez, hala nola: inklinatzeko sistemak, arrapalak, plataforma jasotzaileak eta txirrin egokituak.

Administrazio publiko horrek, era berean, zerbitzua kudeatzeko modalitatea definituko du, eta, antolamendu juridikoan aurreikusitakoa betez, garraio-zerbitzu publikoa ustiatu eta bidaiariei eskainiko dien erakunde eragilea hautatuko du.

I. TITULUA. IRISGARRITASUN UNIBERTSALA

5. artikulua. *Esparru juridiko arautzailea*

Garraio-enpresa eragilea behartuta egongo da ezargarria den indarreko legerian, eta, nolanahi ere, emakida-tituluan edo zerbitzuaren ustiapena egiteko emandako agirian jasota dagoen garraio publikoetako irisgarritasun unibertsalari buruzko araudia betetzera.

1. Ibilgailuak irisgarritasun-sistemez hornituta egongo dira. Aipatutako sistemak erabilgarri eta aktibagarri egongo dira beti, horretarako ezarritako gailuen bitartez, adibidez urrutiko kontrolen bitartez.

2. Ibilgailuek dituzten ezaugarrien arabera, sartu-irteteko sistema hauek eduki beharko dituzte:

   - Inklinatzeko sistemak zoru baxuko autobusetan. Sistema horiek beti erabili beharko dira, ezaugarri orografikoek galarazten ez duten bitartean hala ahalbidetzen badute, mugikortasun murriztua duten bidaiariak igo eta jaisteko.

   - Arrapalak zoru baxuko autobusetan, aulki gurpildunetan mugitzen diren pertsonek ez ezik, mugitzeko material ortoprotesikoa (taka-takak, makuluak, etab.) behar duten bidaiariek ere erabili ahal izateko.

   - Plataforma jasotzaileak zoru altuko autobusetan. Aulki gurpildunetan mugitzen diren bidaiariek sartu-irteteko erabiliko dira.

3. Garraio-zerbitzuaren titularra den administrazioak deitzeko txirrinak zein ohartzeko sistemak ulertu eta erabiltzea errazteko piktogramak eta bestelako elementuak jartzea sustatuko du, eta, halaber, geltokietan informazio eskuragarria ematea. Ohartzeko sistema horiek ozentasun eta soinu egokiak izango dituzte, gidatzen duen langileari eragozpenik ez sortzeko modukoak.
4. Zerbitzuaren titularra den administrazioak, halaber, ibilgailu eta geltokietan informazioa eskuragarria izatea, eta arreta-zerbitzuetan eta web orrialdeetan komunikaziorako laguntzak eta zerbitzu osagarriak ematea sustatuko du, hala nola, sistema handigarriak eta hautabidezkoak, ahoz eta zeinu-hizkuntzaz komunikatzeko sistema laguntzaileak, ukimen-komunikazioko sistemak eta beste gailu batzuk, pertsona guztiei komunikazioa ahalbidetzeko.

5. Ikusteko zailtasunak dituzten pertsonak garraiatzeko, ibilgailuek seinale argidun eta akustikoak izango dituzte sartzeko ateetan, kirrinkari edo deigarriegiak ez direnak, ateen kokapena erraz aurkitzeko. Era berean, geldialdia eskatu dela bisualki eta soinuaren bidez informatuko da, eta funtzionamenduan mantenduko da ibilbide osoan.

6. Garraio-zerbitzuaren titularra den administrazioak sustatuko du autobusetako irisgarritasunerako gailu akustikoak aktibatzeko beharrezkoak diren urrutiko aginteen banaketa, hala eskatzen duten pertsonen artean.

7. artikulua. *Irisgarritasuna eta mugikortasuna bermatzea*

Garraio-zerbitzuaren titularra den administrazioak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu garraio-sistema une bakoitzean dauden irisgarritasun- eta mugikortasun-beharretara pixkanaka egokitzeko.

Halaber, garraio-enpresa eragileetako langileei egokia den prestakuntza ematea sustatuko du, mugikortasun murriztua duten bidaiarien beharrei erantzutearren.

8. artikulua. *Mugikortasun murriztua duten bidaiarien definizioa*

Jarraian adierazitako pertsonak hartuko dira mugikortasun murriztua duten bidaiaritzat –besteak beste ibilgailuen barruan erreserbatutako plazak eta espazioak erabiltzeko xedez–:

- Aulki gurpildunetan lekualdatzen diren pertsonak.
- Zentzumen-zailtasunak (ikusmena, entzumena, mintzamena) eta adimen-zailtasunak dituzten edo garraio-zerbitzu arrunta erabiltzeko zailtasun handiak dituzten pertsonak.
- Alderdi antropometrikoak direla kausa, maniobratzeko zailtasunak dituzten pertsonak, eta, hala, espazio guztietara iristeko edo eserlekuak erabiltzeko gaitasun mugatua dutenak.
- Bihotzeko gaixotasunak edo arnasa-eritasunak nahiz mugitzeko zailtasuna sortzen dieten bestelako gaixotasunak dituzten pertsonak.
- Adin handikoak direlako lekualdatzeko arazoak dituzten edo autonomiaz lekualdatu ezin diren pertsonak.
- Haurdun dauden emakumeak edo adingabeekin doazen pertsonak.
- Gorputz-adar immobilizatu edo igeltsatuta dauzkaten edo makuluak erabiltzen dituzten pertsonak.
- Mugikortasun funtzionalik ez duten eta lekualdatzeko arazoak dituzten pertsonak.
- Oro har, inguruabar pertsonalak direla kausa beren burua edo hirugarrenak arriskuan jarri gabe zutik bidaiatu ezin duten pertsonak.

9. artikulua. *Mugikortasun murriztua duten bidaiariak sartu-irtetea*

Mugikortasun murriztua duten bidaiariak sartu eta irteteko orduan, segurtasun osoa bermatu beharko da, ezargarria den araudiaren arabera.

Mugikortasun murriztua duten bidaiariak ibilgailuan sartzeko mailara igo ezin direnean, horren berri emango diote ahoz gidatzen duen langileari, eta gidariak egokiak diren baliabideak erabiliko ditu bidaiari horiek autobusean sartzeko. Halaber, hitz egiteko mugatuta dauden bidaiariek keinu bidez adieraziko diote gidatzen duen langileari.

Mugikortasun murriztua duten bidaiariak ibilgailuan sartu eta bertatik jaitsi ahal izango dira erabiltzen erosoen zaien eta esfortzu fisikorik txikiena egitera behartzen dituen atea erabilita.

Mugikortasun murriztua duten bidaiarien aulki gurpildunak sartu eta irteteko, horretarako gaituta dagoen atea erabiliko da, inklinatzeko sistemari eta sartzeko arrapalari edo plataforma jasotzaileari eragin eta gero, eta ibilgailuaren martxaren noranzkoa kontuan hartuta, aurrerantz edo atzerantz begira kokatuko dira, kasuaren arabera, eta balazta jarrita.

Autobusei dagokienez, oro har, aulki gurpildun homologatuetan lekualdatzen diren bi pertsona, gehienez ere, sartu ahal izango dira aldi berean ibilgailuan, irisgarritasun- baldintzei buruzko arau teknikoen arabera.

Aulki gurpilduntan lekualdatzen diren pertsonek lehentasuna izango dute ibilgailuan sartzeko orduan, haur-kotxe eta -aulkien edo bizikleten aurretik, betiere horiek jadanik ibilgailuaren barruan ez badaude.

Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako elementu lagungarriak edo eustekoak, hala nola taka-takak, behar bezala lotuta egongo dira bidaiatu bitartean. Elementu lagungarriak eramaten dituen pertsona izango da objektuek pertsonei edo ondasunei sor diezazkieketen kalteen erantzule, betiere egindako kaltean garraio-enpresa eragileak erantzukizunik ez duela frogatzen bada.

10. artikulua. *Ibilgailuan erreserbatuta dauden eserlekuak eta espazioak*

Bidaiariek, lehentasunik gabe, askatasunez erabili ahal izango dituzte ibilgailuko eserlekuak, mugikortasun murriztua duten pertsonentzat berariaz erreserbatutakoak salbu. Erabiltzaileek ezin izango dute inolaz ere eserita bidaiatzeko eskakizuna egin –eskubide hori izango baitute soilik bete gabeko eserlekuak badaude–, ibilbide luzeko zerbitzua ematen duten autobusetan izan ezik.

Autobusetan, mugikortasun murriztua duten pertsonek lehentasunez erabil ditzaten, aulki gurpildunetarako bi espazio eta lau eserleku erreserbatuko dira gutxienez, 12 metro arteko luzera duten autobusak direnean, eta sei eserleku, 18 metroko luzera duten autobus artikulatuak direnean. Eserleku horiek sartu-irteteko ateetatik hurbil egongo dira, behar bezala seinaleztatuta eta balidatzaileak, txirrinak eta geldialdi- seinaleak irisgarri izateko moduan.

Mikrobusetan, mugikortasun murriztua duten pertsonek lehentasunez erabil ditzaten, aulki gurpildunetarako espazio bat eta bi eserleku erreserbatuko dira gutxienez.

Gainerako erabiltzaileek okupatu ahal izango dituzte mugikortasun murriztua duten pertsonentzat erreserbatutako eserlekuak, betiere pertsona horiek ibilgailuan ez badaude edo, ibilbidean, eserleku horiek eskatzen ez badituzte. Eserlekuetan mugikortasun murriztua duen pertsonaren bati plaza uzten ez dioten bidaiariak eserita badaude, gidariak eskatuko die eserleku erreserbatu horiek erabili behar dituzten bidaiariei uzteko.

Ibilbide luzeko zerbitzuetan, eserleku zenbakidunen arabera salmenta-zerbitzua ematen duten garraio-enpresa eragileek mugikortasun murriztua duten pertsonentzat erreserbatutako plazak erabiltzaileen eskura jarri ahal izango dituzte, bakar-bakarrik, gainerako plazak jadanik erosi direnean.

Aipatutako zerbitzuetan, bidaiariek errespetatu beharko dute esleitu zaien plaza, tiketean adierazita dagoena. Nolanahi ere, garraio-enpresa eragileko langileek

plazaren esleipena aldatu ahal izango du, behar bezala justifikatutako arrazoiak daudenean.

Zutik bidaiatzerik onartzen ez den zerbitzuetan, alderdi antropometrikoak direla kausa –aldi baterako edo behin-betikoak izan–, erosotasun- eta segurtasun-baldintza orokorretan lekualdatzeko espazio gehigarria behar duten bidaiariek zerbitzua ematen duen enpresari egoera horren berri eman ahal izango diote, bidaia hasi baino
30 minutu lehenago gutxienez. Modu horretan, garraio-enpresa eragileak erreserbatu ahal izango ditu pertsona horiek bidaiatzeko beharrezkoak diren plazak.

11. artikulua. *Ibilgailuan espazio erreserbaturik eza*

Ibilbide luzeko zerbitzuetan, garraio-enpresa eragileak zerbitzua antolatu ahal izateko, aulki gurpildunean lekualdatu eta espazio erreserbatu baten erabilera bermatu nahi duten mugikortasun murriztuko bidaiariek enpresa eragileari horren berri eman beharko diote ibilgailua irteteko finkatutako dataren aurreko laneguneko 18:00ak baino lehen.

Aipatutako erreserba egin bada eta egitean emandako zenbakiaren bidez egiaztatu bada, eta hala ere garraio-enpresa eragileak ezin badu erreserbatutako plaza edo espazioa eskaini bidaia egiteko orduan, horren ordezko garraiobide bat emango du, eta horren kostua zerbitzuaren titularra den administrazioak hartuko du bere gain.

Espazio erreserbatua behar duen mugikortasun murriztuko bidaiariak artikulu honetako lehenengo paragrafoan araututa dagoen erreserba egin ez badu eta ibilgailuan bidaiari horrentzat espazio erabilgarririk ez badago, baldintza egokietan artatua izan daitekeen lehenengo zerbitzura bideratu ahal izango da.

12. artikulua. *Mugikortasun murriztua duten bidaiarien tarifa-araubidea*

Mugikortasun murriztua duten bidaiariek gainerako bidaiarien tarifa-araubide bera izango dute, bidaian ibilgailuko zer espazio okupatu behar duten alde batera utzita.

Nolanahi ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuak emandako mendekotasun-txartela duten pertsonak, Mugi txartelarekin ordaintzen/baliozkotzen dutenean, nahi duten beste pertsona batek lagunduta joan ahal izango dira, beraien segurtasun eta erosotasuna bermatzeko beharrezkoa den laguntza emateko gai denak; laguntzaile horrek doan bidaiatu ahal izango du, eta itsuen laguntzaile denean, ahal bada, haien ondoan eseriko da.

Hirugarren baten laguntza behar izateari buruz desadostasunak gertatuz gero, gidarien irizpidea nagusituko da “in situ”, eta, hala ere, bidaiaren zenbatekoa itzuliko da, inguruabar hori behar bezala egiaztatu eta gero.

II. TITULUA. GARRAIO-ZERBITZUA ERABILTZEAN BIDAIARIEK DITUZTEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

I. KAPITULUA. Bidaiarien eskubideak

13. artikulua. *Bidaiarien eskubideak*

1. Bidaiariak, erregelamendu honen ezarpen-eremuaren barruan dauden enpresa eragileek emandako garraio-zerbitzuaren jasotzaileak izanik, garraioari buruzko araudi orokorrean ezarritako eta, berariaz, kapitulu honetan zein erregelamendu honetako gainerako xedapenetan eta ezargarriak diren gainontzeko araudietan adierazitako eskubideen titularrak izango dira.

2. Bereziki, honakoak dira bidaiarien eskubideak:

1. Garraiatuak izatea, eta horretarako behar den eskakizun bakarra baliozkoa den eta, hala badagokio, behar bezala balidatuta dagoen garraio-titulua eramatea. Bidaiariek une bakoitzean indarrean dauden garraio-tituluen artean aukeratu ahal izango dute, indarrean dauden tarifen arabera eta betiere erregelamendu honetan ezarritako baldintzak betez.
   Garraiatuak izateko eskubidea erabiltzeko baldintza aukeratutako zerbitzuan plazak egotea da.
2. Oro har ezarritako eta programatutako zerbitzu-eskaintzaren baldintzetan garraiatuak izatea, irisgarritasun eta mugikortasun unibertsalaren printzipioen arabera.
3. Autobus, autokar, mikrobus, minibus eta taxibusen zirkulazioari atxikitako derrigorrezko aseguruen estalpean garraiatuak izatea, egokiak diren homologazio-arauak betetzen dituzten ibilgailuetan, eta behar bezala prestatuta dauden langileek gidatuak, horretarako gaitzen dituen administrazio-baimena dutela.
4. Zerbitzuan dauden tarifa, funtzionamendu eta baldintza zein gorabeherei buruzko informazioa jasotzea, beti irisgarritasun eta mugikortasun unibertsalaren printzipioen arabera.
5. Laguntza-txakurrek lagunduta joatea, animalia horiei ezargarri zaien indarreko legerian ezarritakoari jarraituz.
6. Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako edozeinetan informazioa erabili eta jasotzea.
7. Garraio-enpresa eragileetako langileengandik tratu zuzena jasotzea. Langileek erantzun beharko diete erabiltzaileek zerbitzuarekin zerikusia duten gaietan egiten dituzten laguntza- eta informazio-eskaerei.
8. Ibilgailuan sartzea beren fardel edo ekipajea aldean dutela, betiere gainerako erabiltzaileei edo ibilgailuari eragozpen edo arriskurik sortzen ez badiete, erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera.
9. Haur-kotxe eta -aulkiak eramatea, prestazio horren truke errekargurik ordaindu gabe, erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera.
10. Bizikletak eramatea, prestazio horren truke errekargurik ordaindu gabe. Bizikletak barruan edo maletategian soilik eramango dira, dituzten ezaugarriak kontuan hartuta hala ahalbidetzen duten ibilgailuetan, eta aurretiaz zehaztuko diren linea, geltoki eta ordutegietan, erregelamendu honetako 20. artikuluan ezarritakoaren arabera.

11. Ibilgailuetan sartzea etxeko animaliek lagunduta, prestazio horren truke inolako errekargurik ordaindu gabe, betiere gainerako erabiltzaileei edo ibilgailuari eragozpen edo arriskurik sortzen ez badiete, erregelamendu honetako 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.
12. Garraio-enpresa eragileen ibilgailu guztietan nahiz instalazio finkoetan, une bakoitzean indarrean dagoen erreklamazio-orria eskatu eta eskuratzea, zerbitzua ematearekin zerikusia duen edozein erreklamazio jarri ahal izateko.
13. Bidaiaren zenbatekoaren itzulketa jasotzea, zerbitzua eten egiten bada.
14. Bidaiaren zenbatekoaren itzulketa jasotzea garraio-tiketa aldez aurretik erosi denean, betiere erabiltzailea zerbitzua ematen duen enpresa eragilearen leihatilara bertaratzen bada zerbitzua irten baino 10 minutu lehenago gutxienez, eta dena erregelamendu honetako 22. eta 41. artikuluetan jasotakoaren arabera.
15. Gorabeheraren baten ondorioz ibilgailua baztertu behar bada, bidaia linea berean edo, ezinezkoa bada, antzeko ibilbidea duen beste linea batean jarraitzea. Bidaiariek ez dute ordezko ibilbide hori ordaintzeko beharrik izango, eta irisgarritasun-baldintza egokiak eskainiko zaizkie.
16. Ibilgailuetan aurkitzen diren objektu galduak berreskuratzea, objektu horien jabetza edo edukitza legitimoa egiaztatu eta gero. Objektu horiek garraio- enpresa eragileen bulegoetan edo objektu galduen udal-bulegoetan entregatuko dira, garraio-enpresa eragileetako langileek aurkitutako egoera berean.

    Objektu galduak aurkitu eta bi urtetan egongo dira haien jabetza egiaztatzen duten pertsonen eskura; aldi hori igaro eta gero, objektuak aurkitu zituen erabiltzaileari itzuliko zaizkio edo, ezinezkoa bada, objektuez arduratu zen garraio-enpresa eragileko langileari. Ibilgailu batean objekturen bat galdu duela uste duen edozein bidaiari harremanetan jarri ahal izango da zerbitzua ematen duen garraio-enpresa eragilearekin, objektua berreskuratzeko.

14. artikulua. *Garraioaren baldintzak*

Erabiltzaileek eskubidea izango dute zerbitzuaren titularra den administrazioak zerbitzua emateko ezarritako eskaintza-baldintzetan garraiatuak izateko.

15. artikulua. *Informazioa*

Zerbitzuaren titularra den administrazioak zainduko du pertsona guztiek zerbitzu horren ezaugarri, baldintza, funtzionamendu eta tarifei buruzko edo bestelako gorabehera, kexa, iradokizun edo erreklamazioei buruzko informazioa pixkanaka jaso edo kontsultatzeko aukera izatea, edozein formatu irisgarritan, jatorria eta euskarria zein den ere.

Adierazitako formatu irisgarri eta hautazko horiek honakoak izan daitezke, besteak beste: karaktere handiak, hizkera erraza, braille, teknologia moldagarriaren bidezko komunikazio elektroniko irisgarriak eta audio-zintak edo antzekoak.

Hautazko formatuetako informazio hori ibilgailuetan, instalazio finkoetan, geltokietan, web orrialdeetan edo beste edozein tokitan eman beharko da.

Zerbitzuaren titularra den administrazioak sustatuko du erabiltzaileei ematen zaien informazioa euskaraz eta gaztelaniaz ez ezik, beste hizkuntza batzuetan ere etengabe ematea, garraio-zerbitzua erabiltzen duten atzerritarren eskaerei erantzutearren.

16. artikulua. *Hizkuntza-politika*

1. Kapitulu honetan ezarritakoari jarraituz, eta jarraitutasunez, bertan jasotakoaren arabera, bidaiariek, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen erabilerari dagokionez, hizkuntza-eskubide hauek izango dituzte:

a. Bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularren titularrak diren administrazio publikoekin harremanetan jartzeko aukeratutako hizkuntza ofizialean artatua izateko.
b. Bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularrak ematen dituzten enpresa eragileekin eta enpresa horien establezimenduekin harremanetan jartzeko orduan, hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzeko eskubidea; zerbitzu horietan ari diren langileak bidaiariak artatzeko moduan egon beharko dira, erabiltzen duten hizkuntza ofiziala edozein dela ere.
c. Aukeratzen duten hizkuntza ofizialean, garraio-zerbitzuari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.
d. Hizkuntza ofizialetako edozeinetan erreklamazioak egiteko eskubidea.

2. Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen Kontsumitzaileen Estatutuari jarraituz, bidaiariekin harremanetan jartzeko orduan, bi hizkuntz ofizialen erabilera bermatuta egongo da honakoetan:

a. Gipuzkoako lurralde-eremuko establezimenduetan, idazkun, ohar eta, oro har, jendeari zuzendutako komunikazioetan.
b. Bidaiariek betetzeko prestatu diren inprimaki edo eredu ofizialetan.
c. Atxikipen-kontratu, klausula-ereduak dituzten kontratu, kontratu arautu, baldintza orokor eta kontratu horiei lotutako edo kontratuak gauzatzearen ondoriozko dokumentuetan, betiere bidaiariak berariaz aukeratzen ez badu hizkuntz ofizialetako bat erabiltzea.
d. Bidaiariei berariaz zuzendutako komunikazioak eta, halaber, fakturak, aurrekontuak eta antzeko agiriak bi hizkuntzatan idatziko dira, betiere bidaiariak berariaz aukeratzen ez badu bi hizkuntza ofizialetako bat erabiltzea.
e. Bidaiariei zuzendutako garraio-zerbitzuen eskaintza, sustapen eta publizitatean, erabilitako euskarriak edozein izanda ere.

3. Bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularra ematen duten enpresa eragileek artikulu honetako 1. eta 2. idatzi- zatietan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

17. artikulua. *Adintxikikoak garraiatzea*

1. Adingabeek doan bidaiatuko dute; hala ere, doaneko tiketa izenekoa eduki beharko dute, plazak zenbatzeko eta trafikoari buruzko legeriak ezarritako derrigorrezko aseguruen estaldura izateko xedez.

   Adingabearen adinaren inguruan desadostasunak gertatuz gero, gidarien irizpidea nagusituko da "in situ", eta, hala ere, bidaiaren zenbatekoa itzuliko da, inguruabar hori behar bezala egiaztatu eta gero.

   Adingabeak, une oro, beren segurtasunaren erantzule den pertsona batek lagunduta joan beharko dira.

   Heldu bat gehienez ere lau adingabek lagunduta egon ahal izango da.

2. 6 eta 18 urte bitarteko bidaiariak ibilgailuan sartzen badira beren segurtasunaren erantzulea den pertsona heldu baten laguntzarik gabe eta tarifa-sistema bateratuko txartel pertsonalizatua (MUGI txartela) eramaten badute, gurasoek edo tutoreek baimendutako adingabetzat hartuko dira ondorio guztietarako, eta, hortaz, euren erantzukizunpean bidaiatuko dute.

3. Talde antolatuan 5 eta 10 urte bitarteko 5 adingabek baino gehiagok bidaiatzen badute (udalekuak, kanpamenduak, etab.), derrigorrezkoa izango da gutxienez bigarren laguntzaile heldu bat egotea adin horretako 10 lagun arte, eta beste laguntzaile bat gehiago lehenengoak gainditzen dituzten 15 laguneko, ezargarria den indarreko legerian xedatutakoari jarraituz.

18. artikulua. *Fardelak eta ekipajea*

1. Bidaiariek, lekualdatzen direnean, pakete edo objektu txikiak edo gainerako eskuko fardelak eramateko eskubidea izango dute, betiere gainerako bidaiariei eragozpenik edo arriskurik sortzen ez badiete eta ibilgailuan dauden plazak murrizten ez badituzte.

Oro har, ez da onartuko bidaiariek 100 x 60 x 25 cm-ko neurria gainditzen duten fardel, ekipaje edo bidaia-maletarik eramatea.

Zutik doazen bidaiariak onartzen diren garraiobideetan, fardel edo ekipaje onargarriak izango dira eskuarki erabili eta onartzen direnak, hala nola erosketako orgak, tolestuta dauden bizikleta tolesgarriak, haur-kotxe eta -aulki tolestuak edo antzekoak, aurreko paragrafoan adierazitako

neurriez bestelakoak izan ditzaketenak, dituzten ezaugarrien arabera.

Nolanahi ere, bidaiariak behar bezala heldu beharko die sartzen dituen fardelei eta ekipajeari, ibilgailura igotzen den unetik hasi eta bertatik irten den arte.

Ibilgailuko sarrera eta irteeretan, ibiltzeko zonetan, erreserbatutako espazioetan edo gelditzeko orduan eragozpenak sortzen dituzten objektu edo fardelak ezingo dira inolaz ere lurrean utzi.

Maletategia duten ibilgailuetan, nahitaezkoa izango da toki hori erabiltzea ibilgailuaren barruan fardelak uzteko erreserbatutako espazioarenak (barruko erretiluak) baino neurri handiagoak dituzten fardelak uzteko, eta doakoa izango da garraio-titulua duen bidaiari bakoitzeko 15 kilo gainditzen ez dituzten ekipajeak garraiatzea.

Fardela edo ekipajea behar bezala paketatuta egongo da ibilgailuko maletategian gordetzeko, hau da, bidaia egitean ekipajearen edukia maletategian barreiatzea edo gainerako fardelak kaltetzea saihesteko moduan.

Istripuen edo bestelako kausen ondorioz ekipajeek kalteak edo galerak pairatzen dituztenean, zerbitzu publikoa ematen duten enpresa eragileen erantzukizuna bidaiarien eskubideei buruz indarrean dagoen legerian ezarritakora mugatuko da, betiere bidaiarientzat berariaz zenbateko handiagoak edo baldintza hobeak adosten ez badira.

Eskuko fardelak daramatzan bidaiariari egokituko zaio ekipaje hori zaintzea, eta, ondorioz, bidaiari horren kontura izango dira ibilgailuaren barruan egon bitartean ekipajeak paira edo sor ditzakeen kalteak, betiere garraio-enpresa eragilearen erantzukizuna frogatzen ez bada. Frogatuz gero, ezargarriak izango dira indarrean dagoen legeriak ekipajeei dagokienez xedatzen dituen mugak.

2. Zutik bidaiatzea dagoen ibilgailuetan, bidaiariek eskubidea izango dute kirola egin eta aisialdian erabiltzen diren objektu edo fardelak edo horien antzekoak direnak eta bigarren paragrafoan aurreikusitako neurriak gainditzen dituztenak eramateko (adibidez, surfeko oholak, eskiak, musika-tresnak edota antzekoak), betiere horretarako nahiko espazioa badago, aulki gurpildunak edo kotxe edo haur-aulkiak uzteko erreserbatutako espaziora iristea eragozten ez badute, eta igarotzeko eta sartu-irteteko lekuetan trabarik egiten ez badute, eta halaber, pertsona bakar batek garraiatzeko modukoak badira, bi metroko garaiera gainditzen ez badute, eta dagokien zorroak babestuta badaude. Espazio nahikoaren inguruko eztabaida sortzen bada, gidariaren irizpidea nagusituko da.

Fardela daraman bidaiariak bertikalean mantenduko du, gainerako bidaiariei eragozpenik sortu gabe edota bidaiarien zirkulazioan trabarik egin gabe, bai sartu eta irtetean, bai ibilgailuaren barruan.

Maletategia duten ibilgailuetan, objektu horiek bertan utziko dira, zorroan behar bezala sartuta.

Fardelak eramaten dituen pertsona izango da adierazitako objektuek pertsonei edo ondasunei sor diezazkieketen kalteen erantzule, betiere egindako kaltean garraio- enpresa eragileak erantzukizunik ez duela frogatzen bada.

19. artikulua. *Haur-kotxe eta -aulkiak eramatea*

Haur-kotxe eta -aulki irekiak onartuak izango dira ibilgailuetan, ibilgailuen ezaugarriek hala ahalbidetzen dutenean.

Kotxea edo aulkia plataforman utziko da, eta gainerako bidaiariei igarotzea oztopatu gabe kokatuko da. Kotxe edo aulki irekiak lotu beharko dira eta balazta ipinita edukiko dute; adingabea ibilgailua doan martxaren kontrako noranzkora begira egongo da. Kotxea edo aulkia daraman pertsonaren ardura izango da behar bezala kokatzea eta lotzea, adingabearen eta gainerako bidaiarien segurtasuna bermatzeko moduan. Nolanahi ere, kotxea edo aulkia daraman pertsona kotxearen edo aulkiaren ondoan egon beharko da, eta une oro helduko dio.

Kotxeak eta aulkiak zenbatzeko xedez, haur-kotxe edo aulki bikoitzak edo handiagoak (bikientzat, edo hirukientzat) bi balira bezala zenbatu ahal izango dira, ibilgailuan dagoen espazioaren arabera.

Gehienez ere bi kotxe edota aulki ireki eraman ahal izango dira 18 metro arteko ibilgailuetan, eta bakar bat ibilgailu txiki edo mikrobusetan, betiere aulki gurpildunean lekualdatzen den pertsonarik ez badago ibilgailuan.

Ahal dela, haur-kotxe eta -aulki irekiak ibilgailuan sartuko dira horretarako gaituta dagoen atetik, aulki gurpildunak igotzeko arrapalari eragin gabe, baina bai ibilgailua inklinatzeko sistemari.

Ibilgailuan haur-kotxe edo -aulkia daramatela sartzen diren bidaiariek, edonola ere, errespetatu beharko dute aulki gurpildunetan lekualdatzen diren erabiltzaileek ibilgailuan sartzeko eta plataforman haientzat dagoen espazioa okupatzeko duten lehentasuna. Haur-kotxe eta -aulkiek lehentasuna izango dute, bakar-bakarrik, jadanik ibilgailuaren barruan badaude.

Adingabea garraiatzen ez duten haur-kotxe edo -aulkiak tolestuta eraman beharko dira. Ez da onartuko kotxe do aulki irekirik sartzea, adingabea garraiatzen ez dutenean. Ahal dela, aurreko atetik sartuko dira kotxe edo aulki tolestua daramaten bidaiariak.

Maletategia duten ibilgailuetan, haur-kotxe edo -aulkiak nahitaez sartu beharko dira bertan.

Ez da errekargurik ordainduko haur-kotxe edo -aulkia eramateagatik, erregelamendu honetako 13.9. artikuluan jasotakoaren arabera.

20. artikulua. *Bizikletak eramatea*

1. Bizikletak onartuko dira, bakar-bakarrik, dituzten ezaugarriak kontuan hartuta hala ahalbidetzen duten ibilgailuetan, Administrazio bakoitzak bere eskuduntza pean dauden zerbitzuetarako aurrez zehazten dituen linea, geltoki eta ordutegietan.

Behar bezala adieraziko da zer geltoki eta lineatan baimenduta dagoen bizikletak daramatzaten pertsonak ibilgailuetan sartzea, eta baita horretarako dauden geldialdi- ordutegiak ere, egokia bada.

Maletategia duten autobusetan, bizikletak bertan utziko dira, dagokien zorroak babestuta.

Pertsona bakoitzeko bizikleta bat bakarrik onartuko da. Ibilgailuan, gehienez ere bi bizikleta eraman ahal izango dira aldi berean. Nolanahi ere, aulki gurpildunean lekualdatzen diren pertsonek eta haur-kotxe eta -aulkiek lehentasuna izango dute ibilgailuan sartzeko orduan, bizikleten aurretik, eta ibilgailuak aulki gurpildunean edo haur-kotxe edo -aulkian doan pertsonaren bat garraiatzen duenean ezin izango da bizikletarik sartu. Aitzitik, ibilgailuak bizikleta bat bakarrik garraiatzen badu, aulki gurpildun edo haur-kotxe edo -aulki bat sartu ahal izango da.

Edonola ere, bizikletak erdiko atetik sartuko dira, eta plataforman kokatuko dira; bizikleta daraman pertsonak egoki helduko dio, eta beti geratuko da bizikletaren ondoan.

2. Bizikleta tolestuak ibilgailu guztien barruan onartuko dira, ekipajea balira bezala, erregelamendu honetako 18. artikuluan jasotakoari jarraituz.

Bizikleta mota hori guztiz tolestuta egon beharko da erabiltzailea ibilgailuan sartzen den unean.

3. Ez da errekargurik ordainduko bizikleta eramateagatik, ez kabinan, ez maletategian, erregelamendu honetako 13.10. artikuluan jasotakoaren arabera.

4. Bizikleta eramaten duen pertsona izango da adierazitako objektuak pertsonei edo ondasunei sor diezazkiekeen kalteen erantzule, betiere egindako kaltean garraio- enpresa eragileak erantzukizunik ez duela frogatzen bada.

21. artikulua. *Etxeko animaliak eramatea*

Baimendutako etxeko animaliak onartuko dira ibilgailuen barruan, bakar-bakarrik, autobusen ezaugarriek hala ahalbidetzen dutenean, eta erregelamendu honetako eranskinean zehazten diren linea, geltoki eta ordutegietan.

Baimendutako animaliak garraiatzeko baldintzak, eta animalia-espezieak eta beren ezaugarriak aipatutako eranskinean adierazitakoak izango dira.

Etxeko animaliek lagunduta bidaiatzea baimenduta dagoen zerbitzuetan, nolanahi ere, baldintza hauek bete beharko dira:

a. Animaliek bidaiatu beharko dute beren ekintzen erantzulea den pertsona batek lagunduta.
b. Animaliak, ahal dela, kaiola edo homologatuta dagoen ontzi itxi batean eraman beharko dira, zaintzailearen ondoko eserlekurik okupatu gabe, eta animaliaren usainak edo egiten duen zaratak eragozpenik sortu gabe, edo, oro har, gainerako bidaiarien erosotasuna murriztu gabe. Horren inguruko eztabaida sortzen bada, gidariaren irizpidea nagusituko da.
c. Maletategia duten ibilgailuetan, animaliak derrigorrez garraiatu beharko dira bertan, kaiola edo homologatuta dagoen eta gorotza gorde eta ateratzea ahalbidetzen duen gailua duen ontzi itxi baten barruan.
d. Ontzietan garraiatzen ez diren zakurrek ibilgailuaren plataforman bidaiatu ahal izango dute, betiere baldintza hauek betetzen badira: animalien ezaugarriei egokitutako uhal batez lotuta egon behar dira, une oro zaintzailearekin ukipen fisikoa mantendu behar dute, muturrekoa jarrita eraman behar dute, baimendutako albaitari batek emandako osasun-txartela eta erantzukizun zibileko aseguru bat eraman behar dira, eta indarrean dagoen legerian aurreikusitako higiene- eta osasun-egoeran zein segurtasun-baldintzetan egon behar dira. Gidariak animaliaren osasun-txartela eskatu ahal izango du, gutxieneko higiene- eta osasun-baldintzak betetzen ez dituela sumatzen duenean edo animaliarekin zerikusia duen edozein eztabaida gertatzen denean.
   Nolanahi ere, adierazitako osasun-txartela eta aseguru-poliza erakustea eskatu ahal izango da, pertsonei edo ondasunei kalte eragiten dien arazoren bat gertatuz gero.
e. Animaliek ezin izango dute inolaz ere gaueko zerbitzuetan bidaiatu, eta autobusean bustita edo araldian daudenean sartu.
f. Pertsona bakoitzeko animalia bat bakarrik onartuko da.
g. Ibilgailuan, gehienez ere bi animalia eraman ahal izango dira aldi berean.
h. Animalia eramaten duena erantzulea izango da animaliak sor ditzakeen kalteen aurrean, betiere hirugarren baten edo garraio-enpresa eragilearen erantzukizuna egiaztatzen ez bada.
i. Bidaiariren batek animalia dela-eta eragozpenak jartzen dituen unean (adibidez, erreakzio alergikoak dituelako, edo usain edo zaratagatik), eta animalia horren zaintzailea baino lehen igo bada, animalia eta zaintzailea ibilgailuaren beste leku batera aldatzeko betebeharra izango dute.

Artikulu honetan adierazitakotik salbuetsita daude itsu-txakurrak eta laguntza- txakurrak, baldin eta eginkizun horiek betetzeko zentro homologatuek egiaztatuta badaude; hala bada, une oro bidaiatu ahal izango dute laguntzen dioten pertsonaren ondoan, eta ezargarria den araudian ezarritako baldintzetan.

22. artikulua. *Ibilbideak etetea eta aldatzea*

Oro har, obrak, jaiak, ekitaldi bereziak eta abar direla kausa ibilbidea aldatu edo zerbitzua aldi baterako eteten bada, jendearen jakinaren gainean jarri beharko da behar adinako aurrerapenaz, eta horretarako garraio-enpresa eragileen informazio-

zutoinak, markesinak eta web orrialdeak erabiliko dira, edo ibilgailuak berak. Informazio hori gorabehera bakoitzaren garrantziaren arabera antolatuko da, eta ahal dela eragindako pertsona gehienei emango zaie horren berri, informazioa eragindako geltoki eta lineetan jarrita.

Tiketaren zenbatekoa itzuliko da, bakar-bakarrik, zerbitzu bat hasi baino lehen eteten bada. Ez da ulertuko zerbitzua eten dela edozein linea ohiko ibilbidetik desbideratzea, edo zerbitzua hasi eta gero gelditzea, garraio-enpresa eragilearenaren borondatezkoak ez diren ezinbesteko arrazoiengatik.

Ibilgailua matxuratu delako zerbitzua eteten bada, zerbitzua ematen duen enpresak prestatu duen eta irisgarritasun-baldintza egokiak dituen beste ibilgailu bat erabili ahal izango dute bertan doazen pertsonek, garraio-titulu bera erabilita eta gidariaren jarraibideen arabera.

Bidaia osatzeko, garraio-enpresa eragilea behartuta egongo da ahalik eta azkarren ibilgailu bat jartzera, eta, egokia bada, matxuratutako ibilgailua dagoen lekutik hurbilen kokatutako basetik ekarriko du berehala, betiere hurrengo zerbitzua ordezko ibilgailua baino lehenago iristeko moduan badago eta bete gabeko plazak baditu. Hori dena irisgarritasun-baldintza egokietan egingo da.

Bidaiariek tiketaren zenbatekoa itzultzeko eskubidea erabiltzeko, baliozko garraio- titulua aurkeztu beharko dute, behar bezala balidatua, hala badagokio.

23. artikulua. *Atzerakoak ematea*

Tiketa ibilgailuaren barruan erosten bada, bidaiariek atzerakoak, diru xehean edo diru-paperean, jasotzeko eskubidea izango dute, 20 euro arte, erregelamendu honetako 45. artikuluan xedatutakoari utzi gabe.

Erabiltzaileak diru xeherik ez duelako bidaia ordaindu ezin badu eta ibilgailua martxan jarri bada, hurrengo geltokian jaitsi beharko da ibilgailutik.

II. KAPITULUA. Bidaiariek bete beharreko baldintza orokorrak

24. artikulua. *Bidaiarien betebeharrak*

Bidaiariek betebehar hauek izango dituzte beti:

a. Baliozko garraio-titulua eramatea, eta, tarifa-sistema bateratuari dagokionez, behar bezala balidatua, erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera; bidaiariak garraio-titulua gorde beharko du ibilbide osoan, eta zerbitzua ematen duen enpresako langileen eskura zein zerbitzuaren titularra den administrazioko ikuskatzaileen eskura.
b. Garraio-enpresa eragileetako langileen jarraibideak betetzea, zerbitzuari eta horren gorabeherei lotutako gaietan.

c. Instalazio eta ibilgailuetan agerian jarritako horma-irudi edo gomendioetan jasotakoa errespetatzea, eta ez egitea gainerako bidaiarientzat edo garraio- enpresako langileentzat eragozpena den edozein ekintza.
d. Mugikortasun murriztua duten pertsonentzat erreserbatutako eserlekuak eta espazioak errespetatzea.
e. Ibilgailuetan sartzea horretarako dauden ateetatik, eta ibilgailuen barruan gainerako bidaiarien zirkulazioa erraztea. Halaber, tiketa erosi edo garraio- txartela balidatu eta gero, irteteko ateetatik hurbil kokatuko dira ahal dela, ibilgailuan sartu nahi duten pertsonei sarbidea utzita.
f. Ibilgailura igotzea geltokian geldirik dagoenean, bakoitzari dagokion txanda errespetatuz, geltokira iritsi diren ordenaren arabera.
g. Ibilgailutik jaistea finkatutako geltokietan, era ordenatuan, eta beti linea- amaierako geltokian.
h. Ibilgailua gelditzeko eskaera behar adinako aurrerapenaz egitea, bertatik irten edo bertan sartzeko.
i. Segurtasun-uhalak nahitaez erabiltzea, uhalez hornituta dauden ibilgailuetan, betiere, bideko segurtasunari buruzko araudiari jarraituz, bidaiariak salbuetsita ez badaude.
j. Eserleku osagarriak tolestea hala behar denean, adibidez, pertsonak igaro eta mugitzea zein horien erosotasuna galarazten dituzten jende-pilaketak daudenean.
k. Higiene- eta osasun-egoera gainerako bidaiariei edo gidariei kutsatu edo eragozpenik sortzeko arriskuan (adibidez, usainengatik) ez jartzeko modukoa izatea.
l. Zerbitzuak, ibilgailuak eta geltokiak gaizki erabiltzearen ondorioz edo ondasunak gaizki kokatzearen ondorioz, zerbitzuari atxikitako elementuetan edo gainerako bidaiariei sortutako kalteen aurrean erantzutea.
m. Bidaiarien artean, zerbitzuarekin zerikusia duten arrazoiengatik eztabaida sortuz gero (leihoak ireki eta ixtea, aire girotuko gailuen funtzionamendua, etxeko animaliak sartzea, etab.), gidarien irizpideak lehentasuna duela onartzea.

25. artikulua. *Debekuak erabiltzaileentzat*

a. Ibilgailura igotzea, gidariak ohartarazi duenean ibilgailua guztiz okupatuta dagoela.
b. Bidaiatzeko prestatuta ez dauden lekuetan bidaiatzea.
c. Erregelamendu honetako 18. artikuluan adierazitakoez bestelako fardelak eramatea.
d. Hainbat objektu eramatea, adibidez, beren izaera dela kausa, bidaiariei zuzenean edo zeharka, edo kanpoko alderdiekin batera, eragozpenak sor diezazkieketen objektuak, eta pertsonen osotasun fisikoa edo osasuna arriskuan jarri nahiz ibilgailuan edo garraio-zerbitzuan kalteak sor ditzaketenak.

Bereziki debekatuta dago materia leherkorrak, sukoiak, korrosiboak, erradioaktiboak, pozoitsuak, toxikoak, kutsagarriak edo antzekoak sartzea edota garraiatzea.

e. Ibilgailuan arriskutsuak izan daitezkeen animaliekin sartzea.
f. Ibilgailuan patinak ipinita sartzea.
g. Ibilgailuen barrualde edo kanpoaldean edo geltokietan idatzi, margotu, zikindu edo hondatzea edozein modutan.
h. Paskinak, liburuxkak eta edozein propaganda edo publizitate mota banatzea ibilgailuen barruan.
i. Ibilgailuen barruan eskean aritzea.
j. Irratiak, soinua erreproduzitzeko edo komunikatzeko gailuak, gailu elektronikoak edo antzekoak erabiltzea beste bidaiariek edo gidariak entzuteko modukoa den eta gogaikarria izan daitekeen bolumena dutenean. Horren inguruko eztabaida sortzen bada, gidariaren irizpidea nagusituko da.
k. Nabarmen hordituta edo estupefazienteen eraginpean sartzea, zerbitzuaren ohiko funtzionamendua galarazteko moduan.
l. Ibilgailuen barruan erretzea eta droga toxikoak, estupefazienteak edo edari alkoholdunak kontsumitzea.
m. Ibilgailuaren barruan edozein elikagai edo edari jan eta edatea, lekuan ohikoak direnak izan ezik, ibilgailuetako segurtasun- edo garbitasun- egoeraren aldaketa edo gainerako erabiltzaileentzat eragozpenak sor ditzaketenean.
n. Ibilgailuko leihatiletatik objektuak jaurtitzea edo gorputz-atalak ateratzea.
o. Gidariekin hitz egitea, zerbitzuarekin zerikusia duten beharrengatik ez bada; edo, justifikatutako kausarik gabe, ibilgailua martxan dagoela gidatzean arreta galarazi edo eragozpenak sortzen dituen edozein ekintza burutzea.
p. Ibilgailutik jaistea edo bertara igotzea finkatutako geltokietatik kanpo edo ibilgailua mugitzen ari dela, justifikatutako kausarik gabe.
q. Zutik bidaiatzea horretarako berariaz jarrita dauden segurtasun-gailuei behar bezala helduta edo lotuta egon gabe.
r. Ibilgailuaren barruan, ibilgailua zirkulatzen ari dela barra edo heldulekuei behar bezala heldu gabe ibiltzea, balaztatu behar denean edo trafikoaren ondorioz edozein gorabehera gertatzen denean norberaren edo gainerako erabiltzaileen osotasun fisikoa arriskuan jarriz.
s. Ibilgailuan dagoen edozein segurtasun- edo laguntza-mekanismo justifikatutako kausarik gabe erabiltzea.
t. Ateak ireki eta ixteko mekanismoak manipulatzea edo indarrez erabiltzea.

Goian jasotako xedapenak urratzen dituen edonori ibilgailuan sartzea debekatuko zaio, edo, bidezkoa bada, ibilgailutik irteteko aginduko zaio, tiketaren zenbatekoa itzultzeko eskubiderik gabe.

Gidariak ibilgailuan sartu nahi duten eta erregelamendu honetan ezarritako baldintzetakoren

bat betetzen ez duten pertsonei jakinaraziko die bertan sartzea

debekatua dutela, eta baldintzak bete ala bidaiatzeko asmoa alde batera uzteko eskatuko die. Berdin jokatuko du gorabehera gertatzen bada pertsona ibilgailuaren barruan dagoela; horrelakoetan, erregelamenduan ezarritakoa betetzeko eskatuko dio, edo, hala egiten ez badu, hurrengo geltokian ibilgailutik jaisteko.

Erabiltzaileak bere jokaera mantentzen badu eta gidariaren eskaerari jaramonik egiten ez badio, gidariak berehala emango die horren berri ikuskapen-zerbitzuei edo agintaritza-agenteei, garraio-enpresa eragilearen langilearen oharpenei kasurik ez egiteagatik salaketa jar dezaten, edota, bestela, aurpegiratutako egintzagatik egokia den salaketa jar dezaten.

III. TITULUA. GARRAIO-ENPRESA ERAGILEEN BETEBEHARRAK

26. artikulua. *Informazioa*

Garraio-enpresa eragilea arduratuko da garraio-zerbitzua emateak dituen ezaugarriei eta zerbitzuaren garapenean eragina duten gorabeherei buruzko informazioa emateaz. Informazio hori pertsona guztiek eskuratzeko moduan eskaini beharko da.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak eta zerbitzu bakoitzaren titularra den administrazioak, bakoitzaren eskumenen eremuan, zaindu egingo dute betebehar hori pixkanaka gara dadin.

Ibilgailuetan, une oro indarrean dauden tarifak ikusgai egongo dira, eta, era berean, erregelamendu honetan baliozko garraio-titulurik ez duen edo behar bezala balidatuta ez daukaten bidaiarientzat aurreikusita dagoen tarifaren aparteko errekargua adieraziko da.

Halaber, erregelamendu honetako xedapenen laburpen bat jarriko da ibilgailuetan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tarifa Sistema Bateratua kontratatzeko eta erabiltzeko Baldintza Orokorren laburpenarekin batera.

Horrez gain, garraio-enpresa eragileek erabiltzaileari jakinaraziko diete erreklamazio-liburua edota erreklamazio-orriak badaudela.

27. artikulua. *Geldialdiak*

Geldialdiak terminalak edo eskatutakoak izan daitezke.

Lineako geldialdi terminalak, edo ibilbidearen bukaerakoak, derrigorrezkoak izango dira, eta ordutegiak erregularizatzeko baliatuko dira.

Eskatutako geldialdiak dira ibilgailua bidaiariak sartu eta irteteko beharrezkoa den denboran soilik gelditzen den aldiak, ibilgailuaren barruan txirrina sakatuta geldialdia eskatu delako, edo gidariak geltokitik igarotzean eta martxa moteltzean ikusi duelako bertan bidaiariak badaudela eskua altxatua, ibilgailuan sartu nahi dutela adieraziz horrela.

Linea, ordutegi eta maiztasunak, behar bezala eguneratuak, bidaiarien eskura egongo dira beti geltokietan –haien ezaugarriek hala ahalbidetzen dutenean–, garraio-enpresa eragileen bulegoetan, eta web orrialdeetan. Informazioaren barruan, nolanahi ere, lehenengo eta azken zerbitzuaren hasierako ordutegia eta bidaien maiztasunak egongo dira. Maiztasuna 20 minutukoa edo hortik gorako tartekoa bada, abiaburuko irteera-ordutegi zehatzak adierazi ahal izango dira.

Garraio-enpresa eragileak informazio hori etengabe zabalduko du, linea bakoitzaren ezaugarrien arabera, sarearen planoak edo beste edozein informazio osagarri emanda, eta horretarako, zerbitzuaren titularra den administrazioaren edo Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren lankidetza eskatuko du, erakunde horien eskumenak kontuan hartuta.

Garraio-enpresa eragileak behartuta daude ezarritako irteera-ordutegiak eta maiztasunak betetzera. Eskatutako geldialdietarako adierazitako maiztasun eta ordutegiak orientaziokoak dira, eta, besteak beste, trafikoaren edo klimatologiaren inguruabar txarrek eraginda suerta daitezke. Enpresaren kalitate-irizpideen barruan, finkatutako maiztasunak betetzeko baliabideak ezarri beharko dira, edo, egokia bada, ibilgailuak ibilbideko geltoki batetik ez igarotzeko iragarritako ordua baino lehen.

Zerbitzuen ordutegia eta maiztasuna zehazteko xedez, ibilgailuen barruan sartu diren ekipo eta informazio-panel guztiak sinkronizatuta egongo dira doitasun handiko denbora errealeko erloju baten bidez; erloju hori, halaber, sistemarekin sinkronizatuta egongo da, GPSko NMEA protokoloko bilbeen bitartez. Erloju hori izango da ordutegiak era ofizialean markatuko dituena.

28. artikulua. *Ibilgailuak geltokietan aparkatzea*

Hainbat lineak partekatzen dituzten geltokietan, bi ibilgailu edo gehiago elkartzen direnean, ulertuko da geltokira iritsi den bigarren ibilgailua, lehenengoaz gain, bidaiariak sartu eta irtetea onartzeko arauzko lekuan dagoela.

Hirugarren edo laugarren dauden ibilgailuetako gidariek ez dituzte ateak irekiko, harik eta lehenengo lekura (geltoki-seinalearen parean) edo bigarrenera (atzetik datozen autobusetakoren batek bertan jarraitzen badu) iritsi arte. Ibilgailua bigarren lekuan gelditzen denean, gidariak egiaztatu beharko du geltokian ibilgailura igo gabe geratu den inor ez dagoela.

Ibilbideko geltokietan egiten den geldialdia bidaiariak sartu-irteteko beharrezkoa dena soilik izango da.

Geltoki terminaletan aparkatzen denean (gidariek atsedena hartzeko arauzko denboran eta ibilgailua iristen denetik ezarritako ordutegiaren arabera irten den arteko tartean salbu), sartzeko ateak irekita egongo dira, bidaiariak sartu ahal izateko.

Adierazitako geltokietan, aparkaldia lau minututik gorakoa izango dela aurreikusten bada, gidariak ibilgailuaren motorra gelditu ko du, eta martxan jarriko du irten baino

minutu bat lehenago. Geltokian motorra gelditzeko beharra betetzeko adierazitako lau minutuko denbora erreferentzia-esparrua da; motorra geldialdi luzeetan gelditzeko betebehar moduan ulertu behar da, bidaiari-lekua girotzeko beharrezkoa den aldia alde batera utzita.

Segurtasun-arrazoiak direla medio, debekatuta dago bidaiariak geltokitik kanpo sartu edo irtetea, ezinbesteko kasuetan izan ezik, baldin eta egokiak diren baldintzak badaude eta ibilgailuaren barruan zein hortik kanpo dauden erabiltzaileentzat arriskurik sortzen ez bada. Paragrafo honetan araututakoa ez zaio ezarriko ekitaldi berezietan baimendutako geltokien araubideari.

29. artikulua. *Ibilgailuak*

Garraio publikoko zerbitzuari atxikitako ibilgailuak identifikatuta egongo dira zerbitzuaren titularra den administrazioaren irudi korporatiboaren bidez, betiere horren aurka behar bezala arrazoitutako kausarik ez badago.

Horrez gain, ibilgailuek emakida-tituluan edo zerbitzuaren baldintzak arautzen dituen agirian ezarritako identifikazio-elementuak izango dituzte, bai kanpoan, bai barruan.

30. artikulua. *Tarifak eta garraio-tituluak erabiltzeko baldintzak aldatzea*

Tarifak, titulu motak edo horiek erabiltzeko baldintzak aldatzea baimentzen denean, horren berri emango zaie bidaiariei bere garaian.

Txartelen balioaren muga-eguna iritsi baino lehen agortu ez diren baliozko txartelak aldatzea baimentzen bada, ibilgailu guztietan jarriko da horri buruzko informazioa.

31. artikulua. *Publizitatea ibilgailuetan*

Zerbitzuaren titularra den administrazioak ibilgailuen barrualdean zein kanpoaldean publizitatea onartzeko edo debekatzeko aukera ezarri ahal izango du, eta, nolanahi ere, egokia den irudi korporatiboa errespetatuko da.

Publizitatea ez da trabarik izango ibilgailuak garraio publikoko ibilgailu moduan identifikatzeko. Ez du eraginik izango gidariek ikus-espazioetan, eta ez da baimenduko, inolaz ere, publizitatea ibilgailuaren aurrealdean jartzea.

Publizitatearen edukiek Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen legeria beteko dute, eta bereziki emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari zein droga- mendekotasunaren prebentzioari buruzkoa.

32. artikulua. *Higiene- eta erosotasun-baldintzak*

Bai ibilgailuak, bai zerbitzua emateko garraio-enpresa eragileek erabiltzaileei arreta emateko erabilitako instalazio finkoak egoera onean mantenduko dira, bidaiariek osasungarritasun- eta higiene-baldintza egokietan erabili ahal izateko moduan.

Gidariek komunikaziorako eta soinua erreproduzitzeko gailuak zein irratiak erabiltzen dituztenean, erabiltzaileak ez gogaitzeko moduko bolumenean jarriko dituzte. Nolanahi ere, gogaikarritzat hartuko da 55 LAeq (dB)-tik gorako muga-balioa, ibilgailuko kabinaren barruan neurtuta, ateak eta leihoak itxita daudela.

33. artikulua. *Ibilgailuen garbiketa eta mantentzea*

Ibilgailuei, zerbitzuan hasi baino lehen, aurreko artikuluan ezarritakoa betetzeko beharrezkoak diren aldizkako garbiketak egingo zaizkie; era berean, ibilgailuak desinfektatu eta bertako intsektuak hilko dira, ezargarria den araudian xedatutako epeetan.

Halaber, egunero, ibilgailua zerbitzuan jarri baino lehen, garraio-enpresa eragileak egiaztatuko du inklinatzeko sistemek, arrapalek eta plataforma jasotzaileek, txirrinek eta sakagailuek zein ikusizko eta soinu bidezko ohar-sistemek behar bezala funtzionatzen dutela.

Orobat, ibilgailuak zerbitzuan hasi baino lehen, egiaztatu egingo da ateak ireki eta ixteko sistemak, tiket-makinek eta balidatzaileek zein kokapen- eta komunikazio- sistemek behar bezala funtzionatzen dutela, eta segurtasun-osagai guztiak eskuragarri daudela eta erabiltzeko egoeran (mailuak, kristal-apurtzaileak, su- itzalgailuak, derrigorrezko segurtasun-uhalak, etab.); baita ere, erregai- eta olio- maila, pneumatikoen egoera eta gainerakoak egokiak direla zerbitzua emateko.

Sartu-irteteko arrapala, plataforma jasotzaile, tiket-makina eta balidatzaile, komunikazio- eta klimatizazio-sistemen edo segurtasunean eraginik ez duen ibilgailuko beste edozein elementuren funtzionamenduan gertatzen den edozein irregulartasun berehala konpondu beharko da urgentziaz. Ibilgailua egoera horretan erabiltzeko baldintza izango da aurkitutako arazoa eta ibilgailuaren ordez beste bat jartzeko ezintasunaren arrazoiak zerbitzuaren titularra den administrazioari jakinaraztea, aurkitutako arazoa konpontzeko aurreikusten den epea adierazita.

34. artikulua. *Ibilgailuen segurtasuna*

Garraio publikoko zerbitzuaren ustiapenari atxikitako ibilgailuak, behar bezala homologatutako modeloak izango direnak, funtzionamendu-egoera onean egongo dira, beren ezaugarri teknikoak indarrean dagoen Ibilgailuen Erregelamenduan ezarritakoaren araberakoak izango dira, eta ibilgailuen azterketa teknikoak (IAT) zein emakida-baldintzak bete eta egunean eduki beharko dituzte.

Inolaz ere ez da zerbitzurik egingo segurtasun-baldintzak betetzen ez dituzten ibilgailuak erabilita.

35. artikulua. *Ibilgailuak gidatzea*

Gidariek ibilgailuak gidatzeko orduan, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legea zehatz-mehatz bete beharko dute, eta baita legea garatzen duten araubideak ere.

Gidariak ibilgailua emeki gidatu eta gelditu beharko du, eta geldialdiak zein abiadak astinaldi edo mugimendu zakarrik gabe egingo ditu, bidaiarien eta oinezkoen zein zirkulazioaren segurtasunari bereziki adi.

Oro har, geldialdiak egingo dira ibilgailua espaloiarekiko paraleloan jarrita, eta gainerako ibilgailuen nahiz oinezkoen trafikoari ahalik eta eragozpenik txikiena eginez, bide publikoan ezarritako trafikoaren antolamenduak, garraio publikoaren sustapena dela-eta, autobusei lehentasuna ematen dienean salbu.

36. artikulua. *Istripua gertatzea*

Istripua gertatzen bada, gidariak formalizatuko du partea, gertatutako egintzei buruz ahalik eta informaziorik zabalena emanez, eta bidaiariei adieraziko die zein den gorabehera izapidetzeko bide egokia.

Garraio-zerbitzua erabiltzean kaltetuta suertatzen diren erabiltzaileek gidariari eman beharko diote gertatutako egintzen berri, gidaria egintza horiez ohartu ez bada. Ez zerbitzuaren titularra den administrazioa, ez zerbitzua ematen duen enpresa eragilea ez dira erantzule izango erabiltzaileek gertatutakoaren parterik ematen ez badute gerta daitezkeen ondorio negatiboen aurrean, betiere ezinbesteko inguruabarrek gertatutakoaren berri adierazitako moduan ematea galarazten badute.

Halaber, erabiltzaileei gogoraraziko zaie erreferentziako garraio-tiketaren egiaztagiria gorde behar dutela.

37. artikulua. *Bidaiariei edota hirugarrenei kalte egitea, istripu baten ondorioz*

Zerbitzua ematen duen enpresak hitzartuak izango ditu indarrean dagoen legeriaren arabera derrigorrezkoak diren aseguruak, istripu baten ondorioz bidaiariei edo hirugarrenei sortzen zaizkien kalte pertsonal edo materialak egoki ordaintzeko.

38. artikulua. *Ibilgailuen edukiera*

Ibilgailuan sartzen den bidaiari-kopurua ez da zirkulazio-baimenean zehaztutakoa baino handiagoa izango. Ibilgailuaren edukiera beteta dagoenean, ez da irekiko igotzeko atea, eta gidariak gorabehera horren berri emango du bere trafiko-zentroan.

Ibilgailuaren barruan, erraz ikusten den lekuan, adierazita egongo dira eserleku- kopurua, zutik joan daitezkeen bidaiarien kopurua, eta, hala badagokio, aulki gurpildunetan lekualdatzen diren pertsonentzat eta mugikortasun murriztua duten gainerako bidaiarientzat erreserbatuta dauden plaza- eta espazio-kopurua.

Zutik doazen bidaiariak garraiatu ahal izango dira, bakar-bakarrik, hala ahalbidetzen duten ibilgailuetan, dituzten homologazio-ezaugarri teknikoen arabera, eta berariazko arrazoiengatik baimenduta dauden zerbitzuetan.

Debekatuta dago bidaiariak garraiatzea horretarako erabiltzen ez diren eta egokituta ez dauden lekuetan.

39. artikulua. *Garraio-enpresa eragileetako langileen betebeharrak*

Garraio-enpresa eragileetako langileek betebehar hauek bete beharko dituzte:

1. Erregelamendu honetan eta derrigorrez bete beharrekoak diren gainerako arauetan xedatutakoa zehaztasun osoz betetzea.

2. Erabiltzaileekin une oro tratu zuzena mantentzea, egiten ari diren zerbitzuari lotuta dauden laguntzeko eta informatzeko eskaerei erantzunez.

3. Enpresaren irudi korporatiboa mantentzea eta gutxieneko higiene-baldintzak betetzea, bereziki bidaiariekin aurrez aurreko harreman zuzena duten langileek.

Garraio-enpresa eragilearen betekizuna izango da adierazitako betebeharrak nahiz araudi orokorraren ondorioz bidaiariei dagozkien guztiak bertako langileei betearaztea.

40. artikulua. *Tiketa emateko betebeharra*

Garraio-enpresa eragileak behartuta daude zerbitzua eskudirutan ordaintzen duten erabiltzaileei egokia den paperezko tiketa ematera, baita doan bidaiatzen dutenei ere, plazak zenbatzearren eta derrigorrezko aseguruen estaldura izatearren.

41. artikulua. *Tiketaren zenbatekoa itzultzea*

Tiketaren zenbatekoa itzultzea egokia izango da egoera hauetan:

1. Zerbitzua hasi baino lehen eten egiten bada, erregelamendu honetako 22. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. Tiketa aldez aurretik erosi eta gero erabiltzailea leihatilan aurkezten bada, ibilgailua irten baino gutxienez hamar minutu lehenago. Ez da itzulketarik egingo ibilgailua jadanik irten denean.

Ibilbidea tarifa-sistema bateratuko txartelen bidez ordaintzen bada, txartelaren zenbatekoa itzuliko da Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak horretarako ezarritako prozeduren arabera.

42. *artikulua*. *Erreklamazio-liburua edota -orriak*

Garraio-enpresa eragileek erreklamazio-liburuak edota -orriak jarriko dituzte erabiltzaileen eskura, bidaiariek kexak eta erreklamazioak egin eta zerbitzuaren titularra den administrazioak horien berri izan dezan.

Liburuaren ale bat edo erreklamazio-orrien kopuru nahikoa egongo dira erabiltzaileen eskura leku hauetan:

1. Tiketak emateko baimendutako instalazio finkoetan.

2. Tiketak emateko baimendutako instalazio finkorik ez dagoen lekuetan geldialdiak egiten dituzten zerbitzuetako ibilgailu guztietan.

Erreklamazioak egingo dira zerbitzua ohi bezala emateari eraginik ez sortzeko moduan, eta zerbitzua, ahal dela, ez da geldituko. Nolanahi ere, gidariek arreta emango diete adierazten zaizkien erreklamazioei, zerbitzua ohi bezala ematea ez aldatu, ez kaltetzeko moduan eta gainerako bidaiariei eragozpenik ez sortzeko moduan; hori gertatzen bada, erreklamazioa garraio-enpresa eragileen instalazio finkoetan aurkeztuko da, edo ezarritako baliabide elektronikoen bitartez.

Bidaiariak erreklamazioa egin eta garraio-enpresa eragileak erreklamazioa jaso eta gero, garraio-enpresak zerbitzuaren titularra den administrazioari helaraziko dio aipatutako erreklamazioa hogeita hamar egun balioduneko epean, egokitzat jotzen dituen alegazioekin batera, eta erreklamazio-jartzailearen nahia onartzen duen ala ez adierazita.

Zerbitzuaren titularra den administrazioak egokiak diren neurriak hartuko ditu, garraio-eragile guztiek, pixkanaka, erreklamazioak interneten bidez egiteko aukera eskain dezaten.

IV. TITULUA. GARRAIO-TITULUA

I. KAPITULUA. Garraio-titulua

43. artikulua. *Garraio-titulua*

Garraio-titulua, behar bezala balidatua, hala badagokio, ibilbide jakin batean bidaiatzeko baimena ematen duen agiria da.

Baliozko garraio-tituluak dira aldian behingo tiketa, tarifa-sistema bateratuko txartelak, behar bezala balidatuak, doaneko tiket izenekoa, aparteko errekargua ordaindu dela egiaztatzen duen ordainagiria eta une oro zerbitzuaren titularra den administrazioak edo, egokia denean, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak baimendu dituztenak.

Zerbitzuaren titularra den administrazioak, berez edo Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren bidez, garraio-tituluak sortu ahal izango ditu, eta baita horiek eskuratzeko eta erabiltzeko baldintzak ere.

Garraio-tituluak istripu-kasuetarako egokia den derrigorrezko aseguruaren estaldura darama berekin. Istripua gertatuz gero, aseguru-etxeak garraio-titulua eskatuko du, ibilbidearen zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzeko.

44. artikulua. *Baliozko garraio-titulua eramateko betebeharra*

Garraio-tituluak, behar bezala balidatuta, zerbitzua erabiltzea ahalbidetzen du.

Haurrek, sei urtetik aurrera, baliozko garraio-titulua izan beharko dute bidaiatzeko, behar bezala balidatua, helduen baldintza beretan, erregelamendu honetako 17. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Bidaiari guztiek baliozko garraio-titulu bat eduki beharko dute ibilgailuan sartzen diren unetik. Tituluaren ezaugarrien arabera, ibilgailuko sarrerako kontrolpean jarri eta gorde egin beharko dute, hondatu gabe, ibilbide osoan eta helmugako geltokian ibilgailutik irten arte, titulua erakusteko eska dezaketen garraio-enpresa eragileetako enplegatuen edo agente ikuskatzaileen eskura.

Tituluaren ezaugarriek ahalbidetzen badute bidaiari batek baino gehiagok erabiltzea, ibilgailutik irten den azken bidaiariak eduki beharko du beti titulua. Adierazitako tituluek eramailearen tituluaren izaera dute eta, hortaz, edozein pertsonak erabili ahal izango ditu.

Doan bidaiatu ahal izango dute, bakar-bakarrik, adingabeek, baimendutako pertsonek –izaera hori egiaztatzen duen agiria aldean dutela–,eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuak emandako mendekotasun-txartela duten pertsonen laguntzaileak, Mugi txartelarekin ordaintzen/baliozkotzen dutenean.

Derrigorrezkoa izango da aurreko paragrafoan adierazitako pertsonek doaneko tiket izenekoa eramatea, plazak zenbatzearren eta derrigorrezko aseguruen estaldura izatearren.

45. artikulua. *Tiketa ibilgailuan bertan erostea*

Bidaiariak aldi baterako tiketaren zenbateko zehatza ordainduko du, ahal bada; nolanahi ere, gidaria behartuta dago egokiak diren atzerakoak ematera.

Ibilgailuek zirkulatu beharko dute eskudirua dutela –xehea edo billeteak– atzerakoak eman ahal izateko, erregelamendu honetako 23. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ibilgailuetan txeketegia eraman ahal izango da, eta horren bidez eskudirutan eman ezin diren atzerakoak itzuliko dira. Emandako txekeak diru bihurtu daitezke hurrengo egunetik aurrera, garraio-enpresa eragilearen bulegoetan edo zehaztu daitezkeen beste leku batzuetan.

46. artikulua. *Garraio-titulua egiaztatzea*

1. Bidaiariak garraio-titulua erosten duenean, egiaztatu beharko du erositako titulua egokia dela eta, hala badagokio, jasotako atzerakoak zuzenak direla.

2. Bidaia anitzeko tiketak erabiltzen badira edo tarifa-sistema bateratuko txartelaz ordaintzen bada, erabiltzaileak egiaztatu beharko du balidazioa edo kontrola behar bezala egin dela eta egiten ari den bidaiaren datuekin bat datorrela.

3. Tiketaren titulartasuna

Tiketa leihatilan edo interneten bidez saltzeko aukera ematen duten ibilbide luzeko zerbitzuetan, tarifa-sistema bateratuko txartelen bidez erositako tiketak izendunak izango dira, eta bertan adieraziko da erreferentziako txartelaren zenbakia. Ibilgailuan sartzeko, bidaiariak erositako tiketa erakutsiko dio gidariari txartelarekin batera, bietako datuak bat datozela egiaztatzeko.

Datu horiek bat ez badatoz, edo txartela egiaztatu gabe badago, tiketa era automatikoan ezeztatuko da.

47. artikulua. *Aparteko errekargua ordaintzeko betebeharra*

1. Sarreran kontrolatutako edo behar bezala balidatutako garraio-titulurik ez duten bidaiariak behartuta egongo dira tiketa erostera, 50 euroko tarifa-izaerako aparteko errekargua ordainduta egindako ibilbidearen truke edo egin nahi dutenaren truke.

Kopuru hori lau lanegunen barruan ordaindu ahal izango da, edo berehala. Berehala ordainduz gero, aparteko errekarguaren zenbatekoa 20 eurora murriztuko da.

Zerbitzuaren titularra den administrazio publikoak eguneratu ahal izango du artikulu honetan arautzen den tarifa-izaerako aparteko errekarguaren kopurua, Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumoko prezioen indizearen arabera (KPI).

2. Garraio-enpresa eragileetako gidari eta ikuskatzaileak ahaldunduta daude aurreko paragrafoan aurreikusitako aparteko errekargua kobratzeko, erabiltzaileak baliozko edo behar bezala balidatutako garraio-titulurik ez duela egiaztatzen den unean bertan ordaindu nahi badu; hala bada, erabiltzaileari emango zaio egindako ordainketari dagokion ordainagiria.

3. Bidaiariak aparteko errekargua ordaindu nahi ez badu, eta ibilgailua martxan badago, egiten den lehenengo geldialdian jaitsi beharko da ibilgailutik.

4. Bidaiariak aparteko errekargua ordaindu ezin badu baliozko edo behar bezala balidatutako titulurik gabe zerbitzu publikoa erabiltzen ari zela egiaztatzeko unean bertan, eta bidaia jarraitu nahi badu, gidariak edo ikuskatzaileak salaketa-orria beteko du; bertan, bidaiariaren identitatea, eguna, ordua, linea eta gertatutakoa jasoko dira (titulurik gabe edo baliozko txartelik gabe bidaiatzen ari bada, eta azken kasu horretan txartelaren titularra identifikatuko da), artikulu honetako lehenengo paragrafoan aurreikusitako aparteko errekargua ordain dezan.

Xede horrekin, bidaiariak behartuta daude beren burua identifikatzera, gidari edo ikuskatzaileari NAN edo agiri baliokidea eta, hala badagokio, oker balidatuta dagoen garraio-txartela erakutsiz.

Bidaiariak ikuskatzeko eginkizunetan laguntzeko betebeharra borondatez betetzen ez badu, zerbitzua ematen duten enpresetako langileek poliziaren laguntza eskatu ahal izango dute.

5. Aparteko errekarguaren ordainketa egiten ez bada artikulu honetako lehenengo idatzi-zatiaren bigarren paragrafoan ezarritako epearen barruan, salaketa jarriko da, egokia den zehapen-prozedurari hasiera emateko.

II. KAPITULUA. Garraio-titulu pertsonalizatua

48. artikulua. *Garraio-titulu pertsonalizatuen baliotasuna eta erabilera*

Garraio-titulu, oro har, erabilera pertsonal eta besterenezinekoak izango dira.

Garraio-titulu pertsonalizatua bere izenean erosi duen pertsonak garraio-titulua zaindu eta kontserbatzeko erantzukizuna izango du, garraio-titulua arduraz erabiliko du, eta galtzen badu edo kentzen badiote, ahalik eta azkarren eman beharko du horren berri Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Erabiltzailearen Arretagunean.

Garraio-titulu pertsonalizatua galdu dela jakinarazten ez den bitartean, bere izenean erosi duen pertsona izango da txartelaren iruzurrezko erabileraren erantzule.

Garraio-titulu pertsonalizatuaren titularra 14 urtetik beherako adintxikikoa bada, gurasoek edo tutoreek gorde eta zaindu beharko dute.

49. artikulua. *Garraio-titulu pertsonalizatuen erabilera okerra edo iruzurrezkoa*

Garraio-tituluak aurkeztu egin beharko dira, garraio-titulu pertsonalizatuaren eramaileen identitatea egiaztatzeko agiriren batekin batera, behar bezala identifikatuta dauden ikuskatzaileek edota garraio-enpresa eragileko langileek hala eskatzen dutenean.

Egoera irregularra gertatuko da garraio-titulu pertsonala eta besterenezina era okerrean erabiltzen denean.

Garraio-titulu oker erabilita egongo da behean jasotako egoeretan, gerora beste egoera batzuk gehitu badaitezke ere:

a. Txartel pertsonalizatuaren gainean gezurrezko informazioa inprimatuta dagoenean.
b. Txartel pertsonalizatuan jasota dagoen pertsonaren identitatea ez duen beste pertsona batek erabiltzen duenean.
c. Txartel pertsonalizatu faltsutua denean, edo txartelean jasotako edo inprimatutako informazioa aldatu denean.
d. Jaisteko orduan ez balidatzea, beste zona bateko geldialdian jadanik egin delako, egindako ibilbidearen truke tarifa txikiagoa ordaintzeko helburuaz.
e. Tarifa-sistema bateratuaren beherapen handiagoak lortzeko helburu bakarra duten ekintzak egiten direnean.

f. Txartel pertsonalizatua erabili duen pertsonak uko egitea bere identitatea egiaztatzeko behar den agiria erakusteari, ikuskapen-zerbitzuek edo garraio- enpresa eragileko langileek hala eskatzen dutenean.

Txartel pertsonalizatuaren gainean gezurrezko informazioa inprimatuta dagoenean, txartela erosi duen pertsonak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari eskatu beharko dio akatsa konpontzeko.

Ikuskatzaileek eta garraio-enpresa eragileetako langileek txartelak kenduko dituzte oker edo iruzurrez erabiltzen direnean, Gipuzkoako Lurralde Historikoan Tarifa Sistema Bateratua kontratatzeko eta erabiltzeko indarrean dauden Baldintza Orokorren arabera.

50. artikulua. *Zigorrak garraio-titulu pertsonalizatuak oker erabiltzeagatik*

Erabilitako garraio-titulua tarifa-sistema bateratuko txartela denean, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza izango da txartelak oker edo iruzurrez erabiltzeagatik zigorrak ezartzen dituena, Gipuzkoako Lurralde Historikoan Tarifa Sistema Bateratua kontratatzeko eta erabiltzeko indarrean dauden Baldintza Orokorren arabera.

V. TITULUA. ZEHATZEKO ARAUBIDEA

51. artikulua. *Zehatzeko araubidea*

Erabiltzaileek nahiz garraio-zerbitzua ematen duten enpresa eragileek dituzten betebeharrak ez betetzea arau-hauste administratiboa izango da, eta horren ondorioz, Autonomian indarrean dagoen legerian eta, bereziki, lurreko garraioak eta kontsumitzaile zein erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak arautzen dituen legerian aurreikusitako zehapenak ezarriko dira.

Erregelamendu honetan jasota dauden eta adierazitako legerian berariaz jasota ez dauden betebeharrak ez betetzea arau-hauste administratiboa izango da, eta erregelamendu honetan adierazitakoaren arabera zigortuko da.

52. artikulua. *Eskumena*

Erregelamendu honetan ezarritako arau-hausteak egiteagatik zehapen-espedienteak hasi, izapidetu eta ebazteko eskumena izango dute legez edo araubidez eskumen hori esleitua duten organoek.

Erregelamendu honetan tipifikatutako arau-hausteak gertatuz gero, eskumen hori egokituko zaio arau-haustea eragin duten egintzak gertatu diren zerbitzu publikoaren titularra den administrazio publikoari.

53. artikulua. *Erregelamendu hau ez betetzearen ondoriozko arau-hausteen definizioa eta sailkapena*

Arau-hauste administratiboak subjektu erantzuleek burututako egintzak edo ez- betetzeak dira, erregelamendu honen arabera tipifikatu eta zigortuta daudenak.

Arau-hausteak arin, larri edo oso larri moduan sailkatuta daude, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 140.1. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz.

1. Hauek dira arau-hauste oso larriak:

   a. Ibilgailuan baimendutako gehieneko okupaziora iritsi denean, bidaiariei sartzen uzteko debekua ez betetzea.
   b. Ibilgailuak dituen sartu-irteteko sistemak ez erabiltzea, mugikortasun murriztuko pertsona bat bertan sartu edo irten behar denean.
   c. Zerbitzuak irauten duen bitartean, erregelamendu honetako 6. artikuluan aurreikusita dauden derrigorrezko irisgarritasun-sistemak aktibatuta ez edukitzea.

2. Hauek dira arau-hauste larriak:

   a. Mugikortasun murriztuko pertsona bati erreserbatutako eserlekua ez uztea, mugikortasun murriztua ez duen beste pertsona bati hala eskatzen dionean. Era berean, arau-haustea izango da, erregelamendu honetako 10. artikuluan ezarritakoaren arabera, erreserbatutako eserleku bat okupatzen ari den erabiltzailea enpresa eragileak eserleku hori uztera ez behartzea, eserleku hori erabili behar duen mugikortasun murriztuko pertsona bat dagoenean.
   b. Bigarren aulki gurpilduna kokatzeko espazioa erreserbatuta ez edukitzea, mugikortasun murriztuko bidaiariren batek erregelamendu honetako 11. artikuluan aurreikusitako erreserba egin badu.
   c. Ibilgailuan sartu eta gero, erregelamendu honetan etxeko animaliak bertan sartzeari buruzko 21. artikuluan zehaztutako baldintzetakoren bat ez betetzea.
   d. Erregelamendu honetako 25.e artikuluan adierazitako debekua haustea.

   e. Ibilgailuan sartu eta gero, erregelamendu honetako 25.g., 25.l. eta 25.p. artikuluetan adierazitako debekua haustea. Halaber, arau-haustea izango da garraio-enpresa eragileak erregelamendu honetako arau-hauste hori egitea ez galaraztea.
   f. Erregelamendu honetako 25.k artikuluan adierazitako debekua haustea. Halaber, arau-haustea izango da garraio-enpresa eragileak erregelamendu honetako arau-hauste hori egitea ez galaraztea.
   g. Erregelamendu honetako 32. artikuluan ibilgailuaren barruko giroari buruz zehaztutako baldintzak ez betetzea.
   h. Tiketaren zenbatekoa itzultzeko betebeharra ez betetzea, itzulketa hori egokia denean erregelamendu honetako 41. artikuluari jarraituz.

3. Hauek dira arau-hauste arinak:

a. Fardelak daramatzaten bidaiariei sartzen uztea, erregelamendu honetako 19. artikuluan ezarritako baldintzetakoren bat betetzen ez denean.
b. Etxeko animaliak daramatzaten bidaiariei sartzen uztea, erregelamendu honetako 21. artikuluan ezarritako baldintzetakoren bat betetzen ez denean.
c. Erregelamendu honetako 24.j. artikuluan ezarritako higiene- eta osasun- baldintzak betetzen ez dituzten bidaiariei ibilgailuan sartzen uztea.
d. Ibilgailuan sartu eta gero, erregelamendu honetako 25.h. eta 25.i., 25.j. eta 25.m. artikuluetan adierazitako debekua haustea. Halaber, arau- haustea izango da garraio-enpresa eragileak erregelamendu honetako arau-hauste horiek egitea ez galaraztea.
e. Erregelamendu honetako 25.f. artikuluan zehaztutako debekua haustea. Halaber, arau-haustea izango da garraio-enpresa eragileak erregelamendu honetako arau-hauste hori egitea ez galaraztea.
f. Aparteko errekargua ez ordaintzea erregelamendu honetako 47. artikuluan ezarritako epearen barruan.
g. Eta oro har, erregelamendu honetatik espresuki eratorritako obligazio eta debeku guztien ez-betetzeak, arau-hauste larria edo oso larria ez badira.

54. artikulua. *Erantzukizuna erregelamendu hau ez betetzearen ondoriozko arau- hausteak egiteagatik*

1. Garraio-enpresa eragileek edota bertako langileek arauak hausten dituztenean, erantzukizuna emakidaren edo baimenaren titularra den pertsona fisiko edo juridikoarena izango da, alde batera utzita erantzukizun hori sortu duten ekintzak edo ez-betetzeak enpresek edo enpresako langileek burutu dituzten; hala ere, beren ustez egokiak diren egintzak ondoriozta daitezke arauak berez hautsi dituzten pertsonen aurka.

2. Bidaiariek arauak hausten dituztenean, erantzukizuna bidaiariena izango da.

18 urtetik beherako adingabeak egindako egintzen erantzukizuna aitortzen denean, erantzule solidarioak izango dira, adingabearekin batera, gurasoak, tutoreak, hartzaileak eta legezko edo izatezko zaintzaileak, hurrenkera horretan, horiei guztiei ezarritako betekizuna betetzearren, hau da, 18 urtetik beherakoei egozten zaien administrazio-zehapena prebenitzeko betebeharra.

Erantzukizun solidarioa ezarri den isunaren ondoriozko diruzkoa izango da hertsiki, eta, bidezkoa bada, sortutako kalte-galerak ordaintzeko betebeharra.

3. Nolanahi ere, arau-hauste independentetzat hartuko dira ibilaldi desberdinetan egiten direnak, nahiz eta arau berak edo antzekoak hautsi.

Hala ere, araua hautsi duten egintzek garraio-enpresa eragilearen bulegoetan egiten den jarduera administratiboarekin zerikusi zuzena dutenean, edo erabilitako ibilgailuarekin, eta ibilgailuaren abiagunea zen enpresa-egoitzara itzuli arte zuzendu ezin direla frogatzen denean, egintza horiek arau-hauste bakartzat hartuko dira, nahiz eta bien bitartean egindako ibilaldietan eginak izan.

55. artikulua. *Erregelamendu hau betetzeko baldintzak ikuskatzea eta egiaztatzea*

1. Garraio-enpresa eragileek ikuskatu ahal izango dute bidaiariek nola betetzen dituzten erregelamendu honetan ezarritako betebeharrak; hala ere, zerbitzuaren titularra den administrazio publikoko ikuskatzaileek ere ikuskapena egin ahal izango dute.

2. Aipatutako enpresa eragileetako langileak baimenduta daude adierazitako betebeharrak nola betetzen diren zaindu eta ikuskatzeko. Hautemandako arau- hausteen berri eman beharko dute egokia den salaketaren bidez; eta, egokia bada, zehapen-espedientea irekiko da, hurrengo artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Adierazitako ikuskatzaileek eginkizun horiek betetzen dituztenean, beren izaera egiaztatzen duen agiria aldean izango dute, eta erakutsi egin beharko dute, bidaiariren batek hala eskatzen badie.

3. Ikuskatze-lanak egiten dituzten garraio-enpresa eragileetako langileek ez dute agintaritza-izaerarik; bai, ordea, zerbitzuaren titularra den administrazio publikoko ikuskatzaileek.

56. artikulua. *Zehatzeko espedienteari hasiera ematea*

1. Erregelamendu honetan arau-hauste moduan tipifikatutako egintzak edo urraketak egiteagatik zehapena jartzeko ahalmena ofizioz hasiko da, eskumena duen organoak hala erabakita, bai bere ekimenez, bai beste organo batzuek eskaera arrazoitua egitearen ondorioz, bai salaketaren bidez.

2. Beste organo batzuen eskaera arrazoituak barnean izango ditu arau-haustea izan daitezkeen egintzen kontaketa, horien tipifikazioa, data, egintzak gertatu ziren egunak edo denboraldi jarraitua, eta, ahal dela, ustezko erantzuleen identifikazioa.

Eskaera arrazoitua aurkeztea ez da loteslea izango zehatzeko ahalmena duen organoarentzat; nolanahi ere, eskaera aurkeztu duen organoari jakinarazi beharko dio prozedura ireki den ala ez.

3. Salaketa zehapen-espedienteari hasiera emateko modu bat izan daiteke.

Salaketak, berak bakarrik, ez du salatzailea bihurtzen zehapeneko prozeduran interesa duen alderdi. Salatzaileak prozeduran izango duen parte-hartze bakarra

izango da prozedura ireki den ala ez jakiteko eta, egokia bada, amaiera emateko ebazpenaren berri izateko eskubidea, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zehapen-ahalmena gauzatzea arautzen duen araudian aurreikusitakoaren arabera legitimaziorik ez badu eta zehapen-prozedurari hasiera ematea eskatzen ez badu.

4. Zehapen-prozedurak, halaber, alde interesdunak hala eskatuta hasi ahal izango dira, banakako edo taldeko legezko eskubide edo interesen titularra dela egiaztatzen badu.

Hipotesi horretan, ezargarria izango da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zehapen-ahalmena gauzatzeari buruzko araudia.

57. artikulua. *Zehatzeko ahalmena gauzatzea*

1. Aurreko artikuluan araututako moduetakoren batean salatzen diren arau-hausteen ondoriozko zehapen-espedienteak izapidetuko dira ustez urraketa diren egintza edo ez-egiteak burutu diren unean ezargarria den Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zehapen-ahalmena gauzatzeari buruzko araudian xedatutakoaren arabera.

2. Prozedura hasten denetik sei hilabeteko epean ebazpena jakinarazi ez bada, prozedura iraungi egingo da, Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen legerian ezarritako moduan eta ondorioekin.

Aurreko atalean adierazitako araudian ezartzen diren kasuetan ez ezik, prozedura interesdunei egoztekoak diren arrazoiengatik geldirik dagoen bitartean ere eten egingo da sei hilabeteko epe hori.

58. artikulua. *Erregelamendu honetan tipifikatutako arau-hausteei dagozkien zehapenak*

1.- Arau-hauste arinak ohartarazpenaz edo 450 euro arteko isunaz zigortuko dira.

Arau-hauslea berrerorlea bada, ez da bidezkoa izango ohartaraztea, eta isuna jarrita zigortuko da.

2.- Arau-hauste larriak 451tik 1.000 euro arteko isunez zigortuko dira.

3.- Arau-hauste oso larriak 1.001etik 2.000 euro arteko isunez zigortuko dira.

4. Zehapenak alderdi hauek kontuan hartuta mailakatuko dira: egintza arau-hausleak gizartean duen oihartzuna, nahitasuna, babestutako ondasun juridikoan arau- hausteak eragindako kalteen izaera, legez kanpo lortutako onuraren norainokoa eta jokabide arau-hauslearen errepikapena edo ohikotasuna.

Berrerotzea izango da araua hautsi duen pertsonak urtebeteko epean izaera bereko urraketa bat baino gehiago egin duenean eta hala aitortu denean ebazpen irmoaren bitartez.

5. Zehatzeko ahalmena duen administrazio publikoak jarriko ditu isunak, bai borondatezko epean, bai premiamendu bidez, ezargarriak diren arauen arabera.

6. Erregelamendu honetan jasotako arau-hausteak, era berean beste legezko xedapen batzuetan edo arloko araudian jasota daudenak, berariazko legeriaren arabera zigortuko dira.

7. Egokiak diren zehapenak ezartzea eta hirugarrenei sortutako kalte-galerak ordaintzeko egon daitekeen betebeharra ez dira elkarri lotuta egongo.

59. artikulua. *Erregelamendu honetan jasotako arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa*

1. Arau-hauste oso larriek hiru urte igarotakoan preskribatuko dute, larriek bi urte igarotakoan, eta arinek sei hilabete igarotakoan.
2. Arau-hauste oso larriak egiteagatik ezarritako zigorrek hiru urte igarotakoan preskribatuko dute, arau-hauste larriak egiteagatik ezarritakoek bi urte igarotakoan, eta arau-hauste arinak egiteagatik ezarritakoek urtebete igarotakoan.
3. Arau-hausteen preskripzio-epea zenbatuko da arau-haustea egin zen egunaren biharamunetik hasita. Arau-haustea jarraitutasunez egiten denean, epe hori zenbatuko da arau-haustea izan zen azken egintza egin zen egunetik hasita, edo legez kontrako egoera ezabatu zenetik hasita.

   Arau-haustearen preskripzioa eten egingo da prozedura administratiboa hasten denean, ustezko erantzuleak horren berri izanda. Preskripzioa berriro hasiko da, epe osorako, ustezko erantzuleari egoztekoa ez den kausaz prozedura gelditzen denetik hilabetea bete denean, edo prozedura erantzukizun-aitortzarik gabe amaitzen den egunaren hurrengoan.

   Prozeduraren xedea lortzera bideratzen den eta arrazoizko eran xede horrekiko proportzionala den edozein jarduketa burutzeak galarazi egingo du prozedura gelditzat ematea, nahiz eta jarduketa hori berariaz aurreikusita ez egon prozedurari buruzko arauan, betiere jarduketa hori organo eskudunaren erabakia bada eta behar bezala dokumentatuta badago.

4. Arau-hausteen preskripzio-epea zenbatuko da zehapena ezartzeko ebazpena bide administratiboan irmo egiten den egunaren biharamunetik hasita.

Zehapenaren preskripzioa eten egingo da betearazteko prozedura hasten denean, zigortutakoak horren berri izanda. Preskripzioa berriro hasiko da, epe osorako, zigortutakoari egoztekoa ez den kausaz prozedura gelditzen denetik hilabetea bete denean.

Betearazteko prozeduraren xedea lortzera bideratzen den eta arrazoizko eran xede horrekiko proportzionala den edozein jarduketa burutzeak galarazi egingo du prozedura gelditzat ematea, nahiz eta jarduketa hori berariaz aurreikusita ez egon prozedurari buruzko arauan, betiere jarduketa hori organo eskudunaren erabakia bada eta behar bezala dokumentatuta badago.

Zehapenaren preskripzioa geldiaraziko du, halaber, epaileak betetzeko behar hori eteteak, eta epe osoa berriro zenbatzen hasiko da epailearen etendura kentzen den egunaren biharamunetik hasita.

Xedapen gehigarriak

Lehenengoa. *Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren lankidetza*

Garraioak behar bezala funtzionatuko duela bermatzeko, garraio-zerbitzu bakoitzaren titularra den administrazio publikoak Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren arteko lankidetza sustatuko du, zerbitzu horietarako erabiltzen diren ibilgailuek askatasunez zirkula dezaten, eta garraio publikoko geltokiak, erreserbatutako erreiak eta garraio publikorako erabiltzen diren gainerako bideak libre manten daitezen.

Era berean, Ertzaintzak eta Udaltzaingoak garraio-zerbitzu bakoitzaren titularra den administrazio publikoari eta enpresa eragileei lagunduko diete, bidaiariren batek ezargarriak diren betebeharrak eta debekuak bete ez dituenean eta bere jokaera zuzentzen ez duenean.

Bigarrena. *Erregelamendu honi segimendua egiteko jarraipen-batzordea*

1. Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Batzar Orokorrak adostuko du erregelamendu honen jarraipena egiteko batzorde bat sortzea, erregelamendua indarrean jartzen denetik hilabeteko epean.

2. Aipatutako jarraipen-batzordea honela osatuta egongo da: Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari bat eta kontsortzioko kide diren tokiko erakundeen bi ordezkari, erregelamendu hau ezargarri zaien bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularra ematen duten enpresa eragileen lau ordezkari, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren bi ordezkari, eta irisgarritasuna edo mugikortasuna mugatua duten pertsonen bi ordezkari.

Batzar Orokorrak, aipatutako jarraipen-batzordea sortzea adosten duenean, Batzordearen

barruan garraio-enpresa eragileak eta irisgarritasun edo mugikortasun mugatua duten bidaiariak nahiz bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko

garraio-zerbitzu publiko erregularren titularrak diren administrazio publikoak eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza bera ordezkatuko dituzten pertsonak izendatuko ditu.

3. Jarraipen Batzordearen eginkizunak honako hauek izango dira, besteak beste: erregelamendu honen aplikazioa aztertu eta ebaluatzea, eta, aldian behingo ebaluazioari jarraituz, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari bertan aldaketak egiteko proposamenak aurkeztea.

4. Jarraipen Batzordeak bere barne-araudia onartuko du, bidezkoa bada, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza arautzen duten estatutuen arabera.

Xedapen Iragankorra

Bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularrak ematen dituzten garraio-enpresa eragileek urtebeteko epea izango dute, erregelamendu hau argitaratzen denetik hasita, bertan irisgarritasunari buruz ezarri diren ezaugarri teknikoetara egokitzeko.

Modu iragankorrean, ibilgailuek soinu bidezko ohar-sistemarik ez duten bitartean, gidariek jakinaraziko diete ibilgailuaren barruan dauden eta ikusmen-urritasuna duten pertsonei aldez aurretik adierazi dioten geltokira iritsi direla.

Xedapen Indargabetzailea

Indargabetuta daude erregelamendu honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo beheragoko xedapen orokorrak.

Azken xedapenak

Lehenengoa. Erregelamendu hau indarrean sartuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratzen denetik 15 egun baliodun igarotzen direnean.

Bigarrena. Bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularrak ematen dituzten garraio-enpresa eragileek behar bezala zabalduko dute erregelamendu hau bertako langileen artean.

Donostian, 2023ko ekainaren 29an

VII.2 ERANSKINA

ERREGELAMENDUAREN APLIKAZIOARI BURUZKO ARGIBIDEAK

ERREGELAMENDUAREN APLIKAZIOARI BURUZKO ARGIBIDEAK

1. Haurren aulkian edo autoan bidaiatzen duten 6 urtetik beherakoen doako txartela

6 urtetik beherakoen txartelak lortzeko, adingabea aulkian utzi eta gidariengana hurbildu beharko da. Autoak edo aulkiak lotuta egon behar du eta balazta piztuta, adingabearen segurtasuna bermatzeko.

Nolanahi ere, beti geratzen da aukera txartela hirugarren pertsona batek eskatzeko, pertsona heldua ez dadin umearengandik edo adingabearengandik banandu.

2. Ontzian ez doazen txakurrak eta aseguru-poliza

Hartzaileetan garraiatzen ez diren txakurrek ibilgailuaren plataforman bidaiatu ahal izango dute, baldintza hauek guztiak betetzen badituzte:

- Animaliaren ezaugarrietara egokitutako uhalaz lotuta joatea.
- Une oro zaintzailearekin kontaktu fisikoan egotea.
- Muturrekoa izatea.
- Baimendutako albaitaritza-zentro batek emandako osasun-txartel fisikoarekin bidaiatzea.
- Erantzukizun zibileko asegurua izatea.
- Indarrean dagoen legerian aurreikusitako higiene- eta osasun-baldintzak eta segurtasun-baldintzak bermatzea.

Hori dela eta, gidariek aipatutako osasun-txartela eta aseguru-poliza eskatu ahal izango dituzte pertsonei edo ondasunei kalteak eragiten dizkien intzidenteen kasuan, bai eta egokitzat jotzen dutenean ere.

<u>Muturrekoa</u>

Araudiaren arabera, ontzian bidaiatzen ez duten txakurrek muturrekoa eraman beharko dute, plataforman bidaiatzen ez badute ere.

Txakurren lekualdaketa egitezko bidetik ez eragozteko, hartzailearen kontzeptua zabal interpretatzea erabaki da, eta zakurrak poltsetan, saskietan, kapazuetan edo antzeko objektuetan sartuta bidaiatzea onartuko da.

Beraz, bi aukera daude:

- Txakurra poltsan, saskian, kapazoan edo antzeko objektuan eraman, muturrekorik eta uhalik gabe.
- Txakurra besoetan eraman, inolako ontzirik gabe, baina muturrekoarekin eta uhalarekin.

Lurrean doazen txakur guztiek uhalez lotuta eta muturrekoarekin joan beharko dute.

Erantzukizun zibileko asegurua

Ibilgailuetara sar daitezkeen txakurrak arriskutsuak ez direnez, ez da nahitaezkoa aseguru-poliza berezia edukitzea. Hori dela eta, nahikoa izango da ibilgailuan animaliarekin sartu nahi duten pertsonek etxebizitza-poliza bat izatea, estalduren artean animaliak eragin ditzakeen kalteak estaltzeko, hau da, kalte horietarako erantzukizun zibileko aseguru bat izateko.

3. Scooter elektrikoen sarbidea

Bidaiariei ezin izango zaie sarrera ukatu beren scooter-arekin, segurtasun-arrazoiengatik, ez baitaude debekatuta, eta gehienek gurpil-aulki elektriko asko baino pisu txikiagoa dute.

Aurrekoa gorabehera, ibilgailu barruan maneiatzea gainerako pertsonentzat arriskutsua izan daitekeela ikusten bada, sarrera debekatu ahal izango da segurtasun-arrazoiengatik.

Gurpil-aulkiei, haurren aulkiei eta bizikletei dagokienez, haurren aulkiekin parekatuko dira. Beraz, gurpil-aulkiek lehentasuna izango dute scooter elektrikoen gainetik, baina horiek bizikleten gainetik.

Geltoki berean haur-auto edo -aulki bat eta scooter bat elkartzen badira, geltokira lehenengo iritsi denak izango du lehentasuna.

4. Ikusmen-urritasun handia duten pertsonen laguntzailea

Ikusmen-urritasun handia duten eta ONCEren txartela dakarten pertsonek doan bidaiatuko duen laguntzaile batekin bidaiatzeko eskubidea izango dute.

Pertsonak ez badu egiaztatzen aipatutako gidabaimena duela, gidariek izango dute azken hitza; eta ibilbidea ordainarazten bazaio, GGLAri erreklamazioa egiteko aukera duela ohartaraziko dio.

5. Burka, belo integrala edo antzekoa daramaten emakumeen sarbidea

Burka, belo integrala edo antzekoa daramaten emakumeek ibilgailuan sartzeko eskubidea izango dute aurpegia aurkitu beharrik gabe, betiere eskudirutan edo identifikaziorik behar ez duen txartel anonimo batekin ordaintzen badute.

Emakumeak bidaia txartel pertsonalizatu batekin ordaindu nahi badu, beharrezkoa izango da daraman txartelaren titularra dela egiaztatzea, iruzurra kontrolatzeko neurri gisa; horregatik, bere nortasuna egiaztatzen ez badu, eta ibilbidea dirutan edo txartel anonimo batekin ordaindu nahi ez badu, ezin izango du bidaiatu.

Emakumea ezin da inola ere behartu bere burua aurkitzera, baina bai eskatu ibilbidea dirutan edo txartel anonimo bidez ordaintzeko.

Ezin izango da alegatu arroparekin lotutako segurtasun-arrazoirik emakume horiei ibilgailuetarako sarbidea ukatzeko.

6. Haurrentzako bizikletak

Araudian haurrentzako bizikletak fardeltzat hartu dira; hala ere, tamainak bereizi behar dira, batetik bestera asko aldatzen baitira. Horregatik, irizpide honi jarraitu behar zaio:

1. Ibilgailuan heldu bat eta adingabe bat sartzen badira, biak bizikletak daramatzatela, bizikletatzat hartuko dira ondorio guztietarako; izan ere, adingabea pertsona autonomoa da, eta, beraz, haren bizikleta ezin da jostailutzat edo fardeltzat hartu.

2. Ibilgailura heldu bat (bizikletarik gabe) eta adingabe bat sartzen badira, bizikleta txikia izanik, fardeltzat (jostailutzat) hartuko da, eta ez da kontuan hartuko bizikleten zenbaketan.

7. Erosketa-eskuko orgekin sartzea

Erregelamenduaren arabera, bidaiariak zutik onartzen diren garraioetan, erosketa-eskuko orgak onartuko dira. Hala ere, orga horien neurriak eta, oro har, gurdi horiek gurpil-aulkientzat, haurren aulkientzat eta bizikletentzat gordetako guneetan jartzen direla kontuan hartuta, azken horien sarrera ez eragozteko, autobusera sartu ahal izango diren erosketa-orgen gehieneko kopurua finkatu da.

Beraz, une berean gehienez ere 4 orga egon ahal izango dira erosketa-eskuko, autobusera gurpil-aulki bat, haurren aulki bat edo bizikleta bat gutxienez sar daitezkeela bermatzeko.